

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-09-29
ASTELEHENA
467. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS
TOKIKOM



"Lekuko gizartearen beharrei erantzuten dion unibertsitatea da gurea"

Jon Altuna | MUko errektoreordea | 8

Iparragirrerena entzunaz autorea bera hobeto ezaugu dute Oñatin | 30



Ruper Ordorikak azaroan aterako du disko berria | 32



SUDC elkartekok Maritxupean jantzi zuten inbutu preziatua | 14



Zapatu goizean, Aretxabaletako Durana kalean trikitilariak, artisau feria girotzen.

Aretxabaletak erreleboa Oñatiri

San Migel jaiei agur esan die aretxabaletarrek, ondo ospatu eta gero, eta Oñatin atzo iluntzean hartu zuten erreleboa, Txantxiaren jaitsieraz | 12

IMANOL SORIANO

SINADURAK

- Rumore... Ibarra dela-eta | 9
GORKA ETXABE
- 9 | Bejondeizuela, familia
UBANE MADERA
- 'Herri People' | 17
JAIONE CARPINTERO
- 19 | Hasiera
MARIJO PAGALDAI
- 15. anaia handia | 37
OIHAN VEGA
- 40 | Dimisioaren inguruan
MARKOS BALENTZIAGA

Emozioz jositako finalean, Easok irabazi zuen Iturripen jokatutako Euskal Kopa | 24

"Neu naiz azalpenak eskatu beharko lituzkeena"
Aurrera egin ez duen proiektuaz jardun dugu Odriozolaz | 26



Jon Odriozola. | GOIENA

Saririk jaso ez badu ere, bide luzea du 'Loreak' lanak
"Zinemalditik indartuta irten da filma", dio Arregik | 31

Udazkena: paisaia aldatzen da eta aldartea ere alda daiteke

- ▶ Eguzki argi gutxiago izateak eragina du gorputzean
- ▶ Tristura, energia falta edo logura senti daitezke
- ▶ Har daitekeen neurrietako bat da positiboa izatea

IRATI GOITIA | ARRASATE

Sartu berri gara udazkenean, hilaren 23an, 04:29an, hain zuzen ere. Urtaro aldaketak, hostoen erortzeaz gain, berarekin batera ekartzen omen du udazkeneko depresioa edo Urtaroko Desoreka Afektiboa deiturikoa. Itxura denez, eguraldi aldaketak eta eguneko argi orduen gutxitzeak gure aldarlean eragina omen du. Hainbatek sintomak ere izaten dituzte: suminkortasuna, apetitua areagotzea, logura handiagoa izatea, kontzentratzeko gaitasun txikiagoa, ekintzekiko interes falta... Itxura denez, gizartearen %5ek nabaritzen omen du, eta emakumeek jasaten omen dute gizonezkoek baino gehiago; eta baita argi ordu gutxiago dituzten herrialdeetan bizi direnek ere.

Tartekiaxxxx

Zenbateraino eragiten digu, ordea, eguraldi aldaketak edo eguneko argi kopurua gutxitzeak? Benetan nabaritzen al dugu? "Urtaroez izan dezakete nolabaiteko eragina. Adibidez, iparraldeko lurral-

DATUA

89

EGUN

Udazkenak 89 egun eta 20 ordu iraungo du.

Abenduaren 22an amaituko da eta egun horretan hasiko da negua.

deetan –Ingalaterra, Irlanda, Islandia...– depresio edo suizidio tasak handiagoak dira", adierazi du Arkaitz Irazabal psikologoak. Hala ere, hark nabarmendu du eguraldi aldaketa ezin dela depresioa izateko arrazoi bakarria izan: "Norbanakoaren egoera pertsonalak urtaro aldaketak baino zeresan handiagoa duela esango nuke. Hau da, pertsona bat bakarrik sentitzen bada, bikotekidearekin zuen harremana hautsi badu, babes sozialik ez badu edo bestelako gaixotasun edo minen

bat badu, orduan eragingo dio gehiago eguraldi aldaketa horrek". Bestalde, lanerako edo errutinarako itzulera hori ere orain gertatzen dela gaineratu du. "Nik uste dut urtaro aldaketak berak, bere horretan, ez duela eragin aipagarririk", dio.

Udalaitz zentroko Garbiñe Agiriano psikologoak esan du orokorrean ez daukala eragin zuzenik gure osasunean, baina badirela sintomak izaten dituzten pertsonak: "Egia esan, jende guttia dabil kezkatzen. Azken batean, asko kostatzen zaigu urtaro aldaketek dakartenera ohitzea eta esango nuke jendeak igartzen duela". Izan daitezkeen sintomak ere zerrendatu ditu: apatia sentimendua, tristura antzeko bat, energia falta, logura, nekea... Batzuen arreta, kontzentrazio eta memoria arazoak ere eragiten dituela zehaztu du. "Gehienbat, argitasun faltaren ondorioa da. Argitasunak animoa ematen digu, eta, bat-batean eguzki ordu gutxiago izatera pasatzean, jendearen gan aldaketak izaten dira", gai-



Udako argitasuna alde batera utzi, eta naturak berak erakusten digu aldaketa sasoi dela.

neratu du Agirianok.

Amaia Iriarte homeopatak energiak kontuak aipatu ditu: "Uda amaitu da eta udazkenean beste energia batzuk daude. Uda energia handiko urtaroa da. Orain, argi orduak gutxitu egiten dira eta temperatura aldaketa dator. Horrek gure gorputzean eragina du eta egoera berri horretara egokitu behar dugu. Hala ere, uste dut urtaro guztiek dutela eragina". Horrela, zehaztu du kontsultak ez direla nabarmenki ugaritzen sasoi honetan. Umeak ei dira sasoi honetan gehien joaten direnak, udazkeneko eta neguko birusen edo infekzioen aurrean, prebentzio bezala. "Negua datorrenerako defentsak hobeto izateko".

Melatonina

Agirianok argitu du melatonina kontua dela: "Azkenean, kimika

da. Melatoninak guregan eragin handia du eta gure garunak kimikoki funtzionatzen du. Gure garunean kimikoki izaten diren aldaketak gure nortasunean eta gure egunerokotasunean igartzen dira; adibidez, gure portaeran edo jarreran". Melatonina argiaren intentsitatearen arabera ekoizten da. Horrela, egunean zehar melatonina kopurua handiagoa da gauean baino, eta erritmo biologiko eta fisiologikoetan bere eragina du. "Horregatik da garrantzitsua egunean zehar kalean ahalik eta eguzki edo kaleko argitasun gehien hartzea. Edo beste modu batera esanda, kalean denbora pasatzea da garrantzitsua. Adibidez, eguzkia irteten bada, eguzkitara joan eta pixka bat hartzea. Izan ere, horrek melatonina aktibatzen du eta hori oso garrantzitsua da", azaldu du Agirianok.



MAITE ETXEBERRIA
ARRASATE

"Bai, nabaritzen dut udazkeneko aldaketa hau. Nekatuago izaten naiz. Horretaz gain, argitasun gutxiago izateak tristura ere sortzen didala esango nuke. Gainontzean, beste sintomarik ez dut izaten".



EDURNE ARREGI
OÑATI

"Pila bat igartzen dut. Eguraldi ona egiten duenean, goizetan ibiltzera joaten naiz. Orain, baina, fresko egiten du goizetan eta 20:00etarako ilun dago. Gogo gutxiago izaten dut irteteko; etxean hobeto egoten naiz".



AVELINO FERNANDEZ
ARRASATE

"Bai, eragiten dit, batez ere hezurretan nabaritzen. Izan ere, hezur sistema nahiko kaltetuta dut. Adin kontuak izaten dira horiek. Horretaz gain, eguraldi txarra hasten denean, tristeago izaten naiz".



ZURIÑE BADOS
ARRASATE

"Pixka bat bai. Eguzkiak poz edo bizipoz gehiago ematen didala esango nuke. Gauza gehiago egiteko gogoia izaten dut eguraldi onarekin. Urte sasoi honetan suminduta ere egoten naizela uste dut".



JULIAN CARRASCO
ARRASATE

"Ez, ez dut ezer berezirik igartzen. Lehen bezain ondo edo lehen bezain gaizki jarraitzen dut, urtaroa aldatzean. Gainera, hotza eta negua gehiago gustatzen zaizkit. Beraz, niri ez dit honek inolako arazorik sortzen".



ARTTIKUSCEN

"Positiboak izan"

Zer egin daiteke argi falta horrek eragiten dituen sentimendu edo sentazioei aurre egiteko? "Prozesu normala da. Udazkena beti izan da udazken. Egin behar duguna da alderdi positiboak begiratu. Izan ere, bizitza gero eta gehiago medikalizatzen gabiltza. Zer egin behar dugu? Antidepressiboak hartu?", esan du Aitor Montese, Aramaio medikuak.

Gaineratu du hartu beharreko neurriak gainerako urtarotan hartzen direnak izan behar direla: dieta zaindu –bitaminak dituzten fruituak janda, esaterako– eta ariketa fisikoa egin.

Ildo beretik egin du berba Iriarte homeopatak ere; positiboak izatea ei da garrantzitsuenak: "Udatik gatoz, eta udazkenean beti gabiltza pentsatzen, 'ze eguraldi txarra!', 'egunero euria ari du' edo 'a ze hotza!'. Ideia horiek aldatu egin behar ditugu. Izan ere, hori baldin bada gure jarra, udazkenerako urrats hori, gure gorputzak eman behar duen pauso hori, okerragoa izango da. Hein batean, gure burua egoera txar horretara baldintzatzen gabiltzalako. Beste aldarte batekin hartu beharko genituzke aldaketa hauek". Bestalde, Iriartek dio dieta zaintzea ere beharrezkoa dela, gorputzari babesa eskaintzeko. "Energia handiagoa ematen diguten janariak kontsumitu beharko genituzke edo berotasun handiagoa eskaintzen dizkigutenak jan; adibidez, saldak. Azken batean, udan hartu ez ditugun nutriente batzuk behar izaten ditugu".

Agirianok zehaztu du urtaroi lotutako sintomak izaten direla, eta aldi baterakoak: "Ohi-arte nabaritzen ditugu eraginak, baina gero desagertu egiten dira. Gainera, eragiten digutela jakinda, laguntza eskainiko diguten neurri batzuk hartu behar dira. Adibidez, kirola egitea ondo dago, beti. Azkenean, endorfinak sortzen ditugu kirola eginez eta honek ongizate sentazio atseginak ematen ditu. Horretaz gain, oso garrantzitsua da loaldiak

AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN | NUTRIZIONISTA

"Udazkena da aukera bat; udaren ostean, gorputzak atsedena behar du"

Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionista oñatiarrak udazkenean eta negura begira hainbat aholku eman ditu. Garrantzitsuenetakoa sasoiako produktuak jatea dela esan du.

Udazkenean sartu gara. Gure gorputzak nabaritzen al du aldaketarik temperaturan beherakadarekin eta eguzki ordu gutxiago izanda?

Nik esango nuke oso deskonektatuta gaudela naturarengandik. Uda eskertu egiten du gure gorputzak; azalerako eta organo batzuetako ona da. Udazkenak ere baditu bere alde onak, ordea. Joan den astean sartu ginen udazkenean eta dagoneko nabaritu dugu temperatura aldaketa, hiru-lau egunean aldatu da. Oraindik goiz da arropak aldatzeko, baina bai hasi behar dugu beste era batera pentsatzen. Egin behar duguna da beste organo batzuk landu. Udazkena da aukera bat. Argi gutxi dugula eta, tragiko jarri beharrean, barrura begira hasi behar gara. Beharra dugu barrura begiratu eta antolatzeko. Horretarako erabili behar dugu udazkena. Janariak ere aldatu egin behar dira –naturak beste produktu batzuk ematen dizkigu–, gorputzak ere eskertzen digu, atsedena behar du, garbiketa. Izan ere, orain igartzen ditugu udan egintako gehiegikeriak. Zuhaitzetako hostoen erortzearekin asko malenkoniatsu jartzen dira, baina aukera bat da. Gure ama lur honek ematen dizkigu pista batzuk. Naturari begiratu, ikusten dugu aldatzeko unea dela.

Ama lurrik pista batzuk ematen dizkigula esan duzu. Zer-nolako

dieta eraman behar dugu udazkenean?

Lehenengo, azala zaindu behar da. Azala da gure barruaren ispilu. Udako gehiegikerien ostean, ikusten duguna da hidratazio falta. Hala, bitamina eta mineralen aberatsak diren fruituak hartuko ditugu. Barazki mikatzak jateko unea ere bada: txikoria, esparragoak, alkatxofak... Horiek azalean, gibelean eta hesteetan lagunduko digute. Orain da kalabazak, kalabazinak edo azenariok jateko garaia ere. Sasoiaren sasoiak jan behar da. Naturak oraintxe oparitzen dizkigu fruitu lehorrak ere. Non sartu altxor horiek? Bada, meriendarako, gosarirako... Hasiko gara potajeak sartzen, adibidez: babak, dilistak, garbantzuak... Udan ahaztuta izan ditugun edo etxetik kanpora aritzean jan ez ditugun lapikoko gauzak. Ur asko edango dugu; saldak eta infusioak hartzen hasiko gara. Bestalde, ezin dugu ahaztu udazken-negu sasoiaren mugitu egin behar dugula. Udan egin ditugu kanpoko ariketak –mendira joan edo itsasoan igeri–. Bada, orain da unea kiroldegian izena emateko.

Urtaro honetan harrapatzen dira katarroak...

Bai, umeak eskolan hasi bezain laster hasten gara eztulaz eta mukiez. Ikusten duguna da jendea oso oxidatuta dagoela. Kasu horietan, limoia oinarrikoa da. Erregina-jelea ere har dezakegu, bizitza-jelea bat eskaintzen digu, eta indarra. Baita propolioa ere –kontsumatu egin behar da bere kontsumo–, antibiotiko naturala da. Adinaren eta behararen arabera,



ITZIAR BASTARRIKA

har dezakegu erregina-jelea propolioaz, zinkarekin, magnesioarekin... Benetako aldaketa udazkenean negura gertatzen da, eta, hain zuzen, horretarako ondo gertatu behar dugu.

Batzuek argi ordu faltaz tristura ere sentitzen dute; horren aurrean zer?

Ez dugu depresioan edo tristuran erori behar. Aukera bat da beste gauza batzuk egiteko. Egin behar dena da terapia lana: lagunekin izan, irakurgai politikak bilatu, etxetik irten, zure bizimodua okupatu, tertulietan parte hartu... Belarrak ere badira kasu horietarako. Batez ere, loarekin izaten dugu aldaketa handia, –ordutegi aldaketa ere badator–. Baditugu oso suabeak diren belarrak –tila, esate baterako–, erlaxatzen eta digestioan laguntzen digutenak. Bizipoz bat behar baldin baduzu, antibiotikoak hartu beharrean, txinparta pixka bat emateko balio duen magnesioa har dezakezu, adibidez. Positiboena, baina, naturarekin, animaliez eta pertsonekin kontaktua izatea da. Azken batean, beti uda balitz, gorputza ere ez litzateke ondo egongo.

ESANAK

"Egoera pertsonalak zeresan handiagoa du, urtaroak baino"

ARKAITZ IRAZABAL | PSIKOLOGOA

"Melatoninak eragin handia du; eguzki argiak aktibatzen du"

GARBIÑE AGIRIANO | PSIKOLOGOA

"Beste aldarte batekin hartu behar ditugu urtaro aldaketak"

AMAIA IRIARTE | HOMEOPATA

errespetatzea. Lo ondo egiten saiatu behar dugu, beharrezko ditugun ordu kopuruak egiten. Bestalde, normaltasunez hartu behar dugu urtaro aldaketa hau".

Gripearen txerto kanpaina

Urtero, udazken sasoiaren, izaten da gripe arruntaren aurkako txerto kanpaina. Bada, aurtengoa gaur, hilak 29, hasiko dute. Ohi moduan, 65 urtetik gorakoentzat, gaixo kronikoentzat ala diabetea, bihotz zein biriki gaitzek jotakoentzat izango da. Norberak bere herrian, anbulatorioan hartu ahal izango du txertoa, aurrez zita hartuta. Lehen mailako osasun etxeetarako hitzorduak Internet bidez ere har daitezke.

Udazkena goxoa izango omen da

Eguaztenean amaitu zen tenpora astea, eta, tenporen astean egin duen eguraldia aztertuta, Pello Zabalak udazken "goxoa eta polita" izango dugula iragarri du, aste horretan ez delako "haize bortitzik" ibili, besteak beste.

Tenporak epe luzerako eguraldia iragartzeko erabiltzen diren bide tradizionalen multzoa dira. Astebetean zehar egiten duen eguraldia aztertzen da, eta, egintzaren arabera, ondorengo hilabeteetan zein eguraldi egingo duen iragartzen da. Bada, Pello Zabala eguraldi aditu eta frantziskotarrak honako hau iragarri du: "Udazken goxoa eta polita espero dut. Baketsua izan da eta haize bortitzik ere ez da ibili. Horrenbestez, udazken goxoa horietakoa izango dugula espero dut. Petrala ez da izango, behintzat. Euskal Herrian izaten dugun horietakoa izango dela ematen du. Fruituak ondu eta baratzeko lanak bere onera ekartzeko horietakoa". Zehaztasun gehiago ere eman ditu: "Koska handirik ez da izan tenporen astean. Euria oso modu onean egin zuen joan den astelehenean eta haizea oso suabe ibili da. Beroa izan dugu hasierako egunetan eta gero freskatzen joan da".

Gaua ere iluntzen hasi dela ere esan du frantziskotarrak: "Martitzenean udazkenean sartu ginenean hamabi orduko eguna eta hamabi orduko gaua izan genuen, baina dagoeneko gauak beste bost minutu gehiago ditu eta eguna laburragoa da".

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.





Aurreztu.com

Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!



ZERB GARAGARDOA
12 botilako kaxa. Debagoieneko garagardo artisauna

16€

LEHEN:

22€

DESKONTUA:

%28



PC NET - EKOBAI
Egiozu garbiketa bat zure ordenagailuari!

20€

LEHEN:

40€

DESKONTUA:

%50



ANA ILE-APAINDEGIA
Irudia berritzea nahi? Kolorea, moztea eta orraztea

35€

LEHEN:

55€

DESKONTUA:

%37



LILURA ESTETIKA ZENTROA
Begien mikropigmentazioa

234€

LEHEN:

360€

DESKONTUA:

%35



BEGIRA ARGAZKILARITZA
Atera ezazu familia argazkia!

55€

LEHEN:

75€

DESKONTUA:

% 27



Gorka Ile-Apaindegia
Kolorea ematea, garbitzea, moztea eta orraztea

46€

LEHEN:

68€

DESKONTUA:

% 33

Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?

Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05



Fracking Ez! plataformak Bergaran jarritako erakusketa. | JULEN IRIONDO

Fracking-aren aurkako prozesu legegilea, aurrera

EAEEn 103.589 sinadura batu ditu plataformak: "Emaitzak oso onak dira"

JOKIN BEREZIARTUA | DEBAGOIENA

EAEko lurretan fracking-a debekatzeko asmoz abiatutako sinadura bilketa kanpainaren balorazio "oso positiboa" egin dute Fracking Ez! plataformako kideek: "Gureak azpiegitura gabeko taldeak dira, lana boluntario egiten dutenak. Diru oso gutxiarekin eta borondate handiarekin norbanako eta eragile askoren laguntza izatea lortu dugu; emaitzak oso onak dira", adierazi du taldeko kide Mikel Oterok.

Gainera, herriz herriko kontaktak balio izan die fracking-aren aurkako gune nagusiak identifikatzeko: "Ikusi dugu Arabako datuak oso altuak direla; EAEko 103.589 sinaduretatik Arabakoak 42.000 dira eta Gasteizen bakarrik 31.000 lortu ditugu". Bizkaian hegoaldean lortu dira sinadura gehien eta Gipuzkoan, berriz, gure bailaran eta Urola aldean.

Indarrean jarri aurretik, luze

EAEEn 103.589 sinadura bildu dira guztira eta beraz, lege bihurtzeko ezinbestekoak diren 30.000 sinaduren langa erraz gainditu dute. Fracking-aren aurkako debekua lege bihurtzeko prozesuaren barruan, hasteko Legebiltzarre-

rako lan egiten duen hauteskunde-batzordeak 30.000 sinadura horiek banan-banan aztertuko ditu ontzat emateko; hori bi edo hiru hilabetetan egitea aurreikusten da. Sinadurok konprobatu ostean eta prozesuarekin jarraitzeko, Batzar Nagusietara joango da alderdiek eztabaida dezaten: "Diotenez, EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEK tramitatzera onartuko

dute, baina hori bozkatu egin beharko da", esan du Oterok.

Tramitatzera onartu ostean hasierako proposamenak aldatzeko behar duen edo ez erabakiko da eta, azkenik, Legebiltzarrean eramango dute bozkatzera. Bozketan baiezkota iritertzen bada legea onartu eta Buletin Ofizialean (BOE) argitaratuko dute, indarrean egon dadin.

SINADURA BILKETA HERRIZ HERRI

HERRIA	SINADURA KOPURUA	ERROLDA	ERROLDAREN EHUNEKOA
Arrasate	1.677	17.597	%9,5
Bergara	1.401	11.581	%12,1
Oñati	783	8.872	%8,8
Aretxabaleta	577	5.401	%10,7
Eskoriatza	330	3.186	%10,3
Antzuola	308	1.671	%18,4
Elgeta	149	871	%17,1
Aramaio	395	1.189	%33,2
Leintz-Gatzaga	47	192	%24,5

Norberaren burua ezagutzeko aukera Enrique Martinez Lozanoren eskutik

Urriaren 2an bi hitzaldi emango ditu; asteburuan, formazio saioa Arantzazun

ARIZMENDI IKASTOLA | KOMUNITATETIK Enrique Martinez Lozanok orain hiru urte Arantzazun eman zuen hitzaldi baten harira, talde bat sortu zen Leintz bailaran hark jorrotutako gaiak sakontzeko. Ordutik talde horrek urtero antolatatu ditu hitzaldiak eta formazio-saioak. Psikologia eta izpiritaltasuna lantzen ditu Martinez Lozanok nork bere burua hobeto

ezagutzeko. Haren ustez, hezkuntza-proiektu batek, zenbat eta egokiago erantzun gizakiaren konplexutasunari, orduan eta hobeto asmatzen du. Eta horrela errazten du, dioenez, hazkunde integral eta orekatua. Proiektu horren barruan, barnetasunaren irakaskuntzak hezkuntzaren sistema osoa irauli behar du, bere helburua ez baita bakarrik eduki

espezifiko jakin batzuk transmititzea, baizik eta garenaren sakontasunetik, beste ikuskera eta bizi-modu bat ahalbidetzea.

Hitzaldia urriaren 2an izango da Arrasateko Arizmendiko Arimazubi gunean (18:00). Egun berean Huhezin beste hitzaldi bat emango du. Asteburuan, berriz, Arantzazun formazio-saioa eskainiko du 80 lagunendako.

AHT-rako desjabetzeak geldiarazteko eskaera

AHT Gelditu Elkarlanekoek proiektuaren aurkako 400 sinadura bildu dituzte bi astetan

M.T./J.B. | ARRASATE

Irailaren 6an agertu zen Estatu Buletin Ofizialean tuelaren Arrasateko aldeko desjabetzei alegazioak aurkezteko epea zabalik zela. Horren harira, Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlanekoek salatu dute epea urtearen sasoi honetan zabaldu izana, eta baita tramitazioa presazkoa izatea ere. Diotenez, oporren eraginaz aprobetxatu nahi izan dute, herritarrei, Udalari eta lurjabeek alegazio tramitazioak zailtzeko. Horregatik, AHT Gelditu Elkarlanekoek ia 400 sinadura bildu dituzte bi aste-

tan, desjabetzeen alegazio gisa aurkeztu eta proiektua gelditzeko helburuz.

Salatu zuten Frantzian 2030ra arte proiektua martxan jarriko ez denez, "zentsurik ez" duela hemen presaka ibiltzeak, batez ere "bailarako egoera ekonomikoa" kontuan hartuta: "Dirua gure eskualdea berriz martxan jartzeko erabili ordez, irteerarik gabeko zuloetan sartu gura gaituzte". Azkenik, azpimarratu dute AHT Gipuzkoan bukatzeak ere "zentsurik ez" duela, inguruetako lurraldeek proiektua gartzatzen ez badute.



Desjabetzeen aurkako agerraldia, Arrasateko BAZen. | MAIALEN TORRES

Mintzalagunen kanpaina, euskal hiztunak areagotzera

J.B. | DEBAGOIENA

Topaguneko eta Jardun elkarrekin Mintzapraktika egitasmoak aurkeztu zituzten joan den astean Donostian. Aurtengo kanpainak hizkuntza gaitasunak areagotu eta inguruko euskal hiztunak ugaritzea ditu helburu. Honakoa esan zuen Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabalek: "Euskaraz hobeto eta gehiago aritzeko, eta euskal hiztunak biderkatzeko, ez da magiarik behar, guk daukagu trukoa: aritzea".

Jarduneko Maitane Arizabale-taren arabera, mintzalagunek bi helburu dituzte: "Batetik, euren hizkuntza gaitasuna hobetzen dute, hizketarako jario-tasuna lortu eta lotsa galtzen dutelarik; eta bestetik, inguruko euskaltzaleei euskaraz bizitzen laguntzen diete, euskararen aldeko ekarpena eginez".

Argibide gehiagorako arrate@topagunea.org helbidera idatzi edo 673 428 464 telefono zenbakira deitu.



Aurtengo kanpaina aurkezteko agerraldia, Donostian. | TOPAGUNEA

Euskal Presoei babes, hileko azken egubakoitzean

- ▶ Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan elkarretaratzeak egin dituzte
- ▶ Herri bazkarian, festa eta aldarrikapena uztartu zituzten Aretxabaletan

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

Hilero-hilero, Euskal Herriko hainbat txokotatik bidaltzen da babes Espainia eta Frantziako kartzeletara. Debagoiendarrek ere ez zuten hutsik egin hilabete azken egubakoitzeko elkarretaratzerara, eta Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan gogoan izan zituzten "etxean ez daudenak", asteburuaren atarian.

Oraingoan, ordea, Irati Pagoaga aretxabaletarrak azaldu duenez, "zerbait berezia" egin nahi izan zuten herrian, festen aitzakian. Horrela, elkarretaratzeaz gain, manifestazioa ere egin zuten, aldarrikatzeko "Konponbiderako garai berrietan, baina arazo zaharrek" jarraitzen dutela. Izan ere, Pagoagaren hitzetan, "ezin da onartu hainbeste preso sakanatuta izatea, sakabanaketaren ondorioak ez baitituzte presoek bakarrik sufritzen". Horregatik, senideak ere izan dituzte gogoan euren aldarrikapenetan.

Era berean, konponbiderako aukerak ere badaudela gogorazi nahi izan zuten herritarrei, "giza eskubideen errespetua bake-rako giltzetako bat" dela azpimarratuz, baina beste hainbat gako ere badaudela ahaztu gabe.



Presoen aldeko aldarrikapena Aretxabaleta osoan zehar zabalduta zuten manifestazioan. | MAIALEN TORRES

28 gazteei "babesa"

Bide batez, zapatuko herri bazkarirako, zapi laranjak jantzeko deia egin zuten aretxabaletarrei, Espainiako Auzitegi Nazionalan epaitzen ari diren 28 gazteei "babe-

sa emateko". Horrela, herri bazkarian bildu ziren ia 500 lagunek "epaiketak bertan behera utziko dituen kolore laranjaz" margotu zuten Aretxabaletako frontoia, Pagoagak azaldu duenez.

Libre ekimenaren baitan, beraz, festa eta aldarrikapena uztartu zituzten aretxabaletarrek zapatuko herri bazkarian, "errekonoiztzen ez duten" epaitegiko epaiketari "ezetz" esanez.

Haur eta nerabeentzat harrera familiak behar dira Gipuzkoan

- ▶ Foru Aldundiak 44 harrera familia behar ditu, 55 haurrentzako
- ▶ Haur eta nerabeentzako babes neurria da, eta malgutasuna eskatzen du

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat jarri du abian, harrera familiak aurkitzeko, arrazoi desberdinak direla medio beren etxeetatik atera dituzten umeendako. Izan ere, une honetan, harrera familia bat behar duten 55 ume ditu tutoretzapean Foru Aldundiak eta 44 familia behar ditu, haur horiek guztiak ingurune egonkor bat izan dezaten, bai afektuen ikuspegitik, bai eta hezkuntzaren eta zaintzen ikuspegitik ere.

Ander Rodriguez, Gizarte Politikako diputatuak azpimarratu du familia tipologiak ez duela axola, garrantzitsuena dela ezinbestekoak diren hainbat baldin-

tza betetzea: "Familia osoak egon behar du ados erabakiarekin: argi eduki behar da harrera bat dela, ez adopzio bat; adingabea bere ohitura eta jatorrizko familiarekin onartzeko prest egon behar da; malgutasuna behar da; eta, azkenik, profesionalen laguntza onartu egin behar da, prozesu osoan zehar".

Gipuzkoan, pixkanaka-pixkanaka, erantzuna ematen zaie

Prozesuan zehar, Foru Aldundiak laguntza eskainiko die harrera familiei

familiak behar dituzten umei. Hala ere, zailtasun bereziak dituzten egoerak badaude. Berezi egoera honetan daude anai-arreba taldeak (momentu honetan, bi anai-arrebako bost bikote daude eta hiru anai-arrebako hiru hirukote), zazpi urte baino gehiagoko umeak eta nerabeak.

Harrera prozesua

Haurren Babeseko zuzendariak, Eujen Barreñak, bere aldetik, xehetasunez azaldu zuen zer den familia harrera bat: "Babes neurri bat da, arrazoi desberdinak direla medio, legez beren jatorrizko familietatik bereziak izan diren haur eta nerabeentzat aurreikusten dena". Dena den, haurrek jatorrizko familiarekin harrema-

netan jarraitzen dute, bisita erregimen baten bidez, eta harrera familiarekin bizi egiten dira. Barreñaren esanetan, "garrantzitsuena da ulertzea harrera familiak osatu egiten duela jatorrizkoa, ez ordeztu".

Harreraranzko lehen urratsa eman ahal izateko, interesdunek hainbat bide dituzte: telefonoz (943 11 25 22), emailaz (familiaharrera@gipuzkoa.net) edo Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren bulegoetara joanez (Txara II eraikina, Zarategi pasealekua 99, Donostia).

Prozesua hasteko, lehendabizi, prestakuntza hitzaldi batean parte hartu behar da, eta ondoren, harreragile izan nahi dutenei banakako balorazioa egingo zaie, egokiak diren erabakitzeke.

Barreña zuzendariak azpimarratu zuen prozesu osoan Foru Aldundiak Laguntza Teknikoko Zerbitzu bat jartzen duela, haurren eta familien jarraipena egiteko. Gainera, familian esku-hartzeko programak, adingabearentzako tratamendu psikologikoa eta gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoak jartzen dira eskatzaileen esku.

AITZIBER PLAZAOLA
1/12 SUMARIOAN
AUZIPERATUTAKO 28
GAZTEETAKO BAT

"Militantzia ez al da pertsona orok duen eskubide bat?"

Zein da zure egoera une honetan?

Epaiketako lehen egunetan, 28ok



SERGIO AZKARATE

deklaratu genuen, eta inkomunikatuta egondakoek polizia-etxean bizi izandako torturak azaldu zituzten. Urriaren 6an joan behar dugu berriz Madrilera, eta bertan, torturazileak hasiko dira deklaratzeko. Tortura testigantza guztiak entzun ostean, uste dut ezin dugula hauek dauden sala berdinean egon. Epaiketa abenduak 18ra arte luzatzea aurreikusten da, eta bitartean, ia astero Madrilera joan eta etorrian ibili beharko gara.

Nolako erantzuna jaso duzu inguruko aldetik?

Herritarrengandik izugarriko babes jasotzen ari naiz. Jendea harridura geratu da, gure militantzia politikoa epaitzen ari direlako. Ez al da hori pertsona ororen eskubide bat?

Etorkizunera begira, zer?

Epaiketa amaitu eta hilabete batzuetara jakingo dugu sententzia, eta kondena bat bada go errekurtsoa etorriko da ondoren, baina prozesua bera zigor bat da. Bitartean, bizi-tzarekin aurrera jarraitzen dut, baina baldintzatua nagoela ezin ukatu.

Autobusak, kilometroetara Oriora joateko

M.T. | DEBAGOIENA

Domekan kilometroak ospatuko dituzte Orion, eta horren harira, Aranzadi, Arizmendi eta Txantxiku Ikastolek autobus zerbitzua antolatuko dute hiru herrietan. Horrela, autobusek 9:30etan ekingo diote Orioranzko bidetara Arrasateko Garibaitik, 9:45ean Oñatiko Correosetik eta 10:00etan Bergarako Pesako geltokitik. Itzulera, berriz, 19:30etan izango da denentzat.

Kilometroen antolakuntzatik, garraio publikoaz gertatzeke deia egin dute. Izan ere, herrira autoz sartzerik ez da izango domekan.

Interesa dutenek gaurtik hasi eta ostiralera bitartean izango dute autobuseko txartela erosteko aukera aipatutako ikastoletan bertan, hamar euroren truke.



2012an egindako azokako une bat. | BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN ELKARTEA

Zabalik dago Enpresarean azokan parte hartzeko izena emateko epea

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak antolatuta, urriaren 23an egingo dute; Euskal Herriko enpresen etorkizuneko erronkak izango dira ardatz

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Urriaren 23an egingo dute Donostiako Kursoalen Enpresarean azokaren bigarren edizioa. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar- tea da jardunaldiaren antolatzaile, Gipuzkoako Foru Aldundia- rekin, Donostiako Udalarekin eta Laboral Kutxarekin batera. Hel- burua da euskaraz lan egin nahi duten enpresen arteko harrema- na eta elkarlana sustatzea.

"Bai Euskarari Ziurtagiria- ren Elkartearen eskuartean dugun Enpresarean proiektuaren zati bat da azoka. Hor dago www.enpresarean.org plataforma, enpresa eta profesional euskal- dunak batzen dituen. Askota- riko ekimenen bidez, urtean behin behintzat, sare hori osat- zen dutenei aurrez aurre berba

egiteko aukera eman nahi diegu, eta hor kokatzen da azoka", dio Elkarteko zuzendari Roberto Gutierrezek. Modu horretan, enpresen arteko elkarlana bide- ratu eta proiektu enpresarial berrien sorrerari bide eman gura diote.

Euren burua aurkezteko aukera

Euskaraz lan egiten duten enpre- sei; euskararen inguruko produk- tuak eta zerbitzuak eskaintzen dituztenei eta euskarazko ekimen enpresarial bat abiatu gura dute- nei dago zuzenduta azoka. Gutie- rrezen hitzetan, Elkartearen hel- buruetan dago alor sozioekon- omikoaren euskalduntzean eragitea: "Proiektu honekin, zuzenean ari gara eragiten euskararen presen- tzia gero eta handiago izan dadin".

Bigarren edizio honetan, Eus- kal Herriko enpresek etorkizun- ean dituzten erronkak izango dira azokaren ardatz. Horreta- rako, mahai-inguruak, solasal- diak eta tailerrak egongo dira, eta berauetan, askotariko enpre- sa eta erakundetako ordezkari- euren esperientziak partekatuko dituzte. Gai nagusiari, hau da, etorkizuneko erronkei, ikus- puntu ezberdinetatik helduko diote. Hala, besteak beste, mer- kataritza elektronikoz egingo dute berba; baita formazioan dauden erronken inguruan ere.

Gura duten enpresek, gaine- ra, euren negozioen berri ema- teko aukera ere izango dute. "Aurkezpen laburrak izango dira, hiru minutukoak, eta enpre- sek euren ideien berri emateko

ENPRESAREAN AZOKAREN EGITARUA

8:30-9:00: Harrera eta dokumentazio-banaketa.

9:00-9:15: Aurkezpen instituzionala.

9:15-10:15: Solasaldia: 'Euskal Herriko enpresen etorkizuneko erronkak'.

10:15-11:00: Mahai-inguruak: 'Komertzio elektronikoa: bezero berriak sarearen bitartez'.

11:05-11:25: Negozioen aurkezpen laburrak.

11:25-11:40: Berrikuntzak. Negozio eredu berriak. 3D inprimagailu tailerra, Hirudiren eskutik.

11:40-12:15: Kafea, elkarlana, fotokola.

12:15-12:35: Donostia Sustapena: 'Ekonomia eta gizartearen garapena. Nola/zertan lagundu ahal zaie ekintzaileei/enpresei?'.

12:35-13:05: Negozioen aurkezpen laburrak.

13:05-13:30: Esperientzia arrakastatsuak: 'Nazioartean kokatutako enpresak dira krisiari aurre egiteko ondoen daudenak'.

13:30-14:15: Solasaldia: 'Formazioa: etorkizuneko erronkak'.

14:15: Elkarlanerako bazkaria.

edo elkarlana bilatzeko erabiltzea gura dugu", dio Gutierrezek. Enpresen arteko hartu-emanak sustatzeko, bazkaria egoteaz gain, areto nagusitik aparte egon- go den beste areto bat ere aton- duko dute. "Horrela, enpreseta- ko ordezkariak, hala gura badu- te, jardunaldian zehar ere izango dute hitz egiteko txokoa", azaltzen du elkartearen zuzenda- riak.

Izena emateko, bi epe

Izena emateko, bi epe daude: azokan euren negozioen berri eman gura duten enpresek urria- ren 10a dute izena emateko azken eguna; gainerakoek, urriaren 17a. Izena emateko, [www.enpre- sarean.org](http://www.enpresarean.org) webgunean dagoen galdetegia bete behar da.

Funtzionarioen soldatek izoztuta jarraituko dute

T.M. | ARRASATE

Espainiako Gobernuak jaki- narazi duenez, langile publi- koek ez dute soldata igoera- rik izango datorren urtean. Soldatak izoztuta dauden bosgarren urtea izango da, eta aurrekoetan bezala, zan- tzu guztien arabera, gaine- rako erakundeetako funtzio- narioei ere eragingo die. Hala, Euskal Autonomia Erkide- goan, 100.000 langileri era- gingo die neurriak.

Ogasun Ministeriotik, era berean, 2012ko Gabonetako aparteko soldataren % 25 funtzionarioei itzultzeko borondatea azaldu dute.

"Inoizko uda onena" izan da 2014koa turismoarentzat

T.M. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak emanda- ko datuen arabera, 846.000 bisitari baino gehiago izan dira Euskal Autonomia Erki- degoan 2014ko udan. "Histo- riako udarik onena izan du Euskadik", azaldu zuen datuen aurkezpenaren Merkataritza eta Turismoaren sailburuorde Itziar Epalzak. Iazko datuekin alderatuta, Erkidegoko hiru lurraldeetan egin du gora bisita- ri kopuruak: Gipuzkoan %5,9; Araban % 5,4; eta Biz- kaian, %2,3.

Espainiatik kanpoko bisita- riak %44 izan dira; eta uztaia eta ekaina bitartean, 222 milioi euro utzi dituzte.

6 milioi bideratuko ditu Aldundiak arriskuan dauden enpresen lehiakortasuna hobetzeko

Milioi bat euroko pizgarriak ere emango ditu mikroenpresen eraginkortasun energetikoa hobetzeko

T.M. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldunditik jakinarazi dutenez, Gobernu Kontseiluak 6 milioi euroko Txo- ke Plana jarri du abian arrisku egoeran dauden enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobe- tzeko. Egoera txarrean dauden enpresen behar nagusiak zeintzuk diren azaltzen duen aurrediag- nostikoaren arabera ari da lanean Foru Gobernuak. Aurretzako fase horretan, ehun enpresa inguruk hartu dute parte, eta eskualdeko

garapen agentziak izan dituzte laguntzaile.

Enkargatutako azterketan hainbat ahulgune antzeman dituzte eta sei neurriren bidez helduko zaie ahulgune horiei: premiazko bideragarritasun plana egitea; kudeaketa plana zehaztu eta abian jartzea; ekoiz- pen lehiakortasuna hobetzea; negozioaren jarraipena ziurta- tzea; merkataritza arriskua dibertsifikatzea; eta enpresen zabaltzea.

2,5 milioi euro

Hilaren 23an egindako Kontsei- luan, lehenengo kontusaila onar- tu zuten, 2,5 milioi eurokoa. Kopu- ru horren helburua da arrisku egoeran dauden enpresei diru laguntzak ematea bideragarritasun planean ezarritako neurriak ezar- tzen laguntzeko profesionalak kontratatu ditzaten.

Gainerako neurriei dagokienez, kudeaketa plana zehaztu eta abian jartzeko, EHUKo adituen laguntza izango da. Ekoizpen lehiakorta-

suna hobetzeko, bestalde, Tknika berrikuntza zentroaren laguntza izango dute enpresek; hala, zentro horrek bere teknikariak jarriko ditu proiektuaren zerbitzura.

Garapen elkartearen bidez, Gipuzkoako eskualdeetako garapen agentziak arduratuko dira Txoke Plana dinamizatzeaz eta enpresen lana EHUKo eta Teknika zentroko adituekin koordinatzeaz.

Aurreikusitako beste hiru neu- rriei dagokienez, Aldunditik adie- razi dute dagoeneko lanean dabil-

tzala abian jarritako zenbait lagun- tza programaren bidez.

Eraginkortasun energetikoa

Lurraldeko mikroenpresetan en- gieren efizientzia eta aurrezpena sustatzeko milioi bat euro jarriko ditu Aldundiak. Programak hiru deialdi ditu diru laguntzak bana- tzeko, eta joan den asteko Gober- nu Kontseiluan onartu zuten lehenengo: 396.000 euro bidera- tuko dira eskualde agentziek edo mankomunitateek teknikari bat kontratatuzko, eskualdeko indus- trien eta enpresa energetikoen balio katea aztertu ditzan. Kon- tratatutako diren teknikariak, gai- nera, kostuak murrizteko eta baliabideak optimizatzeako energia alorrean kontu ikuskaritzak egi- teko beharri buruzko pedagogia eta dinamizazio lanak ere egingo dituzte enpresa txikiengan.

Jon Altuna | Mondragon Unibertsitateko errektoreordea

"Gure unibertsitatearen izaera eta bokazio publikoa aitortzea eskatzen diegu erakundeei"

- ▶ "Euskal Unibertsitate Sistema aldarrikatu" du MUK ikasturte hasiera ekitaldi ofizialean
- ▶ "Gizarte ardurari nekez egingo diogu aurre, ez badaukagu finantzazio marko egokia"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

MUKo errektoreorde akademikoa da Jon Altuna (Lazkao, 43 urte). Urteak daroatza MUn. Goi Eskola Politeknikoan egin zituen ikasketak, irakasle eta ikertzaile ere aritua da bertan eta 2011 ezkerro da MUKo errektoreorde. Datorren urtetik aurrera ere segituko du, Bixente Atxa errektore berriarekin batera. Unibertsitatearen jardunaz eta erronkez dihardu. **Euskal Unibertsitate Sistema aldarrikatu zuen joan den astean MUKo errektore Josu Zabalak, MUn ikasturte hasiera ekitaldian. Zer esan nahi duzue horrekin?**

Eskatzen dugu maila instituzionalatik aitortzea izaera ezberdina dugun hiru unibertsitateon bokazio publikoa. Izaera publiko, pribatu, elizako, kooperatibo... hori kontuan hartzeke, eta beste hezkuntza maila batzuetan gertatzen den moduan, izaera edo erabilgarritasun publikoa aitortzea unibertsitate guztiei. Gazteak formatzen ditugunean ez ditugu hezten sektore pribaturako edo kooperatiborako soilik. Orokorrean, euskal gizarterako prestatuta dagoen jendea dago. Gizartearen zerbitzura gaude, eta, unibertsitate publikoak bezala, guk ere bokazio edo izaera publikoa daukagu.

Publiko-pribatu paradigma amaitzea?

Hori da. Beste garai bateko kontuak dira horiek. Gaur egun eta testuinguru honetan ez baditugu puskatzen paradigma horiek, nekez egingo dugu aurrera. Euskal Herrian baditugu hainbat adibide; esaterako, herri mugimenduetatik sortu diren hainbat erakunde, ekonomiaren edo ikerkuntzaren motor izan direnak.

Finantzazio kontuez ari zen?

Horren gainean ere bai, jakina. Baina hasierako pausoa da aitortzea. Erabakietan parte hartzeko borondatea. Alde horretatik, Euskal Unibertsitateen Sistema eratu denetik asko aurreratu da. MUK erabakietan parte hartzeko aukera du orain. Baina hori baino harantzago doa gure aldarrikapena eta finantzazioaz ere berba egin behar da. Izan ere, gure unibertsitateari eskatzen zaion gizarte ardurari nekez egingo diogu aurre, ez badaukagu finantzazio marko egoki bat.

Gaur egun ez dago finantzazio marko egokia euskal unibertsitateen artean?

Bakoitzak esango du ezetz. Uleretzen dugu testuinguru ekonomikoa. Baina uste dugu desoreka handia dagoela Euskal Autonomia



Jon Altuna, Mondragon Unibertsitateko Arrasateko egoitzan. | GOIENA

Erkidegoko unibertsitateen artean, unibertsitate publiko eta bokazio sozial publikoko beste bien artean. Zerbitzu publikoa aitortzea eta horri dagokion finantzazio egokia eskaintzea. Horixe aldarrikatzen dugu. Hori da tendentzia Europar ere. Finlandian, esaterako, unibertsitatean eta hezkuntzan, oro har, sekulako aldaketa egiten ari dira. Unibertsitate finantzaketa sistema goitik behera aldatu dute. Estatuak finantzatzen dituen unibertsitateak diru publikoz %85eko finantzaketa bermatuta edukitze-tik, %45 edukitzera pasa dira. **Ildo horretan ikusten dituzu erakundeak eta gizarteak?**

Une oso egokian gaude. Unibertsitate Sistema horren instrumentu nagusietako bat izan dira unibertsitate planak eta hortik etorri dira kontratu programak. Gainera, bakarra da; izan ere, Espainiako autonomia erkidegoetan ez daukate halakorik. Dena dela, une honetan gabiltza hurrengo Unibertsitate Plana sinatzekotan, eta, horregatik, une egokia iruditzen zaigu gai hau mahaiaren gainean jarri eta erabakiak hartzeko.

Ze harreman daukazue euskal unibertsitateek?

Harreman instituzionalak oso onak dira. Mahai askotan parte hartzen dugu eta erabaki asko

hartzen ditugu elkarrekin. Lehiatzen gara, uste dut osagarriak garela ereduetan. Egia da, halere, kanpoko erakundeek, OCDEk, esaterako, leporatu izan digutela gutxi kooperatzen dugula geure artean euskal unibertsitateok. **Ze eskaintzen dio euskal hezkuntzari edo unibertsitate sistemari MUK, beste batzuek eskaintzen ez dutena?**

Gure izaera soziala edo herri mugimendutik sortutako proiektua izatea marka bereizgarria da. Lekuko gizartearen beharrei erantzuten dion unibertsitatea da gurea. Titulazioaren eskaintza, gazteak formatzerakoan... Bestalde, nabarmena da MUn

daukan garrantzia profesionalen etengabeko prestakuntzak. Beste bereizgarri bat da ikerketa oso bideratuta dagoela enpresa eta erakundeen beharretara. Ikerketa praktikora bideratuta dagoen unibertsitatea da MU.

Euskal unibertsitateak ze mailatan kokatuko zenituzke Europan?

Prestakuntzaren aldetik, kalitate handikoak gara. Hala aitortzen digute kanpoko unibertsitateek, ikasleak hara bidaltzen ditugunean edo hangoak gurean jasotzen ditugunean. Ikerketari dagokionez, badaukagu aurrera begira lan asko egiteko. Gabeziak bat da kanporako proiektzioa. Euskal unibertsitate sistema ez da oso ikusgarria. Deustuak, akaso,

"Unibertsitateok arreman onak ditugu; erabaki asko konpartitzen dugu"

"Prestakuntzaren aldetik, kalitatekoak gara EAEko unibertsitateok"

"Lekuko gizartearen beharrei erantzuten dion unibertsitatea da gurea"

"Unibertsitateko ibilbidea zurruna da ikasle guztiendako; aldatu nahi dugu"

badauka, izen bat, historia bat; EHUK ere bere tamainarengatik, badauka proiektio bat. MUnen kasua txikiago eta gazteagoa da eta, oro har, ez gara nabarmen ezagunak kanpoan.

Mendeberri izan da azken urteetako iparra MUnendako. Gaur egun ere bai?

Indarrean dago eta gori-gori, gainera. Mendeberrietik sortutako hezkuntza proiektuarekin gabiltzalako orain. Orduan aitzindari izan ginen hezkuntza berrikuntza. Gure unibertsitatearen oinarri izan da azkeneko urteotan eta 2013ko azken hausnarketan, etorkizuneko hezkuntza paradigmara begira jarri gara.

Zela irudikatzen duzue etorkizuneko unibertsitatea?

Ezagutza transmititzea baino gehiago, ezagutza barneratu, aplikatu eta horiei dagozkien jarrera batzuk lantzen dituen hezkuntza proiektuan oinarrituko gara. Era berean, konturatzen gara badaudela beste paradigma batzuk, eta horien artean daude pertsonalizazioarena. Jeneralean, unibertsitateko ibilbidea nahikoa zurruna eta homogeneoa da ikasle guztiendako. Eta mundu digitalak eskaintzen dizkigu aukera berriak ikasketa ez horren monolitikoak eta malguagoak egiteko. Horrez gain, globalizazioak dakarren irekiera ere bada beste erronka bat, gure ikasleek kanpoko esperientziak edukitzeko eta nazioartekotzea etxean deitzen dioguna bultzatzeko.

Zer esan nahi duzu nazioartekotzea etxean diotuzue?

Kanpoko kultura ezberdinekin harremana izan dezakezu etxean bertan. Kanpotik ikasleak etortzen diren heinean eta gure ikasleekin, ingurune honetan eta gure hezkuntza proiektuan parte hartzen duten heinean.

Zela egin dio aurre krisiari MUK?

Gure kezkarik nagusia da ikasleek dituzten zailtasunak lan munduan murgiltzen direnean. Aurretik bizi ez dugun egoera da. Nahiz eta beste unibertsitate batzuekiko, MUKo ikasleen batez besteko desenplegu tasa txikia izan. Hori dela-eta bultzatu ditugu enplegu azokak, esaterako. Gainerakoan, matrikulazio kopurua hazi egin da MUn. Krisi garaian ohikoa da hori eta krisiaren beste txanpona da.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

GORKA ETXABE
goiena.net/komunitatea/



Rumore... Ibarra dela eta

Txutxu-mutxuetan oinarritutako iritziek balio handirik ez badute ere, araua hautsi beharko dut eta kaleko zurrumurruek diotena hartuko dut aintzat iritzia plazaratzeko. Duranako kantoitik dator notizia! Izan beharko litzateke izenburua, baina gai serioegia da, eta pertsona askoren lanpostua jokoan dagoenez ahalik eta serioen arituko naiz. Entzun dut Ibarra kiroldegia kudeatzen duen UTEak, aldi-baterako enpresen baturak, Gabonetan utzi egingo duela, ezin duela gehiago, zorrak gorantz doazela, xitara behartuta daudela. Zurrumurruek diote LKS, Athlon eta Ondoa badoazela eta kirol instalazioaren etorkizuna airean dagoela. Lehenik, bi urtetan egindako lana esker-tu nahi diet publikoki. Kiroldegiko "bazkide" izan naiz atek ireki zituenetik; txalotzekoa eta onartzekoa da kudeatzaile eta langileek eskaintutako zerbitzua eta profesionaltasuna. Horregatik, legezkoa da eskerrak ematea.

Hori esanda, eta jakinda gestioaren inguruan nabardura asko egon daitezkeela, batez ere prezioaren inguruko eztabaidaz luze eta zabal ari gaitezkeela onartuta ere, gurako nuke etorkizunari begira jarri. Eta etorkizuna Ibarra kiroldegiarentzat 2015eko urtarrila da. Zer gertatuko da? Aretxabaletako Udalarri eskatzen diot UTEaren nahiak entzuteko eta arduraz erantzuteko. Kiroldegiko kudeatzaileekin adostasunera iristeko. Eta gestio pribatuari laguntza publikoa eskaintzeko. Kudeatzaileek eskatzen omen diote (hemen konfirmazioa eta informazioa falta zait) Udalarri ordaintzeko herriko kirol taldeen kiroldegiaren erabilera. Kantxa eta lokalen alokairua eta pertsonen joan-etorria. Era berean, eskatzen diote uraren kontsumoaren kuota gutxienez industrialia izan dadila, edo-eta ur kontsumoaren gastua Udalak har dezala. Dirudienek, neurri horiek hartuta, enpresen apustua bideragarria izango litzateke. Aretxabaletarrok kiroldegia behar dugu, eta akordio publiko pribatua izan daiteke soluziorik onena. Ondoren, prezioen politikaz ere hitz egin dezaket, eta gutxien dutenei prezio egokiagoak eskaini. Ea, bada...

USTEAK USTE

UBANE MADERA | umadera@goiena.com

Bejondeizuela, familia

Eskoriatzako ume transexualaren, Shailaren, istorioak bizi-ki hunkitu nau asteon. XXI. mendeko gizartean bizi arren, nire kasuan lehen aldia da halako esperientzia baten berri dudala. Eta bi puntu egin zaizkit, batez ere, deigarri. Bata da jakiteak horren ume txikiak horren argi duela identitate sexuala. Eta bigarrena da bere familiak ze modu ausartean egin dion aurre umearen beharri eta erantzuna eman. Bada, horrekin lotuta etorri zaidan pentsamendua da zenbat ume-gazte-heldu halako izango diren edo izan diren, eta horietako zenbatek ez duten zortetik izan familiaren babesik izateko eta, ondorioz, indarririk-a dorerik-aukerarik ez benetako nortasunarekin bizi ahal izateko.

KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizu abortuaren legearekin gertatutakoa?



MARI ANJELES FERNANDEZ
ARRASATE

"Nire ustez, legea bere horretan utzi behar zuten hasieratik. Izan ere, uste dut emakumeak erabakitzeke libre izateko eskubidea duela".



LAUREANO BARQUERO
ARRASATE

"Ni bizitzaren aldekoa naiz eta ez zait gustatu lege berria alde batera utzi izana. Ez dakit zergatik kendu diguten hitz emandakoa".



VISI GARCIA
ARRASATE

"Lehenengo legea ondo zegoen. Hala ere, uste dut gazteenek gurasoekin hitz egin behar luketela gutxienez, azken erabakia euren bada ere".



NORA CASAJUS
ARRASATE

"Uste dut gertatutakoa estrategia elektoralra izan dela, eta gainera, emakumeon erabakiak baldintzatuz erosi nahi izan dituzte botoak".

HANDIK ETA HEMENDIK

Hurbileko erreferenteen garrantziaz

Eneko Barberena
blogak.goiena.eus/barberena/

Raxoik badaki zerbait erreferentziaz. Ahalegindu da kosta ala kosta Katalunia eta Eskozia bereizten, istorio eta historia ezberdinak direla mantratuz. Kosovoko independentziaren gaiarekin saiatu bazen ezin konparaketa ekiditen, zer esanik ez kulturalki eta politikoki askoz hurbilago dugun Eskoziarekiko. Erreferenteek, onak badira behintzat, indarra ematen dute, ikaspenak banatzen dituzte, bidea urratzen dute.

Maria Sigmaren izena ere bolo-bolo irailan. Ezezaguna izango da kasik guztiontzat, akaso ezagunagoa "10 hilabetetan euskara ikasi duen neska greziar hura bezala". Nahi duenak, informazio gehiago hemen. Ez diot meritua kendu nahi Sigmari, harrigarria baita lortutakoa, baina ez dut uste erreferente egokia denik.

Batetik, ez da erreferente ona euskaltegietan izena emanda duten milaka

ikasleentzat. Hizkuntza ikastea ariketa gogorra da, gogorragoa norbere gaitasunen edo aukeren arabera, eguneroko eta asteroko ariketa luze bezain gratifikantea. Uste dut euskaltegietan argi izan ohi dela hori, gogorra da baina merezi du euskara ikasteak bizitzako beste hainbat plazerrek moduan. Horrenbestez iruditzen zait itxaropen faltsuak haiztzen direla honelako "anekdotekin" eta okerragoa dena, frustrazioa sor dezakeela euskara ikasleengan. Irudikatu 5 urte euskalategian denari luzatzen ari garen mezua.

Bestetik, adibidea ere ez da positiboa euskara ikasi ez dutenentzat. Nire ustez beraien aldekatasuna ere beharrezkoa dugu, behar dugu euskaltzale erdaldunaren figura ere. *Ad baculum* bat sartuz, Joxe Azurmendiarentzat euskalduna da euskal komunitatea elikatzen duen oro. Ni ez nago guztiz ados baieztapenez, baina iradokitzailea denik ezin uka. Arrasaten egin genuen dokumentala, Hesiak Gaintzen, gaia landuz. Hor dago ikusi nahi duenarentzat.

Eskozia errerente aproposa da Katalunia edo Euskal Herriarentzat. Maria Sigma, ez dut uste erreferentzia

aproposena denik.

Bidezidorren sustapenak nekea besterik ez dakar.

Irailak 7, bide okupazioa

Gotzone Elu
blogak.goiena.eus/bidasoatik/

Hondarribiko jaiekin batera egoera ulertezinak gertatzen dira. Irailaren 7an, alardearen bezperan, eguerdiko 12:05ean bide publikoa okupatzen hasi ziren. Kale Nagusiko espaloietan plastikoa eta egunkariak jarri zituzten eta gainean eseri. Espaloietatik ezin zen ibili, taberna eta jatetxeetara sartzeko oztopo-jauzia egin behar zen; kale horretan badira dozena erdi bat lagun gurgildun aukinan joaten direnak, pertsona horiek ere adokinen gainetik ibili behar izan zuten. Bai udalak bai udaltzainek jakinaren gainean zeuden, baina handik ez ziren agertu. Hori bai, arratsaldean, Salbearen ordurako, plastikoa kenarazi zizkieten, irudi eskasa ematen zuelako. Jakin nahi nuke SOS Racismokoak jarri izan balira, berdin jokatuko ote zuten.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Altor Izagire

Zuzendaria nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatzaile arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaria), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna

Xabier Urzelai

Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004

ISSN: 2174-369X

Tirada: 20.100 ale

Diffusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala




Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko iraileko zozketetako irabazleak



**32 hazbeteko
LG telebista.**

**Marilu Orueta
Biain (Oñati)**

Arrasateko hipermerkatua



Arrikrutzerako sarrerak

Idoia Legorburu Inda

(Eskoriatza)

Joxe Mentxaka

(Bergara)

Joseba Ezpeleta Irizar

(Arrasate)



Argiak emandako jokoak

J.M.Iñarra Kortabarria

(Arrasate)

Joxe Mari Ugarte Aiausti

(Oñati)



Harreman dendako otarra

Maider Mora Garcia

(Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00

Harremaneko otarra. Arrasateko Eroski hipermerkatuko dendan jaso beharko da. **Beste sariak.** Saria jasotzeko zatoz, GOIENArekin Arrasateko bulegora. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA. Otalora lizentziaduna 31. Arrasate. 943 25 05 05

Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

ELGETA

Umeendako ipuin kontalari saioak, boluntarioekin

- ▶ Otsailean ipini zuten martxan ekimena Elgetako udal liburutegian
- ▶ Izan duen harrera ona ikusita, jarraipena izango du ikasturte berrian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Irailaren 19an egin zuten Elgetako udal liburutegian herriko neska-mutikoendako zazpigarren Ipuinen Ordua. Ikasturte berriko lehenengo saioa izan zen, eta argi dago neska-mutikoak ipuinez gose zirela: 2-10 urte bitarteko 32 umek hartu zuen parte opor osteko lehenengo saio horretan.

Ekimenak, ordea, badu bestelako berezitasunik: ipuin kontalari boluntarioetan oinarritzen da, eta boluntario guztiak dira herriarrak.

Proposamena udal liburuzainarena izan zen, eta hasieratik sei lagun—guztiak emakumezkoak—elkartu ziren ipuin kontalari lanak egiteko prest. Iazko ikasturtean, saioak hamabostean behin egin zituzten, barikutan, 17:20etik 18:00etara, eta dataren eta eguraldiaren arabera, aldiro, 5-30 neska-mutiko artean izan dira saioak entzuten.

Jakinekkoa da umeek oso gustuko dutela ipuinak entzutea, eta esan daiteke otsailetik irailera bitartean Elgetako boluntarioek egin dituzten saioek harrera ona izan dutela—negu parteko saioek udaberri partekoek baino hobea, egitari zor—.

Ekimenaren helburuak

"Helburua, batik bat, herriko txikitxoek ipuinez eta ahozko kontakizunez gozatzeko aukera eskaintzea da", adierazi du udal liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak. "Dena den, bestelako ekintzak ere tartekatzen ditugu noiz behinka".

Umeei zuzendutako saio guztiak euskaraz izan dira, eta ipuinak entzuteko zein irakurtzeko plazer sortzea izan dute helburu, izan ere, ipuinen bitartez hizkuntza



Lorea Larrañaga boluntarioa, irailaren 19an, umeendako ikasturteko lehenengo saioa egiten. | ELGETAKO UDAL LIBURUTEGIA

lantzen da, lengoia deskubritzen da, hiztegia aberasten da, eta irudimena elikatzen da. Ekimenaren bitartez, gainera, neska-mutikoak liburutegi zerbitzura gerturatu dira.

Irizpideak boluntarioendako

Saioei hasiera eman aurretik boluntarioek Saroa Bikandi ipuin kontalari profesionalaren aholkuak jasotzeko aukera izan zuten. Ipuinak nola aukeratu, nola kontatuta, entzuleen adin tartekak knola finkatu... Hala, Saroa Bikandirekin

egindako saioek irizpide orokor batzuk zehazteko aukera eman zuten. Kontalari boluntarioen hasierako zalantzak eta beldurrak gainditzeko ere onuragarriak izan ziren

Bikandik egindako oharrak.

Ikasturte berria

Ipuinen Ordua ekimenari jarraipena ematea adostu dute Elgetako

DATUA

6

BOLUNTARIO

Otsailetik, zortzi ipuin kontalari saio egin dituzte Elgetan sei boluntarioekin.

udal liburutegian. "Boluntario denak agertu dira saioetan kontalari izateko prest, eta ostiral gehiago finkatuz doaz", esan du liburuzainak. Lehen hiru saioak lotuta daude, eta liburutegiko atea zabalik daude kontalari lanak egiteko prest dauden boluntario berriendako.

Bestelako ekimenak

Boluntarioekin egindako ipuin kontalari saioak, printzipioz, hiru urtetik gorako umeendako dira, baina hortik beherakoendako ere zenbait ekintza egin ziren iazko ikasturtean liburutegian. Esaterako, Azalerako Ipuinak delako saioak. Aurten ere ildo beretik jarraituko dute Elgetan, eta lotuta dute adin tarte horretako umeendako hurrengo saioa. Urriaren 27an, astelehena, egingo du Saroa Bikandik, 18:30ean.

Zortzi urtetik gorako gazte-txoengana iristea ere bada liburutegiko arduradunaren beste kezka bat. Ipuin saioetan, gehienbat, 3-8 urte bitarteko neska-mutikoak hartzen dute parte, eta gaztetxoendako saioek parte hartze txikiagoa izan dute.

Ikasturte berrirako beldurrezko ipuinen kontalari saioa, marrazki lehiaketa, eta irudi deformatuak lehiaketa aurreikusten ditu Ezpeletak. Abenduko lehenengo hamabostaldirako prestatu beharko dituzte marrazkiak gazteek. Gaia eta oinarriak azaroan argitaratuko dituzte. Irudi deformatuak lehiaketa, berriz, ikasturteko bigarren hiruhilekorako aurreikusten da.

Lotuta daude ikasturteko lehen saioak

Aurreko ikasturtean ipuin kontalari saioak egin dituzte boluntarioak prest agertu dira ekimenarekin jarraitzeko, eta udal liburutegitik data berriak finkatzen hasi dira. Hurrengo saioak izango dira urriaren 10ean, urriaren 24an eta azaroaren 7an. Guztiak ere 17:20etik 18:00etara. Ipuin kontalari lanak egiteko boluntario gehiago balego, udal liburutegian jasoko dituzte ekimenaren gaineko argibide gehiago.

Ipuin kontalaria helduendako ere

Helduek ere ipuin kontalari saioa izan dute ikasturte hasiera honetan, Elgetan. Boluntarioekin gauzatutako ekimenarekin interesatuta Elorrioko Roman Marzana liburutegira gerturatu, eta bere burua eskaini zuen helduendako gaztelerazko ipuin saioa egiteko.

'La Mirada' izeneko 45 bat minutuko kontakizuna eskaini zuen hilaren 19an, liburutegian, eta herriko dozena bat lagun elkartu ziren haren ipuin saioa entzuteran.



Roman Marzana, liburutegian, ipuinak kontatzen. | ELGETAKO UDAL LIBURUTEGIA

Kantuan hasi eta amaitu dira jaiak Aretxabaletan

Egubakoitzean jendetza bildu zuen kantu afariak, eta, zer esanik ez, domekako 'Katuska' operak

M.T. | ARETXABALETA

Erraldoi eta Kilikien eskutik eman zieten hasiera egubakoitzean sanmigele, eta aldarrikapenik ere ez zen falta izan festeko lehen egunean. Ondoren, gaueko freskura abestuz epeldu zuten aretxabaletarrek, eta eszenatoki erraldoi bihurtu zuten Durana kalea.

Ohiturari eutsiz, zapatuan San Migel azoka ospatu zuten, eta inguruetakoko nekazari zein artisau izan ziren bertan. Jende ugari gerturatu zen, asko base-ritar jantzita, eta saltzaileek azaldu zuten, jendeak ikusi eta dastatu bakarrik ez, erosi ere egin zituen produktuak, urtez urte ohitura hori "gainbehera" doan arren. Bitartean, jai girorik ez zen falta izan kaleetan, trikiti eta txalaparta joleak, joaldunak eta jubilatuen abesbatza ibili baitziren azokaren inguruan.

Festetako egun handian, ikastetxeetako haurrak ere euren saltsan ibili ziren, Kurtzebarri eskolakoak euren baratzako produktuak salduz, eta Arizmendi ikastolakoak Ziburuko ikastolaren aldeko dirua bilduz, guztiak ere irakasleen begiradapean. Festa, baina, ez zen egunarekin batera amaitu, zapatu gaua luzea izan baitzen Aretxabaletan.

Frontoia bete jende

Festei amaiera emateko, Aretxabaleta Abesbatzak *Katuska* opera taularatu zuen txalo artean, Anjel Barandiaran zuzendari zutela. Koruko 38 kideez gain, lau bakarlarri, hiru musikari eta 30 dantzari izan ziren oholza gainean, eta behetik begira, berriz, jendetza. Izan ere, aurreikusitako aukiez gain, atzeko lerroak ere bete zituzten *Katuska* ikustera gerturatutakoek.



Guztira 50 postu izan ziren azokan, eta jende ugari gerturatu zen produktuak ikusi, dastatu eta erostera.



Artisauen lana bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zen.



Trikiti doinuez gain, txalaparta hotsek ere girotu zituzten kaleak.



Kantuz berotu zuten gaueko giroa.



MIKEL ROLDAN ETA MARKEL PEÑAKOBA

"Buruhandien aurretik korrika hasi ditugu festak, baina guk hala eskatu arren, ez gaituzte indarrez jo. Festetan ekintza asko izaten dira, eta guztietan horixe dugu gogokoena. Urtero etortzen gara. Horrez gain, barraketan ere ibiltzen gara, eta 'tortilla' izenekoa da gehien gustatzen zaiguna.



NAHIA, YANDE, NAROA, ARAITZ ETA ARIANE

"Arratsaldean jolasean ibili gara, buruhandien inguruan. Batzuek besteek baino fuerteago jotzen dute, baina normalean ez dira gure atzetik etortzen. Bestela, egunero ateratzen gara lagunartean, festetako ekintzez gozatzera. Besteak beste, zapatuko herri bazkarira joateko asmoa dugu, gurasoekin".



EDORTA ANTIXIA

"Zapatua izaten da egunik fuerteena eta egubakoitzean indarrak gordetzen ditut, azokaz behar bezala gozatzeko. Bazkari herrikoira ere joan ohi gara urtero, baina aurten kale egingo dugu".



'Katuska' opera taularatu zuen Aretxabaleta Abesbatzak.



Erraldoi, buruhandi eta kilikiekin hasi ziren festak.



Kurtzebarrikoek euren ortutik jasotako produktuak saldu zituzten.



Arizmendiko umeek Ziburuko ikastolaren aldeko dirua bildu zuten.



Ia 500 lagun bildu ziren frontoiko herri bazkarian.



esbatzak, dantzari eta musikarien laguntzaz. | ARGAZKILARIAK: I.S., M.T.



Txantxikuak kanpandorretik txosnetara jaitsita eman zien hasiera jaiei. | JOSETXO ARANZABAL

Asteburua jai giroan pasa arren, hasi besterik ez dira egin Oñatiko sanmigelak

Atzo eman zioten oñatiarrek hasiera ofiziala herriko festei, baina joan den asteburua eta datorrena ere biltzen ditu aurtengo egitarauak

M.T. | OÑATI

Oñatiarrek festei ofizialki ekiteko gogo biziz itxaron zioten atzo txantxikuaren jaitsierari, baina egia esan, festa martxan zen. Izan ere, txosna gunera txaranga doinu artean iritsi zen txantxikua kanpandorretik

helburuarekin. Hala, jolasean, kantuan edota, besterik gabe, ondo pasatuz "kontzientzia feminista zabaldu" zuten, eta arratsaldeko olinpiada moreak izan ziren ekimen horren erakusle.

Bestalde, Santa Anan, Iparragirre Oñatin izan zenekoak eka-

rra zituzten gogora. Urretxuko bardoaren bizipenak "Gazte gaztetandikan" kontatu eta kantatu zituzten Olaiturri kultur taldekoek eta ikus-entzuleek gogoz kantatu zituzten olerkari ospetsuaren abesti ezagunenak [ikus 30.orrialdea].

Asteburu bete-betea

Atzokoa izan zen jaien irekiera ofiziala, baina sanmigelen bueltan antolatutako egitarauak joan den asteburuan eman zituen bere lehen pausoak, haurren danborrada eta artzain txakur lehia-ketarekin. Asteburu honetan, berriz, ostiralean gogotsu ekin zioten jai giroari oñatiarrek, Amparo Sanchez eta La Jodera taldeen kontzertuekin.

Zapatuan egun morea izan zuten txosnetan, antolatzaileen esanetan, jaietan "eduki feministendako espazio bat" sortzeko



Amparo Sanchezek kontzertua eskaini zuen egubakoitzean. | IMANOL SORIANO



Egun moreko egitarauaren baitan, olinpiada moreak egin zituzten arratsaldean. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Ardoa, gazta eta inbutu preziatua banatuta, dena gertu Maritxu Kajoirako

SUDC elkarteak omendu zuen komisiñoak Nobenaixuan: "Opari oso ona da, beti gogoratuko duguna", diote

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Azken urteetako ohiturari eutsiz eta Maritxu Kajoi komisiñoak antolatuta, egun handiaren aurreko egubakoitzean Nobenaixua ospatu zuten Maritxupearan. Euskal preso eskubideen aldeko hileko azken egubakoitzeko elkarretaratzearen ostean banatu zuten komisiñoak kideek inbutu preziatua. Aurten SUDC elkarteko ordezkariak omendu dituzte, herriaren alde egin duten eta egiten duten lanagatik: "Ez genuen espero, oso polita izan da. Arrasateren alde egiten dugu lan baina ez genuen uste halako opari-

rik jasoko genuenik", adierazi zuen elkarteko presidente Juan Luis Arkauzek inbutua jaso berri, buruan mantentzeko nahikoa lan zuela. Arkauzek urduri hartu zuen mikrofonoa: "Eskerririk asko Maritxu Kajoi komisiñoari gutaz akordatzeagatik". Esker on hitzen ostean ardoa eta gazta banatu zuten barra-barra ordurako jendez beteta zegoen Maritxuren azpiko barran.

Aurtengo festa, berezia

SUDC elkartekoek ondo baino hobeto ezagutzen dute Maritxu Kajoi festa baina aurtengoa, ome-

nalditxo jaso ostean, berezia izango dela aitortu zuen Arkauzek. Hala ere, egunerako planean ez dute aldaketa handirik izango: "Koadrilan ospatuko dugu, elkartean afari on bat eginda. Inbutua erabiliko dugu ardoa ateratzeko eta gustura edango dugu Maritxuren omenez. Gero inbutua SUDCen egoitzan gordeko dugu. Opari oso ona da, beti gogoratuko duguna". Eskuarateen artisau taldekoak ere izan ziren plazan askotariko osagarriak saltzen.

Nobenaixua ospatuta, arrasatearrek dena dute gertu urteko egun eta gau dotoreena bizitzeko.



Jende asko hurbildu zen Patxixena auzo-etxera buzkantzak jateko.



Arrasateko The Potes taldearen kontzertua. | ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

ARRASATE

Buzkantzen, musikaren eta umeen sanmigelak

Garagartzako jaietan giro ederra egon da aste bukaeran; gaur meza eta luncha izango dute

J.B. | ARRASATE

Garagartzako San Migel jaietako lehen egunean, egubakoitzean, jende asko elkartu zen Patxixena auzo-etxean buzkantzak jateko: "Lehen egunerako prestatutako ia buzkantza guztiak saldu genituen. Egubakoitzean etorri ohi da jende gehiago eta zapatuan apur bat jaisten da", dio auzoko alkate Pedro Jauregik. San Migelek *bedeinkatutako* buzkantzak ederrak zeudela aitortu zuten bertaratu zirenek. Bapo afaldu ostean zuzeneko

musikaren txanda heldu zen: Screammers & Sinners, The Potes eta Senegaletik etorritako perkusio talde bat.

Gorriti eta haren animaliak

Zapatuan umeak izan ziren protagonista; askotariko jolasak eta Gorriti eta haren animalien bisita izan zuten. Atzo futbol partiduak, dantzak eta auzo bazkaria izan zuten eta gaur, azkenik, meza izango dute San Migelen oroimenez (19:00); ondoren luncha egongo da.



Maritxu Kajoi komisiñoak kideak eta SUDC elkarteko ordezkariak, inbutu preziatua banatu berri. | XABIER URZELAI

BERGARA

Parte-hartze handia Angiozarko sanmigeletan

Eskolako Arbiaska aretoa inauguratu zuten atzo; gaur amaituko dira jaiak, San Migel zeruratu ostean

J.B. | BERGARA

Giro ederra izan dute aste bukaeran Bergarako Angiozarko auzoan sanmigelak direla-eta. Auzoko alkate Jose Angel Mikeoren arabera, festak "primeran" joan dira: "Jendeak parte hartu du ekintzetan. Zapatuko herri bazkarian, adibidez, jende mordoak elkartu zen. Jaiak heltzen direnean, bertakoak geratu egiten dira, eta kanpoan bizi diren angiozartarrak, berriz, etorri". Egitarauak urtero

eskaintzen dituen ekitaldiez harago, atzo eskolako Arbiaska aretoa inauguratu zuten, erretratu zaharrez osatutako erakusketa eta guzti. Inaugurazioarekin batera, lore sorta banatu zioten bertako ikasle izan zen Maria Isabel Belarri; azaroan 100 urte beteko ditu. Era berean, ume jaioberriei ongietorria egin zieten atzo mezaren ostean; aurten hiru ume jaio dira. Gaur amaituko dira festak, San Migelen zeruratzarekin.



Maria Isabel Belarrek lore sorta jaso zuen. | SERGIO AZKARATE



San Migel, inauguratu berri den Arbiaska aretoan. | M.C.



Autorik ez zegoela aprobetxatuz, sokasaltoan ere ibili ziren Jose Arana kalean . | IMANOL SORIANO



Fernando Eskoriatza plazan askotariko jolasak egon ziren. | IMANOL SORIANO

ESKORIATZA

Fernando Eskoriatza plaza eta inguruak, jolasparke erraldoi

Kalea jolaserako berreskuratu gura duen ekimenari esker, askotariko jolasak egon ziren ostiralean

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Udalak, guraso elkarteak eta Txirikila aisialdi taldeak antolatutako *Plazara jolastera! Kalea gure jolasleku* ekimenarekin, jolasparke erraldoi bihurtu ziren egubakoitz arratsaldean Eskoriatzako Fernando Eskoriatza plaza eta inguruko kale eta plazak.

Zapi jolasean edo hula-hooparekin batzuk, tiragomarekin besteak... Askotariko jolasak egon ziren eta neska-mutiko eskoria-

tzarrek ez zuten ondo pasatzeko aukera galdu.

Kalea berreskuratu

"Arratsaldetan Jose Arana kalea oinezkoendako izango denez, kalean jolasteko ohiturak eta espazioak berreskuratzeko aukera aproposa iruditu zitzaigun", zioen Udaleko Gazteria teknikari Maider Etxaniz, eta ekimenak izandako erantzunarekin pozik agertu zen.



ARANTZAZU LOIDI

"Oso ondo iruditzen zait kalea jolaserako berreskuratzea, eta gaurko eguraldiarekin, gehiago. Neguan izango dute etxean egoteko aukera; orain ibili daitezela kalean, mugimendua eskatzen duten jolasetan".



**JUNE CASTAÑEDA
ETA UNAI DIAZ**

"Gu aurretik ere etortzen ginen plazara jolastera; baina orain, ume gehiago etortzen da, eta patinetearekin ere jolasten dugu. Izan ere orain ez dugu errepidera begira egon beharrik autorik datorren edo ez jakiteko".



AINHOA GANDARIAS

"Aspaldi egon beharko luke kaleak oinezkoendako bihurtuta: Eskoriatzan ez dugu gunerik umeekin lasai egoteko, eta zabalik dagoenean, arriskutsua da. Gaurko ekimenak balio du kalean jolastu daitekeela erakusteko".



**IRAIA DIAZ DE GEREÑU, OLATZ MAIDAGAN
ETA MAIALEN ALTUNA**

"Oso ondo ari gara pasatzen; sokasaltoan ibili gara, zapi-jolasean, polizia eta lapurretara... Jolasteko aukera mordoa daude! Orain arte ere bagenuen jolastera plaza ingurura etortzeko ohitura, baina orain lasaia egon da. Guk geuk nahiago dugu etxean bideo-jokoekin eta jolastu beharrean, kalean ibiltzea".

ONATI

Txaloka ludoteka herrira zabaltzen

Ostiralean eman zioten amaiera Txaloka ludotekakoek ludoteka herrira zabaltzeko azken asteotan burututako ekintzei, eta herriko neska-mutikoendako jolasak eta tailerrak egon ziren Foruen plazan. Eguaztenetik aurrera ohiko ordutegia izango du ludotekak, eta ezagutu gura dutenendako zabalik egongo dira atek.



IMANOL SORIANO



ESKORIATZA

JOSETXO ARANTZABAL

Erretiratuak, ospakizunetan

Udalak eta Olazar Erretiratuen Elkarteak antolatuta, herriko erretiratuak omenaldia jaso zuten atzo Eskoriatzan. Goizeko salderen eguerdiko mezaren ostean, 210 pertsona inguru elkartu ziren giro ona nagusi izan zen bazkarian, eta edadetuenek, 95 urteko Pablo Ganboak eta 94 urteko Elena San Vicentek opari berezia jaso zuten. Dantzaldia ere izan zuten bazkalostea animatzeko.



Emakumeak literaturan duen presentzia aztertzeko solasaldia egin zuten joan den ikasturtean, urtarrilaren 31n. | GOIENA

Emakume Txokoaren eta Jabetze Eskolaren eskaintza zabala abian

Urritik abendura arteko egitarauaren izena emateko epea gaur ireki eta urriaren 3an itxiko da; ikastaroak eta denetariko saioak antolatuta dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Emakume Txokoak eta Jabetze Eskolak urritik abendura arteko egitarauaren berri eman dute. Eskaintza oso zabala da: pilatesa, yoga, Kontakt, arte-terapia, askotariko mahai-inguruak...

Emakume Txokoaren ikastaro eta saioetan izena eman behar da gaur hasi eta egubakoitzera bitartean. Ikastaro bakoitzean besterik adierazi ezean, urriaren 6an hasiko dira eskolak, eta hona-

ko hauek dira prezioak: Arrasaten erroldatutakoak 30 euro, langabeak 20 euro eta Arrasaten erroldaturik ez daudenak 35 euro.

Emakume Txokora jo
Jabetze Eskolak ikuspegi feministatik eztabaidatu eta munduari begiratzeko helburuarekin sortu dira: "Gizonen eta emakumeen berdintasunean oinarritutako parte-hartze eredu osasuntsu, orekatu, iraunkor, sano eta eral-

datzailea sustatzea da asmoa", diote. Eskola horietarako ere asteen izango da izen-ematea, gaur hasi eta egubakoitzera arte.

Emakume Txokoaren zein Jabetze Eskolen ikastaroetan izena emateko, deitu 943 79 41 39 telefonora edo idatzi *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* helbidera. Astelehenetik eguenera goiz eta arratsalde dago zabalik Emakume Txokoa; egubakoitzetan, berriz, goizez bakarrik.

Kashbäd-ek irekiko ditu Kooltur Ostegunak

Bosgarren ikasturtea urriaren 2an hasiko da; gaztetxean, sarrera bost euro eta 22:00etan

J.B. | ARRASATE

Badatoz Kooltur Ekintza taldearen Kooltur Ostegunak. Eta, hain zuzen, Kashbäd talde bateranoak irekiko du bosgarren ikasturtea: "Hardcorea da, baina beste hainbat estiloren nahasketarekin. Jingo de Lunch edo Bad Brainsen gertukoak. Hiru disko zituzten taldea bertan behera utzi aurretik. Geroago, berriz elkartu ziren kontzertu gutxi baina arrakastatsu batzuk egiteko. Oso ondo landutako *Arrakala* diskoarekin itzuli dira aurretik", adierazi du Kooltur Ekintza taldeko Iker Barandiaranek.



Sorkun abeslaria, Bergaran. | GOIENA

Aurrekoetako formula bera
Aurreko urteetako formula bera erabiliko da: talde bakarra, sarrera bost euro eta 22:00etan.

OHARRAK

1962AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 8an egingo dute ospakizuna. Uarkapen bazkaldu aurretik Kike Biguri umoristaren saio bat ikusiko dute Aritz-Orrri elkarteak; izena eman behar da urriaren 24a baino lehen, 55 euro ordainduta 3035 0001 51 0010123638 kontu zenbakian.

1979AN JAIOTAKOAK

Urriaren 25ean elkartuko dira Bergaran, Tartufon, DJ eta guzti. Bada, izena eman behar da irailaren 30a baino lehen, eta, horrekin batera, 40 euro ordaindu behar dira Laboral Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0001 53 0010128677.

Eroski pareko Kaskonategiko geralekua handituko du Udalak, ibilbide luzeko autobus zerbitzu berria dela-eta

Ibilbide luzeko autobus zerbitzua eskaintzen duen enpresa baten eskaera onartu ostean, Eroski parean dagoen Kaskonategiko geralekua handitu egingo du Udalak. Construcciones Echaide enpresari esleitu dizkio lanak, eta aurrekontua 9.700 euro inguru da. Hala, autobusendako espazioa handitu egin beharko da, eta, horretarako, errepideko babes hesia lekuz mugitu beharko dute. Birplanteatze-aktak sinatzen den egunetik bi hilabete izango dituzte lanak amaitzeko.



KOMUNITATETIK

Mintzapraktikak Zahar-Berrin

Astean behin mintza-taldean parte hartzeko prest dauden hiztun jatorrak behar ditugu. Hartara, Zahar-Berrin izena eman duten hiztun berri horiek arratsaldean mintzapraktika egin nahiko lukete eta horiei laguntza emateko bila gabiltzanen profila 40 eta 55 urte bitarteko euskaldunak dira. Prest bazaude, jar zaitetz harremanetan dinamizatzailearekin, AEDra deituta (943 77 12 28 /695 786 852) edo mezua idatzita: *zaharberri@aedelkartea.com*.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress



'Laso': "Gure denboran, koloreak guretzat debekatuta zeuden"

Pedro Sologaitza, Mondrauen urte askuen egon zan fotografo bakarra: "40 urtetik gorako herritar guztxi aterako nien argazkia. Artisaua naiz. Gure denboran ez zegoen gaurko automatismoa eta koloreak guretzat debekatuta zeuden".

Oso klaro euker ze biher euen fotografia batek ona izeteko: "Ondo enfokatu egotea, zentratuta egotea eta motiboa aukeratzea, gusto apurra izatea argazkia ateratzeko".

Laso izena nundik etorren esplikau euen: "Nire lehen deitua Sologaitza da eta nire lagunarena Lasagabaster; hortik dator *Laso* izena".

Hiru urte eroin fotografixarik atara barik: "Lana utzi nuenean, begi batez ez nuen ezer ikusten (...) Zenbait operazio egin didate eta gaur egun nahiko ondo ikusten dut. Urtero, argazkilari talde batekin Ameriketara joaten naiz (...) Guztiz ondo ikusten ez badut ere, kamara automatiko batekin gutxi gorabehera motiboa zentratu eta listo".



Juan Luis Aranburuzabalak, futbola zaiñetan
Delanterue zan Aranburuzabala eta oso teknika ona euker: "17 urte nituenean, Realak etorri zen nirekin hitz egitera; hurrengo denboraldian haiekin joan nintzen, jubenil mailako taldera".

Partido ederrak jokatu zittuen, eta Realak beste urte bi luzetu eutzen kontratue: "Konfiantza handia nuen; baina ezkerreko aurrelari batentzat urte zailak tokatu zitzaizkidan parean: Lopez Ufarte eta Txiki Realean; Manu Urbieta eta Uria Sansen, nire aurretik...".

Ez euen lortu talde nagusire salto egittie, eta Ondarroako Aurrera taldera juen zan; gero, Barakaldora; eta ostien, Alavesera. Vitorixen ez euzien kontratue barritu, eta Mondra taldera etorri zan, 24 urtekin: "Zaila izango den arren, futboleko zerbait egiteko aukera gelditzen zait".

37. zenbakixe 1989-10-20

Antonio Herzog | Bergarko Odol Emaileen Elkarteko arduraduna "Odol gaztea behar dugu; horregatik egingo dugu ateratzea Agorrosinen"

100 emaile berri nahi dituzte, gazteak; horregatik, ezohiko ateratzea egingo dute Agorrosinen

M.B. | BERGARA

Bihar, hilak 30, egingo dute ateratzea, 18:00etatik 20:30era, Agorrosinen egokitutako gunean.

Odola ematea bizitza ematea dela diozue. Bergaran 800 odol emaile daude. Zenbaki ona da?

Duela urte batzuk ia 1.000 ginen, baina emaileak galtzen joan gara eta gaur egun 800 gara. Bergararren %5; Gipuzkoako batez bestekoaren barruan dago, apur bat goitik.

Eta zein da emailearen profila?

Gehienak 50 urtetik gorako pertsonak gara. Adin horretatik aurrera botikak hartzen hasten dira asko eta horrek zaildu egiten du odola ematea. Horregatik ari gara emaile bila.

Zer egingo duzue emaile berriak lortzeko?

Mahoma ez badoa mendira... Bi astean behin, eguaztenetan, eta ambulatorioan egiten dira odol ateratzeak. Donostiatik etortzen dira ateratzeak egiten dituzten erizainak eta guk ogitartekoak eta edariak prestatzen ditugu eta deialdia egiten dugu. Hala eta guztiz ere, ez dugu jende berri nahikoa lortzen. Horregatik antolatuko dugu martitzenerako, hilaren 30erako, ateratze berezia Agorrosin Ekintza Gunean.

Eta horretarako deialdia egingo diezue herriko klubei.

Hala da, mezua bidali diegu kirol



Antonio Herzog.

elkartekin lotura duten pertsonen Agorrosingo odol ateratzera etortzera anima daitezten. Bestalde, Agorrosin bertan ere zenbait kartel ipiniko ditugu, han dabilzanak odol ematera animatzeko.

Zertan dantza odola ematea?

Adinez nagusia izan behar da odola emateko. Bestalde, ematea baino ordubete lehenago ez da kirolik egin behar; ezta hurrengo hamabi orduetan ere. Hasiera baten, azterketa txiki bat egiten dio medikuak emaileari: tentsioa neurtzen zaio, odol tanta bat atera eta galdetegi bat egin. Guztia ondo badago, litro erdi baino gutxiagoko transfusioa egiten da. Gero, jatekoa eta edatekoa hartu eta etxera joan zaitzke bizitza bat salbatu duzula jakinda.

Abian Jardunen ume eta nagusien antzerki eskolak

Dagoeneko eman daiteke izena: umeak urriaren 3an hasiko dira; nagusien kasuan, oraindik ez dago datarik

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Jardunek antzerki eskola abiatu du. Ume zein nagusiendako antzerki eskolak antolatu ditu eta dagoeneko eman daiteke izena.

Haurren antzerki eskola egubakoitzetan izango da, 18:15etik 19:15era, eta helduen antzerki eskola, berriz, eguaztenetan, 19:15etik 20:45era –oraindik ez dute hasiera data zehaztu.

Prezioari dagokionez, haurrena 12 euro dira hilean –10 elkarteko bazkideendako– eta nagusien kasuan, 18 euro dira hilean –16 euro elkarteko bazkideendako.

Zurumuru antzerki tailerra

Urriaren 3an abiatuko da umeen tailerra, eta hezkuntza tresna garrantzitsua izan daiteke. Jarduneko kideek azaldu duten moduan, Zurumuru tailerraren oinarria jolasa da: "Jolasa ulertzen dugu giza ekintzaren oinarri gisa, eta jarrera aktibo eta dina-



Pailazoak antzetzten. | GOIENA

mikoak ikasketa prozesua errazten du", diote Jarduneko ordezkariak. Bestalde, ahozko eta gorputz adierazpenak ere bultzatzen ditu, giza komunikaziorako tresna nagusi gisa. Eta horrekin guztiarekin batera, metodologia parte-hartzailea ere badela azipi-

marratzen dute euskara elkartetik: "Taldea lana, elkartasuna eta hausnarketa bultzatzen ditu".

Umeen Zurumuru tailerrak helburu ugari ditu; besteak beste, norbere gorputzaren eta gainontzekoenaren ezagutza; espazioaren jabetza; ahotsa lantzea; mugimendu naturala; pentsatu, arazoitu eta kritikatzeko gaitasuna sustatzea; eta komunikazioa lantzea.

Helburuak lortzeko jarduerak

Tailerraren helburua ez da aktore onak aurkitu edo prestatzea, umeari inguratzen duen munduarekin harremanak hobetzeko ezagutza, jarrera eta trebetasunak eskaintzea baizik. Eta horretarako, ezinbesteko jarduerak da jolasa. Bestetik, gorputz adierazpena landuko dute eta baita ahozko adierazpena ere, hizkuntza aberastu eta erabiltzera bultzatuz.

Aintzane Oiarbideren aurkako "difamazio kanpaina" salatu du EAJk

Ezker abertzaleak, berriz, salatu du "EAJren aurka egiten diren protesta guztiak" eurei leporatzea

M.B. | BERGARA

Aintzane Oiarbide Udaleko bozeramaile jeltzalearen irudia erabiltza herrian barrena azaldu diren kartelak gaitzetsi egin ditu EAJk. Baita kartelen edukia ere, "Diario Fatxo" izenpean ordezkari jeltzaleak gezurrak besterik esaten ez dituela jarri baitute, EAJko kideen esanetan.

Gehitzen dutenez, "kartel horiek begira-puntu pertsona bakar bat jartzen dute, iragan hurbilean ezker abertzaleak egin ohi izan duen moduan". Baina kasu honetan, "kritika politikotik harago" doala diote, "persona baten irudia manipulatu eta iraintzea helburu dutelako", adierazi dute jeltzaleek. Eta gehitzen dute: "Egoera berriz ere errepikatzen da; izan ere, ez da lehen aldian udal bozeramaile jeltzalea kartel eta pankarta bitartez iraindu dutena. Ezker abertzaleari argudio serioetan oinarritutako politika egiteko eskatzeko unea heldu da, pertsonak iraintzea baliabide erraz modura erabiltzea albo batera utzita. Eta ezker abertzaleari normalizazio politikoa eta elkarbizitza baketsuaren alde zein ekarpen egin duten galdetzeko unea ere bada".

EAJren ustez, "azken San Martin festetan ezker abertzaleak

kezka giroa sortu du herrian. Eta gehitu dute: "Pena da Bergarako festak aldarrikapen eta salaketa politikoa egiteko aukera bilakatu izana, jai giroan eta bakean kultura tradizioz honetaz gozatzeko egunak izan beharko lirake-eta. Herritar askok kezka hartu dute gertatutakoa; izan ere, egunetik egunera ikusten dute giroa okertuz doala ekintza politikoa horien eraginez".

Hala, Bergarako EAJk "nahikoa" dela esan dio ezker abertzaleari, eta eskatu dio "ETAk armak utzi ditueneko garai berrietara egokitzeko". Eta honakoa gehitzen dute: "Beti izango gaituzte hitz egiteko eta Bergara eraikitze lan egiteko prest, baina inoiz ez inposizioaren, errespetu faltaren eta irainaren bidetik".

Ezker abertzaleak erantzun du

Jeltzalek kaleratutako oharri erantzun egin dio Bergarako Ezker Abertzaleak. Diotenez, "azken hilabeteetan, pentsaera ezberdineko hainbat pertsona eta mugimendu irainduak izan dira Bergaran" eta "oraingo honetan Aintzane Oiarbide eta EAJ izan dira kritika edo irainen jo puntuan". Bada, horren aurrean adierazi nahi izan dute "Bergarako Ezker Abertzaleak ez" duela zerikusirik

sanmartinetan zabaldu den *Diario Fatxo* aldizkariaren alearekin. Eta honakoa gehitu dute: "*Diario Fatxo*-ren alea kritika politikoa gisa edo irain bezala ulertu daiteke, baina, EAJ eta Aintzane Oiarbide irainduak sentitu badira, gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu pribatuan egin dugun bezala baita publikoki ere". Horrekin batera, argitu nahi izan dute "Ezker Abertzaleak iritzi eta kritika politikoa guztiak sinatuta" egiten dituela, "aurpegia emanez" eta *Diario Fatxo* zer den jakiteko eta eurekin "zer ikusirik ez" dute la ikusirik webgunera jo besterik ez dagoela.

Gauzak horrela, salatu egin dute "Bergaran EAJren aurka egiten diren protesta guztiak Ezker Abertzaleari leporatzea eta inolako frogarik gabe egurra emateko erabiltzea". Eta gehitu dute: "Jarrera horiek ere ez dira onargarriak, helburu politikoa elektoral hutsa dutela uste dugu".

Ezker Abertzaleko ordezkariak azaltzen dutenez, "Aintzane Oiarbide eta EAJk oso ongi dakite nortzuk garen Bergarako Ezker Abertzalearen arduradunak eta ez dira ezertarako guregana etorri gai honetaz hitz egitera; kontrara gu jarri gara beraiekin harremanetan. Etorri izan balira lehen eskutik jakin izango zuten guk ez daukagula zer ikusirik gai honekin eta zein den gure iritzia".

Ezker Abertzaleko ordezkariak uste dute euren eguneroko lanak "garbi" adierazten duela, "arazoak konpontzeko elkarriketa dela bidea" eta ez dutela "herria gehiagotentsionatu nahi".

NIRE USTEZ

JAIONE CARPINTERO



'Herri People'

Guztiok ditugu istorio eta oroitzapen pertsonalak. Garai batean egindakoak, bizitako esperientzia bitxiak akaso; kuriosoak batzuk, tristeak besteak. Hala ere, denak desberdinak dira, baina, aldi berean, garrantzitsuak eta bereziak norberarentzat.

Batzuk beraien bihotzean gordetzekoak izaten dira, gertukoei baino kontatzen ez dietenak edota gauero eguneroko zahar batean idazteko ohitura dutenak. Beste batzuk kontu-kontari ibiltzen dira lau haizeetara zabaltzen. Telebistan, esaterako, behin eta berriz entzuten ditugu betiko pertsonaia famatuaren istorioak, ger-

taerak eta hanka-sartzeak. Askotan galdetzen diot neure buruari, zer izango ote dute pertsonaia horiek, kalean gurutzatzen ditugun bizilagunek ez dutena?

Aste honetan, ETB1en *Herri People* izeneko saioa estreinatuko da. Euskal Herriko txoko desberdinetan bizi den jende arruntaren bizitza eta arima biltzen dituen programa da, herri honen hauspoa eragiten duten pertsonen eguneroko kontu erreala eta kuriosoak jasotzen dituen. Bizimodua mende, itsasoan edota enpresetan aurrera ateratzen duten gure bizilagunak.

Guztiok dugu zer kontatu, guztien interesekoa izan edo ez. Mundua, jende txiki askok, leku ohikoetan eta gauza arruntak eginez osatzen baita.

"Guztiok ditugu istorio eta oroitzapenak"



Oreka TX taldeko kideak ikuskizun ibiltariarekin datoz Oñatira | VAMOSDECONCIERTOS.COM

Musika, puzgarriak eta gehiago gaur eta bihar

'Zeuk ekarri zeuk jan' bazkaria Errementari plazan izango da aurten

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Irailak 29, San Migel eguna, da gaur eta makina bat gauza daude antolatuta gaurko ere. Horietako asko umeei zuzendutakoak dira, gazteak San Migel bezperako ospakizunaren biharamuna izaten dute gaurko egunez-eta.

Hala, haurrentako parkea egongo da, puzgarri eta guzti, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Etxaluzen egongo da, ohi moduan, eta eguraldi txarra eginez gero, Zubikoan. Txosna gunean ere izango dira haurrentako jolasak, 17:00etan.

La Pulga eta Urdangarin gaur

Musika eskaintza ere ez da falta gaur. Udal Musika Bandak kontzertua egingo du, 13:00etan, Lazarraga parkean eta txosna

gunean, berriz, Karibeko edariak, folklorea eta musika dastatu, ikusi eta entzuteko aukera egongo da, 17:00etan.

Oreka Tx ere etorriko da gaur Oñatira, 18:00etan. *Gure musikari handiak* izeneko ikuskizun ibiltariarekin dator. Txalaparta hotsarekin batera, buruhandiak ere ibiliko dira Oreka TX taldekoekin batera. Bestalde, La Pulga talde flamenkoa ere txalaparta hotsarekin nahastuko da. Bi estiloak batzen, fusionatzen, diren emanaldia egingo du Atzeko kalean, 19:30ean. Gauean, 22:30ean, Mikel Urdangarinnek abestuko du, zuzenean, Foruen plazan

Familien bazkaria bihar

Bihar, berriz, ongietorria egingo zaie urtean zehar jaio diren umeei

udaletxeko areto nagusian, 12:00etan. Eta 14:00etan, *Zeuk ekarri zeuk jan* izeneko familien bazkaria egingo dute Errementari plazan. Eguraldi txarra eginez gero, gaztelekuan izango da. Ordu berean, elkartasun bazkaria egingo dute txosna gunean.

Arratsaldean, Oñatiko pilota txapelketako finalak jokatu dira frontoi zaharrean.

Herri Egunerako txartelak

Herri Eguneke herri bazkaria mugatua izango da aurten: segurtasunagatik, 650 pertsonarendako lekua egongo da bakarri baina oraindik badaude txartelak. Hementzi euro balio du txartel bakoitzak eta udaletxean, goiz eta arratsaldean, eta kultura etxean, arratsaldetan, eros daitezke.

Udalbatza, alkatearen aukeraketa zuzenerako proposamenaren kontra

Hauteskunde legearen barruan PPK egin gura duen aldaketaren aurka daude Bildu eta EAJ

O.E. | OÑATI

Alderdi Popularrak alkatea zuzenean zerrendarik bozkatueneko zerrendaburua izendatzeko egin gura duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazi du Oñatiko udalbatzak. Horren aurka daudela esateko mozio bateratua atera dute udalbatza osatzen duten bi alderdiek, eta egunean egin zen iraileko osoko bilkuran onartu zuten.

Bestalde, Outhsa enpresaren disoluzioarekin jarraitzeko batzar orokorrak hartutako

erabakia onartu zuten alderdi biek. Baita Espurgo programa erabiltzea ere. Expedienteen dokumentazio guztia gordetzen da udaletxean eta Jaurlearitzaren programa horrek, behin denbora bat pasata, zein dokumentu bota daitekeen jasotzen eta baimentzen du. Hala, dokumentu berriak gordetzeko tokia libratuko da.

Bestalde, Kutxabanken privatizazioaren kontrako mozioa aurkeztu zuen Bilduk. Jeltzaleek aurkako botoa eman zuten.



Iraileko osoko bilkura, joan den egunean. | IRATI GOITIA

Argazkilaritzaren hastapen eta sakontze ikastaroak emango ditu urrian Ilunpetan taldeak

Urteroko Argazkilaritza Hastapena ikastaroaz gain, Argazkilaritzan Sakontzen ikastaroa eskainiko du Ilunpetan Argazki Taldeak urrutik aurrera. Bigarren ikastaro hori aurrez hastapen ikastaroa egina dutenez edota argazkilaritzaren oinarriko teknikak menperatzen dituztenei zuzenduta dago. Informazioa eta izenematea, ilunpetan@gmail.com helbidera idatzita.

Urriaren 11n egingo da Arrasate-Oñati herri lasterketa eta izenematea dagoeneko zabalik dago

Urriaren 11n izango da aurtengo Arrasate-Oñati herri lasterketa. 17:00etan hasiko da Arrasateko Portaloitik, eta Oñatiko Foruen plazan bukatuko da. Korrikalariez gain, patinatzaileek ere parte hartuko dute lasterketan eta azken horiek lasterketa hasi baino bost minutu lehenago irtengo dira. Izena www.kirolprobak.com helbidean eman behar da urriak 10 aurretik.

Dultzaina eta txalaparta jotzen ikasteko eskolak ere emango dituzte Jose de Azpiazu musika eskolan

Bi eskaintza gehiago izango ditu ikasturte honetan Jose de Azpiazu musika eskolak: dultzaina eta txalaparta jotzen ikasteko ikastaroak. Txalaparta tailerra hamalau urtetik gorakoendako da eta bi hilabeteko iraupena izango du. Dultzaina jotzen, berriz, hamabi urtetik gorakoei erakutsiko diete. Musika eskolan bertara deituta, 943 78 31 74, edo joanda eman daiteke izena.

Aizkorri-Aratz lerroan dauden ehiza postuak zozkatuko dituzten urriaren 3tik azaroaren 7ra

Urriaren 3an hasiko dira Aizkorri-Aratz lerroan dauden ehiza postuen zozketak. Oñati tabernan egingo dituzte egunero, astelehenetik egubakoitzera. 19:30etik eta 20:00ak arte izena emateko tarte egongo da eta zozketa 20:00etan egingo da. Zozketetan parte hartzeko, derrigorrezkoa izango da Gipuzkoako ehiza federaziotik bidalitako txartela aurkeztea.

'Iparragirre Oñatin' antzezlanean batutako dirua Argentinara bidaliko du Hermansaloñak

O.E. | OÑATI

Oñatitik Argentinara bidaltzen diren edukiontzia kudeatzen dituen San Jose Provinente Fundazioak berak jarri du martxan Nazareth proiektua, Oñatiko Hermansaloña elkartearekin batera. "2003. urtean lursail bat erosi genuen eta egun lau etxebizitza eta tailer bat daude eraikita. Oñatitarrek emandako diruarekin egin dira eraikin horiek", adierazi du Hermansaloña elkarteak Jose Antonio Urteagak. "Herriarren, Ulmaren, Irizarren, Oroaren eta Fagor Industrialen laguntzarekin egin dira. Etxebi-

zitzetako bat, baina, jaietan egin ohi izan diren herri antzerkietan batutako diruarekin egin da", gaineratu du Urteagak.

Izan ere, Olaiturri Kultura Elkartek azken urteetako herriko jai nagusietan egin dituen herri antzerkietan Argentinako proiektu horretarako dirua batzen egon dira Hermansaloña elkarteak kideak. Aurtengo antzerkian ere horixe egin dute. Zapatuan izan ziren *Iparragirre Oñatin* antzezlanaren bi emanaldiak, Santa Anan, eta Hermansaloña-k kideak dirua batzen egon ziren Argentinarako.



Familia osoa etxe aurrean. | J.A. URTEAGA

ARETXABALETA

Antzerkia eta musika izango dira Arkupeko izarrak urrian

Helduendako eta umeendako antzezlanak daude, eta hiru kontzertu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urriarekin batera antzezlanak datoz Arkupeko; hiru izango dira helduendako (eguetan, 19:00etan, 4 euro), eta beste hiru umeendako (domeketan, 17:00etan, 3 euro).

Datorren egunean, urriak 2, *Oroitza-penak* bakarriketa eskainiko du Joseba Usabiaga; 30 urteko mutil gazte baten benetako oroitzun eta penen gainean jardungo du aktore tolosarrak. Urriaren 16an, *Muchas noches, buenas gracias* eskainiko du Txalo konpainiak; eta 23an, *100 m²*, hori ere Txalok.

Umeendako lehen antzezlanak datorren domekan izango da; Patata tropikalak eskainitako *Kondaira baten truke*. Natura eta mitologiako pertsonaiak bat egiten elkartasunaren eta errespetuaren gainean egingo diete berba neska-mutikoei. Urriaren 12an, oster, Poxpolo eta Mokolo pai-

lazoak izango dituzte lagun; eta 26an, Eidabe taldeak *Egun berri bat* eskainiko diete.

Eta urriaren 11n, Oihana Etxagibel ipuin kontalariaren saioa izango dute liburutegian (11:30).

Aratz elkarteak igerilariak

Proiektioei dagokienez Aratz elkarteak ekoiztutako *Olympics* eskainiko dute hilaren 30ean (19:30); Aratzeko igerilarien gaineko ikus-entzunezkoa da. Eta 20an, Hiruatx gobernuz kanpoko erakundeak eta Elkarheitzenean antolatuta elikaduraren gaineko hiru film emango dituzte: *Tres historias y un vaso de leche*; *El futuro de nuestra alimentación está en juego*; y *Campeñas, semillas de cambio*.

Rock, jazz eta folk doinuak

Hiru kontzertu ere izango dira (sarrera, 4 euro): urriaren 9an,



Joseba Usabiaga. | JOSEBA USABIAGA

soka kontzertua: harpa, perkusio eta baxua elkarrekin. 24an, Hilarrio Rodeiro galiziarrok rock eta jazz doinuak ekarriko ditu *Ttun-ttun* proiektuarekin; eta 30ean, *Petti* nafarrak folk eta rock doinuak.

Urdaiazpikoa janda ongietorria ikasturteari

Leintz Udal Euskaltegiak atek zabaldu zituen joan den egunean ikasturteari hasiera emateko. Aretxabaleko eta Eskoriatzako ikasleak elkartu ziren urdaiazpiko mokadutxoak janda eta sagardoa edanda kontu-kontari jarduteko; bertako ikasle Antonio Tamayok moztu zien, gainera, urdaiazpikoa. Ikasgelak ezagutzeko aukera izan zuten elkartutakoek, eta, hain zuzen ere, ikasturteari begira indarrak hartu zituzten.



ESKORIATZA

Toponimiaren gaineko lana behin-behinean onartuta

Iradokizunendako epea zabalik dago eta behin betiko onartutakoan hainbat euskarritan aterako dute

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Toponimiaren gainean egin duten lana onartu zuen behin-behinean martitzeneko osoko bilkuran Eskoriatzako udalbatzak.

Orain dela bi urte hasi zuten lan hori; lehenengo, artxiboetako dokumentu zaharrak aztertu zituzten, eta gero, auzoz auzo galdezka ibili ziren. Maiatzean erakusketan egin zuten, eta orain, behin-behineko onartuta, proposamen edo iradokizunak egiteko epea egongo da zabalik. Hain zuzen, auzotarren laguntza beharko dute-

la hainbat zalantza argitzeko aipatu zuen Beñat Herce alkateak: "Artxibo zahar batzuetan Lete auzoaren izena bi e-rekin agertu da, *Leete*. Eta informazio bilketa egin dutenak konturatu dira bertakoek halaxe esaten dutela: 'Leetera goaz, Leeteko naiz...'. Horregatik, beste kontraste bat egin gura dute argitzeko".

Hainbat euskarritan jaso

Udalaren asmoa da urrian behin betiko onartzea lana: "Eta behin onartuta, proposamena da topo-

nimo horiek jasotzen dituzten mapatxo batzuk edo euskarri batzuk ateratzea", argitu zuen Herce alkateak.

Errefortzuendako laguntza

Euskararen erabilera sustatzeko diru laguntzak onartu zituzten osoko bilkuran, herritarren euskarara ikastaroak laguntzeko eta merkatarien errotuluak euskaratzeko, besteak beste.

Era berean, euskarako errefortzu eskolek ere jasoko dute laguntza, hizkuntzarekin arazoak dituzten neska-mutikoei laguntzeko: "Espezietan jasoko dute laguntza hori, eremu euskaldunetara joateko aukera eskainita; ludotekara, esaterako", azaldu zuen Herce, eta gaineratu, herriko ikastetxeek "positibotzat" jo dutela esperientzia, eta horrekin jarraitzeko eskatu.

Dantza garaikide ikastaroa egingo dute urriaren 2an hasita

MAIER ETXEBARRIA | KOMUNITATETIK

Gorputza, espazioa-ingurua eta denboraren kontzientzia handitu. Momentua, oraina, mugimenduaren bitartez bizi. Horixe egingo dugu Jaikik antolatutako dantza garaikide ikastaroan. Arantza Iglesias izango da irakaslea, Ertza dantza eta antzerki konpainiako dantzaria; baita *Cuerpos Límites* proiektuaren koreografoa eta dantzaria ere.

Urriaren 2tik Gabonak arte

Urriaren 2an hasi eta Gabonak arte iraungo du ikastaroak (luzaizteko aukerarekin). Ostegunetan, 18:30etik 20:00etara, elkartuko gara Aretxabaleko kuartel zaharrean. Prezioa da 65 euro eta langabeendako, 55 euro.

Izena emateko eta informazioa eskatzeko, deitu telefonoz (943 53 43 96) edo mezu bat bidali: jaikielkarta@yahoo.es.



Jaiki elkarteak kideak dantzan. | JAIKI ELKARTEA

ESKORIATZA

NIRE USTEZ

MARIJO PAGALDAI



Hasiera

Benetako hasiera beti da berria; beraz, ezezaguna guretzat ordu arte.

Hasierak kreatibitate edo sormen oparia berarekin dakar, eta baita ziurgabetasun edo zalantza ere.

Eman beharreko lehenengo urratsa konfiantzaz emateak pausoa tinkotzen laguntzen du.

Eta horrela, geure borondatearekin sortzen hasi garen bide horrek itxura hartzen du geure kontzientzian. Erabakia hartzen dugun unean, ordura arte mugagabea zenak norabide jakina hartzen du.

Bidean aurrera goazela, beti dugu norabidea aldatzeko auke-

ra edo indarrak hartu eta aurreraka jotzekoa.

Hartutako eta gauzatutako erabakiak ezin ditugu aldatu, horietako bakoitzak ondorio eta itxura zehatzak izango ditu. Baina momenturo, hurrengo pausoa zein izango den erabakitzekeko posibilitatea daukagu.

Gehienetan ez dugu jakin-ge emandako lehenengo urratsa zein izan den; baina jakin-ge dugu non gauden eta zein momentutan gauden.

Hori jakiteak eta onartzeak orainean nire borondatea eta asmoa ze norabidetan ipiniko ditudan erabakitzekeko aukera ematen dit, etorkizuna kontzientziaz eta koherentziaz eraikitzeke, atzera begiratu gabe eta espekulaziotan ibili gabe.

Esaera zaharrak dioten moduan: "Bide luzean, urratsa labor", edo poeta handiak esandako moduan: "*Caminate no hay camino, se hace camino al andar*".

Umeendako antolatutako capoeira ikastaroan izena emateko epea zabalik

M.A. | ESKORIATZA

Irekita dago umeendako capoeira ikastarorako izen-emate epea. Saioak urriaren 6an hasiko dituzte, eta Eskoriatzako pilotalekuko lehenengo solairuko gimnasioan egingo dira, astelehen arratsaldeetan.

Bi adinetan banatutako taldeak izango dira. Hona: 4tik 6 urte artekoak, 17:00etatik

17:45era; eta 7 urtetik 9ra artekoak, 17:45etik 18:45era. Prezioa da 20 euro hileko.

Izen-ematea eguenera arte

Izena emateko eta argibide gehiago jasotzeko, hauxe da helbidea: www.senzalaeuskadicapoeira.com; eta telefonoa: 625 77 22 95. Azken eguna eguna da, urriaren 2a.



Aramaio taldeko jokalariek joan den egueneko entrenamendu saioa hasi aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Erregularitasunari eusteko asmoz ekingo dio denboraldiari Aramaixok

Aste bukaera honetan hasiko da areto futboleko liga; jokalariek aramaioarrak "gogotsu" daudela adierazi du taldeko koordinatzaile Andoni Elejaldek

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udako geldialdiaren ostean, aste bukaera honetan hasiko da Araban areto futboleko 2014-2015 denboraldia. Aramaio taldeak irail hasieran ekin zion denboraldi-aurreari eta taldeko koordinatzaile Andoni Elejalde pozik dago orain arte lanarekin: "Jokalariek gogotsu daude, energiarekin. Jokalari aldaketak izan dira izazko denboralditik honakora,

baina taldea orekatuta dagoela esango nuke". Denboraldi berri-rako helburua izango da, emaitza zehatzetatik harago, urte osoan erregularitasunari eustea: "Urte osoan erregularitasuna eta intentsitatea mantentzea izango da aurtengo erronka. Izan ere, hori lortzen badugu eta aste barruko entrenamenduetan lana ondo egiten badugu, emaitzak bakarrik etorriko dira".

Arabako talde onenen aurka

Taldea oraindik ez dago erabat zehaztuta baina aurtun kopuru "polita" lortu dutela uste du taldeko koordinatzaileak: "Azken orduko aldaketarik ez badago, 10 edo 12 jokalariek ziur izango ditugu. Kopuru polita da".

Arabako talde onenen aurka lehiatuko dira aramaioarrak; lehen partiduan Bar Edu Team taldearen aurka jokatuko dute.

Gripearen aurka txertatzeko aukera kontsultategian, gaur hasita

J.B. | ARAMAIO

Gaur hasiko da gripearen aurkako txertaketa-kanpaina, baita Aramaion ere. Herriko kontsultategiko profesionalak jakinarazi dutenez, aurreko urteetan moduan 65 urtetik gorako guztiendako izango da, eta baita gaitasun kronikoren bat duten 65

urtetik beherakoendako ere. Gaitasun kroniko horien artean daude, besteak beste, diabetesa edo bihotzeko, biriketako eta giltzurrunetako gaitasunen bat duten guztiak.

Txertoa hartu gura duten aramaioarrek kontsultategira joateko aukera izango dute, aste-

lehenetik egubakoitzera. Goizez joan beharko dira, 09:00etatik 13:00etara.

Ezinduek etxean bertan

Era berean, Osakidetza aditza eman duenez, etxean dauden ezinduek euren mediku edo erizainarekin harremanetan jar daitezke txertoa etxean bertan hartzeko.

Gainera, 65 urtetik gorakoak zuzenean joan ahalko dira txertoa hartzera, bolanterik gabe.

ANTZUOLA

Pertsona nagusien eskubideak defendatzeko elkarretaratzea

Urriaren 1erako, eguaztena, Herriko Plazan elkarretaratzea deitu du Landatxope elkarteak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Pertsona nagusien eskubideak defendatzeko helburuaz egingo da kale agerraldia urriaren 1ean, eguaztenean. Landatxope elkarteak erretiratuek egin dute deialdia. Bertan, eskubideak aldarrikatzen dituen komunikatu bat irakurriko dutela azaldu dute. Elkarretaratzea Herriko Plazan

izango da, 19:00etatik 19:15era bitartean.

Eneko Bidegainen hitzaldia

Bestalde, Eneko Bidegain kazetari eta bertsolariak hitzaldia egingo du urriaren 15ean. *Euskal Herria eta lehen mundu gerra* izeneko hitzaldian, Ipar Euskal Herriko biztanleriaren istorioak

kontatuko ditu. "Ez ziren denak joan, joan ziren asko, ordea hil egin ziren lau urteko gerrate gogor hartan. Gerrate haren ondorioz, Ipar Euskal Herriko euskaldunak frantses sentitzen hasi ziren, nahiz eta Frantziako ama hizkuntza ez jakin. Hilan oroitzenak eta gertari ohien goraitatze sariak balio izan zuten ondoko urteetan frantses sentimendu hori are gehiago errotzeko", dio.

Xalbador bertsolari handiaren iloba da. Gaur egun, kazetaritza eskola batean irakaslea da eta bertso txapelketetan epaile lanak egiten ditu.

Baionarraren hitzaldia Olanan etxean izango da, 18:30ean.

ELGETA

Zumba saioak ere eskainiko ditu Udalak kirol zerbitzuetan

Bihar, martitzena, hasiko dute ikasturtea oraindik martxan ez diren kirol jardueretan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Martxan dira dagoeneko yoga eta tai txi eskolak, eta asteon hasiko dute ikasturtea kirol eskaintzako gainerako jardueretako taldeek. Udalak aditzera eman duenez, guztiak egin dute aurrera, eta martitzenean hasiko dira erretiratuendako mantentze-gimnasiak, GAP saioak, spinning eskolak eta eskola kirola eskaintzako bi taldeen-dako saioak. Udalak asteon egingo du gurasoekin ikasturte hasierako batzarra.

Azken orduko berrikuntza ere badakar 2014-2015 ikasturteak. "Herritar talde batek horrela eskatuta zumba eskolak emateko aukera lantzen jardun du Kirol batzordeak", adierazi dute Udaletik. "Zumban parte hartu

gura dutenek edo ezagutu gura dutenek proba egiteko aukera izango dute urriaren 1ean, eguaztena, 17:30ean izango den saioan. Kolonbiar jatorriko fitness diziplina da zumba, dantza eta ariketa aerobikoak bateratzen dituen.

Izen-ematea zabalik

Zumba eskaintzak 30 euroko kuota izango du hilean, eta saioak astelehenetan eta eguaztenetan izango dira, gimnasioan, 17:30etik 18:30era. Gainerako jardueretan moduan, Goiena Sport enpresak gidatuko ditu saioak.

Esan bezala, talde guztiak egin dute aurrera, baina izen-emateak zabalik jarraitzen du, plaza libreak gelditu direlako kasu guztietan.

Landa inguruneke proiektuak aztertzeke nekazarien ekarpenak jasotzeko epea zabaldu du Udalak

Landa Garapena programara proiektuak aurkezteko epea laster zabalduko dute, eta Udalak jakin gura du landa eremuetan bizi diren herritarren lehentasunak, eskariak eta behar nagusiak zeintzuk diren. Hori dela eta, proposamenak idatziz udaletxean aurkezteko eskaera egin du Udalak, eta urriaren 10era arteko epea zabaldu du. Baserritarren batzordean aztertuko dituzte aurkeztutako eskaera guztiak, eta, baloratu ostean, batzorde horretan erabakiko dute zein proiektu sartu Udala lantzen hasi berria den 2015eko udal aurrekontuan.

LEINTZ GATZAGA

Eskoriatzako ikasleek Gatzaga bisitatuko dute

Urriaren 18an arratsalde-pasa egingo dute 2 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoek

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

"Jose Aranan hiru helburu ditugu: irakurzaletasuna bultzatu, jokoak eta elizateen ezagutza. Bada, elizateen kasuan, dagoeneko Eskoriatzako zazpiak pasa ditugu, eta, ikastolan Leintz Gatzagako neska-mutikoak ere baditugunez, haiek eskatu izan dute Gatzagara joatea. Eta Leintz Gatzaga Eskoriatzako elizatea ez izan arren, horrexegatik erabaki dugu aurtun Gatzagara joatea", esplikatu dute Eskoriatzako ikastetxetik.

Gatz Museoa eta Labidea

Ezkurtxo-rekin, ikastolako pertsoniarekin joango dira, 15:00etan. Leintz Gatzaga ezagutzeko ibilbidea egingo dute, jolasak... eta txokolate-jana. "Gatz Museoa eta Jakion ere bertan daudenez, aurtun ez dugu

ipuin kontaketa egingo", zehaztu dute ikastolatik.

Iraileko osokoa

Bestalde, joan den eguenean osoko bilkura egin zuen udalbatzak. Landutakoen artean, besteak beste, ehiza enkantearen bitartez bideratutako postuen adjudikazioa behin betikoz onartu zuten, burokraziak horixe egitea eskatzen duelako.

Eta horrekin batera, hiru mozio landu zituen udalbatzak: Eskoziari buruzkoa, Udal Legeari buruzkoa eta kutxen ingurukoa.

San Milixan azoka

Bukatzeke, Udaletik jakinarazi dute hasi direla San Milixan azokarako eskaerak jasotzen artisauen aldetik. Azaroaren 16an da azoka.

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



MULTIÓPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan
R.P.S. 149/10.L.L.G

MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behea | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan).

ARRIKRUTZ

oñatiko obak

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).



GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajeetan.

TXURI-URDIN

Izotz Jauregia

TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
%20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubi edo oporraldia).
%10eko deskontua zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM

DONOSTIA SAN SEBASTIAN

AQUARIUM - Donostia
Bi erosi eta bat ordaindu (Sarrena garestiena ordainduko da).



GRACIAN Mertzzeria
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara
25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.



INSTITUTO OPTIKOA
Bidekurutzeta 10 | Bergara
%15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan.



IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa
Burdinate plaza 2 | Bergara
Lehenengo sesioa, sesio erdi.

AZPEITXI JATETXEA

AZPEITXI Jatetxea*
Aranerrea kalea 13, Bergara
Tel.: 943 76 55 00
Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero: Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburu eta menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.

Markiegi

MARKIEGI JANTZI DENDA
Olarre kalea 2 | Arrasate
Produktu guztietan %10eko deskontua.

MIREN GARAI

MIREN GARAI
Zarugalde kalea 23, 2 ezk. Arrasate Tel.: 943 799 690
Aurpegia garbitzeko tratamendurekin, eskuetakoa tratamendua doan.

LONBIDE

OINETAKOAK

LONBIDE Oinetakoak
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara
Produktu guztietan %10eko deskontua.



ML Ile-apaindegia
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea, Arrasate / Tel.: 943 797 965
"Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua.
Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.



NEBRASKA taberna
Zarugalde 35 - Arrasate
Tel.: 943 79 09 39
Mahou garagardo botila, euro bat bazkideentzat
Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxoboa doan
Interneteko menuetan %5eko deskontua



SARA MERENDERUEA Jatetxea
Meatzerrea auzoa 19, Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate
Tel.: 943 77 15 86
Astehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).

TABERNA-BERRI

JATETXEA

TABERNA-BERRI Jatetxea*
Durana kalea 26, Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 67
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero:
Astehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.



ZABALA Jatetxea*
Labegaraiaeta 14, Bergara
Tel.: 943 76 42 57
Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astehenetik larunbatara, eguneko menuan, bazkarian kafea doan



ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).



NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behea | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).



ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



LILURA EDERTZE INSTITUTUA
R.P.S. 299/13
LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterondoak (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behea | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).



OÑATI GARAIEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beharpena egiten diren konponketetan.



JAUJA KIROLAK
Irizar pasealekua 1 behea, Bergara
Produktu guztietan %5eko deskontua.



PORTALOI optika
Erdiko kalea 10, Arrasate
%15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 15 €. | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Lehenengo zatiko lan ona nahikoa izan zen Zarautz mendean hartzeko

- ▶ Atsedendia baino lehen egin zuen 'Piru'-k gola
- ▶ Bigarren zatian trabatu egin zen jokoa

EMAITZA

ARETXABALETA
1-0
ZARAUTZ

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Agirregabiria, Raul, Espinosa, Arriaran, Etxabe, Igartua, Julen Eraña (65. min Aitor Perez), Imanol (60. min Sanchez), Arizmendiarieta (Apraiz, min. 80) Orueta (70. min Badillo), Gillen.

Zarautz: Ruiz, Ander, Aizpurua, Leunda, Manex, Arriola, Errasti, Barandiaran, Paulo, Obiang, Cachafeiro.

Beste: Egun "arraroa" UDAk partidua jokatzeko, zapatuan, eta herria jaietan. Igarri egin zen harmailetan.

ta aurrean egongo da aurten. Badirudi Valleren mutilendako erronka nagusia indarrak –eta garaipen gosea– bederatzita hila-betez ondo kudeatzea izan behar dela, eta lesioekin zorte apur bat izatea; hortik aurrerakoa zuzenketa txikiak egitea izango da, taldea ia zuzen dago eta ondo landuta.

Herri bazkaria, ala futbola

Zapatuan –egun ezohikoa UDArendako– San Migel jaietako herri bazkaria futbol partidura joateko etetea erabaki duenik egon bazen, zigorra harendako. Partiduak ez zuelako horrenbesteko merezi izan. Eta sikiera, Ibarrara lehenengo zatirako gerturatu zenak gaitzerdi, orduan jokatu zuen eta Aretxabaletak ondoen, hasiera-hasieratik partiduan sartuta egon zirelako Valleren mutilak. Bigarren zatiak, ordea, ez zuen partidua ikusgarria izan, baina gauzak ondo egitetik zetorren Zarautz desagertuta ibili zen, eta Aretxabaletakoena da meritu hori.

Valleren taldeak lehen minututik hartu zuen baloia izateko

ardura, eta tarteka txukun erabili zuten batera eta bestera. Imanol eta Gillen arduratu ziren Arizmendiarietaren burua bilatzeaz, eta Aretxabaletakoak ate aurrean asmatu ez bazuen ere, bizkarrez jokatu lan handia egin zuen. Lehenengo abisua Piru-rena izan zen, bote-prontoan egin dako jaurtiketa indartsuaz, eta ia segidan, Erañak langara bota zuen baloia; aldaratzea Arizmendiarietari iritsi bazitzaion ere, Mikel Ruiz atezain zarautzarrak eguneko soldata irabazi zuen. Ez hor bakarrik, baita hurrengo jokaldian ere: baloia zutoinera –Imanolek– eta ondorengo errematea atezainak geratu.

Lehenengo zatia amaitzeaz zegoen, eta Aretxabaletak saria merezi zuen. Bada, Piru izan zen saria ekarri zuena, Julen Erañaren erdiraketa on bat buruz sare-tara bidali ostean (gol erdi Erañaren).

Bigarrenean, joko nahasia

Zarautzek aldaketa pare bat egin zituen atsedendian, jokalaria erasokorrek zelairatuz, baina ez zuten apartekorik lortu. Valle



Julen Eraña –lehenengo zatian– kórner baten Zarautzko defentsekin lehian; hark egin zuen

ere aulkian zituen denak zelairatu zituen: Badillo, Sanchez, Aitor Perez, Pacheco, Apraiz... Baina gehiago izan zen kontrarioa aurrealdean estutzeko, lasai jokatzeko ez uzteko, benetan min egiteko baino. Gauza bat aurre-

giratzekotan, partidua amaierara arte Zarautz bizirik mantendu zutela, horrek dakarren arriskuaz. Baina, amaierara arte sufritzen ere jakin egin behar da, halakoak izaten direlako partidu gehientsuenak.

OHOREZKO ERREGIONALA

Arnasa hartu du Bergarak, etxean Usurbili irabazita

Ligako lehenengo garaipenak "moralki mesede" egingo diola azpimarratu du Aitor Arratek

EMAITZA

BERGARA
2-0
USURBIL

halakoxea zen zapatuko partidua. Iaz nahi baino gehiago kostatu zitzaion mailari eustea, eta aurten ondo hasi nahi zuten, mamuak lehenbailehen uxatzeko.

Bada, etxean lehenengo partidua galdu izanak ez ziren lagundu –opari mordo eginda– eta ezta joan den astean etxetik kanpora ere bigarren porrota jasotzeak ere. Hala, zapatuko partidutik esku hutsik irtetea oso gogorra izango litzateke, ekidin beharreko zerbait zen, eta partidu eroso jokatu, lortu zuten

helburua. Usurbilek ez zuen aparteko buruko minik eman.

Machok, faltaz

Bergara partidua hasi eta berehala hasi zen etxerako lanak egiten. Faltaz egin zuen Iñigo Machok lehenengo gola, 15. minutuan. Bigarren gola, berriz, Eñautek egin zuen (2-0) Eloyren pase baten ostean: "Moralki garaipen honek mesede egingo digu, duda barik. Lehenengo bi partiduak galdu ostean halako garaipen bat behar genuen, egia esateko", adierazi du Aitor Arratek.

Arnasa hartuta, datorren astean Ostadarren zelaian jokatuko dute: "Fitxaketa on bat egin dute, beste kategoria batzuetan jokatu duen eta esperientzia handia duen Gorka Brit taldean dutelako. Bi partidutan lau gol egin ditu, gertutik zaindu beharko dugu".



Bergarako bi jokalaria, Usurbilekoaren gainean. | JOSETXO ARANTZABAL

X.U. | BERGARA

Badira hiru puntu baino gehiago jokoan dauden partiduak. Eta gezurra badirudi ere, oraindik hiru jardunaldi baino ez dituztelako jokatu, Bergararendako



n 1-Oekoa ekarri zuen goleko erdiraketa. | XABIER URZELAI

IKER AGIRREGABIRIA
ATEZAINA

"Etorriko dira lesioak eta halakoak; hor izan beharko gara indartsu"

Ligan jokatutako hiru partiduetatik Aretxabaletak oraindik ez du golik jaso.

Defentsen meritua bada hori, baina baita atea defendatzen diharduten Iker Agirregabiria eta Asier Castellano atezainena ere.

Aurreko postuetan ibiliko zaretela aipatu dugu...

Denok esaten dute gauza bera, baina oraingoz ondo hasi, ez dugu besterik egin. Eta bai, hori oso garrantzitsua da, baina etorriko dira lesioak eta halakoak, eta orduan izan beharko gara indartsu. Liga oso luzea da, gainera.

Zarautz gauzak txukun egitetik zetorren, baina lbarran ez dugu askorik ikusi.

Aurreikusten genuen zain egoitera etorriko zirela, eta hasieratik intentsitatez jokatu nahi izan dugu. Hala ibili gara, azkar jokatzen ahalegindu gara eta gainera 44. minutuan gola egiteak min egin die gainera.

Partidua errematatzea falta izan zaizue; lasaiago ibiltzeko, diot.

Bai, azkenean sufritu ere egin dugulako. Izan ere, denok dakigu halakoetan jokaldi tonto batean gola etor daitekeela.



Zenbaki harrigarriak

Hirutik hiru, iazko bolada onak jarraipena du, aretxabaletarrei oporretan ez zaielako futbolearen egitea ahaztu. Valleren lan-taldeak iazko abendu erdian hartu zuen taldea, eta ordutik honako zen-

bakiak azpimarratzekoak dira: 69 puntutatik 62 eskuratu dituzte (9 gol baino ez dituzte jaso, eta 41 egin). Aurrean egongo dira. Zenbaki horiekin oraindik bada zalantzarik duenik? Apustuak onartzen dira.

SENIOR NESKAK

Arizmendiko neskek epaileen lanarekin haserre hasi dute liga: "Sekulako inpotentzia da horrela galtzea"

X.U. | ARRASATE

Epailearen lanarekin erabat haserre amaitu zuten partidua Arizmendiko neskek, atzo, Ibarren, eta txarrena da liga hasi baino ez dutela egin: "Entrenatzen nabilen urte hauetan guztietan ez dut halakorik ikusi. Epaileak ontzat eman du inork ikusi ez duen gol bat, eta hanka sartu duela aitortuta ere ez du zuzenki egin nahi izan", adierazi zuen partidua amaitu berri, amorratuta, Aritz Elortza entrenatzaileak.

Arizmendiren eta Ilintxaren arteko lehenengo zatian parean egon ziren indarrak, nahiz eta Arizmendik gola egiteko aukera garbiagoak izan zituen. Bigarren, baina, Legazpikoen jaur-



Arizmendiko jokalaria bat. | J.A.

tiketa batek langan jo zuen, eta ondorengo botea barruan izan zelakoan epaileak gola adierazi zuen: "Ilintxakoek ospatu ere ez dute egin gola, pentsa non eman duen botea, epaileak bakarrik ikusi du beste inork ikusi ez duena". Hor ez zen, baina, zigorra amaitu, protesta egiteagatik Arizmendikoen atezaina kanporatu egin zutelako, eta baita entrenatzailea bera ere (0-1).

Bergara txarto, Mondra hobeto

Kategoria horretan jokatutako gainontzeko partiduetan Bergarak 12 gol jaso zituen Mutrikin. Mondrak, ostera, etxean hasi zuten liga, eta Eibarren kontra 1-1 egin zuten.

OHOREZKO ERREGIONALA

Merezi ez zuen zigorra jaso zuen atzo Aloña Mendik

Anaitasunak partidu hasieran egindako gola, eta bigarren zatiko penaltia, erabakigarriak

EMAITZA	
ALOÑA MENDI	1-2
ANAITASUNA	

X.U. | OÑATI

Partiduren hasieran (5. minutuan) azkoitiarrek sartutako gol azkarrak lehen zatia baldintzatu zuen Azkoagainen. Izan ere, lehen minutu horietan urduritasuna izan zen oñatiarren artean, eta ez zuten lortzen Badiolaren atera iristea. Hala ere, apurka-apurka Aloñakoak joko menperatzen hasi ziren, eta zelaian nagusitzen.

Markagailuan atzetik erretiratu ziren aldagelara, eta bigarren zatia hasteaz batera iritsi zen arratsaldeko bigarren kolpea: oñatiarrek haserre arazi zituen penaltia (0-2).

Amore eman barik

Oñatikoez ez zuten amore eman, eta 59. minutuan Aimar Lizarrak buruz 1 eta 2koa lortu zuen eta oñatiarrek partiduan sartu ziren berriro.

Hortik aurrera Aloña nagusi izan zen zelaian, eta norgehiagoka berdintzeko nahikoa meritu egin zituzten, bai joko aldetik, eta baita izandako gol aukerengatik ere. Azpimarratzekoak Asier Ugartek zutoinera botatuko jaurtiketa, oñatiarrei baliogabetutako gola, eta azken minutuan Unai Uribe-txerriak egindako errematea –larga gainetik joan zen.

Azkoitiarren atezain Badiolak ere geldiketa bikainak egin zituen, horrenbestez, ezintasuna oñatiarren artean. Kontuak kontu, Oñatikoez gehiago merezi izan zuten, baina puntu bakarrak jarraitzen dute.



Oñatiarrei baliogabetutako golean, marrazainari protestaka. | JARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA ETA PREFERENTEA

Puntu baliotsua Antzuolak, eta Mondrak errepasoa Beasaini

X.U. | ARRASATE

Antzuolak 2-2 egin zuen zapatuan Hondarribian, eta puntua ona bada ere, Jon Muruamendiaren mutilek etekin handiagoa lortzeko aukera galdu zuten.

Lehenengo zatian etorri ziren gol guztiak. Hondarribia aurreratu zen, eta Imanol Aranzabalek egin zuen 1-1ekoa –erdiraketa on bat ondo errematatuta. Hala, Hondarribiak bigarrena egin eta Jontxuk penaltiz lortu zuen bigarrena (2-2). "Bigarren zatian, baina, Hondarribiak 10 jokalarirekin jokatu zuen, eta ez genuen jakin horri etekina ateratzen. Euren hutsuneak motzean jokatuz bilatzen aha-

legindu beharrean baloi luzeekin ahalegindu ginen erasotzen, eta hor abantaila eman genien euren".

Mondrak bost gol

Mondrak, ostera, errepaso polita eman zion Beasaini atzo arratsaldean. Gorka Eraña (2) eta Barbero (3) izan ziren golegileak. Aipagarria Barberok urtebetetze eguneari bere buruari egin zion oparia, hat-tricka eginda itzuli zen-eta etxera.

Lehenengo zatian abantaila polita hartu zuen Mondrak (3-0), eta bigarren zatian Beasainek ez zuen erreakzionatzeko gaitasunik erakutsi. Seigarrena egiteko aukera galdu zuen Mondrak penaltiz (1-5).



Ander Gartzia –Zornotzan dabil– Easoko Iñigo Del Valle defendatzen. | J.A.



Iraurgi eta Easoren arteko finalerdia, zapatuan. | IMANOL SORIANO



Goi mailako saskibaloia asteburua izan da oraingoa Iturripen. Ez

Ezustekoa emanda irabazi du Euskal Kopa Easok, emozioz jositako finalean

- ▶ Finalerdian Azpeitiko Iraurgi menderatu zuten donostiarrek eta finalean, berriz, Zornotza
- ▶ Lau taldeetatik EBAn lehiatuko den bakarra da Easo; beraz, MU-ren aurkaria izango da

EMAITZA

EASO
71-68
ZORNOTZA

FITXA TEKNIKOA

Easo: Nagore (7 puntu), Ibarloza (7), Del Valle (12), Arrieta (2), Eizmendi (8), Sarasola (14), Perez (11), Sanz (5), Azpeitia (5).

Zornotza: Coronado (7 puntu), Quero (2), Salazar (8), Cuadra (5), Carreto (13), Bowman (13), Cruz (3), Gartzia (2), Borovnjak (15).

Bestelakoak: Goi mailako saskibaloia ikusgai izan arren, Iturripeko kiroldegiko harmailak ez ziren bete asteburu osoan zehar.

Lehen hiru laurdenak berdinketarekin amaitu ziren (18-18/39-39/55-55) eta azkenengoan ere azken unera arte berdinduta egon zen norgehiagoka.

Hortaz, emozioa izan zen azkenera arte; hiru segundoren faltan eta hirugatik galtzen zihoazela, zornotzarrena zen baloia jabetza baina jokalaria batek baloia jokoan jartzeko denbora larregi erabili zuenez erasorako aukera galdu zuten zornotzarrek. Hiruko batekin berdinketa lortzeko aukera izatetik, finala erabat galduta izatera. Akats larria, zalantza barik; Zornotzako entrenatzaile Mikel Garitaonandiak haserrealdia ederra hartu zuen.

Easo, harrobiko lanaren adibide
Ezustekoa eman zuen Easok, izan ere, Euskal Kopa irabazteko lau hautagaietatik EBA ligan arituko den talde bakarra da Donostiakoa. Gainerako hiru taldeek, Zornotzak, Iraurgi eta Araberrik, Zilarrezko Mailan jokatu dute 2014-2015 denboraldian.

Hala, pozik zegoen Easoko entrenatzaile Gotzon Arrieta: "Final polita izan da ikusteko. Printzipioz lauetatik talde eskasena ginen eta ederra izan da ikustea jokalaria gazteak, lana

ondo egin ezker, maila altuko jokalariekin lehiatzeko gai direla. Gaurko [atzoko] lorpenak erakusten digu harrobiko lan ederra egiten ari garela". Barruko jokoan garaitzeko talde zaila da Easo, oso ganean egoten den horietakoa. Agian ez dituzte Zornotzako taldeak dituen jaurtitzailak izango, baina presio barik jokatzek,

uneoro partiduan egoteak eta baloi oro azkenera arte borrokatzeak saria ematen du batzuetan. Eta hala gertatu zen atzo.

Ointxe taldea, "gogotsu"

Bestalde, Ointxe klubeko presidente Jon Basurkorendako ere "sorpresa" izan da Easok irabaztea: "Polita izan da finala, oso

borrokatua. Easok betiko armak erakutsi ditu, intentsitatea eta borroka. Emozioa egon da azkenera arte, gainera". Aurten EBAn egongo direla-eta, Arrasateko taldea "gogotsu" dagoela dio Basurkok: "Azken esprinta falta zaigu denboraldi hasierara ahalik eta ondoen heltzeko". Urri erdialdean hasiko dute denboraldia.



Easoko jokalariek Euskal Kopa jaso ostean, Udaleko eta euskal federazioko ordezkariekin. | MAIALEN TORRES

Lanaren eta grinaren saria jaso zuen Easok

Gainerako hiru aurkariak eurek baino maila bat gorago lehiatu behar diren arren, Donostiako Easo taldeak merezimenduz irabazi du Euskal Kopa. Lana eta borrokarako grina gailendu ziren

kalitatearen aurrean. Bestalde, Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizar ere izan zen atzo Iturripen: "Garrantzitsua da guretako Euskal Kopa Arrasaten jokatzeko. Saskibaloia ere bultzatu behar dugu".

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Easok eta Zornotzak jokatuak finala ederra izan zen. Lehia estuan aritu ziren bi taldeak partidu osoan eta azkeneko talde donostiarraren lana eta borrokarako grina nagusitu ziren zornotzarren kalitatearen ginetik.



da jende larregi hurbildu, baina egon direnek ederto gozatu dute. Irudian, atzoko finaleko une bat. | JOSETXO ARANTZABAL



Hirugarren sailkatzeko lehia Iraurgik aise hartu zuen mendean atzo Araberi taldea (91-69). | IMANOL SORIANO



Easoko entrenatzaile Gotzon Arrieta bere jokalariei aginduak ematen, atzoko finalean. | JOSETXO ARANTZABAL

Ford Mugarrik galdu Elgoibarren (22-21), partidu gogor baten

Arrasatearrek 17-9 galtzen joan ostean, 21na berdintzea lortu zuten 30 segundoren faltan

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Ford Mugarri eskubaloi taldeak galdu egin zuen denboraldiko bigarren partidua, Elgoibarren aurka (22-21). Pablo Gartziazen mutilak ez ziren batere fin ibili lehen zatian eta horren adierazle da bigarren zatiko 15. minutuan 17-9 galtzen zihozazela. Hala ere, markagailuari buelta eman eta partidua amaitzeko 30 segundo falta zirenean 21nako berdinketa erakusten zuen markagailuak: "Eurek gola egitea lortu zuten eta guk

ez genuen izan aukerarik", adierazi du entrenatzaileak.

Sentsazio gazi-goza

Gartzia sentsazio gazi-gozaoren geratu zen: "Gure esku egon da irabaztea zein galtzea. Izan ere, datuek diote taldeak ondo funtzionatzen duela baina zorte apur bat ere behar izaten da irabazteko".

Bestalde, oso partidu gogorra izan zen zapatukoa; arrasatearrek bi kanporatze izan zituzten eta etxekoek, berriz, 12.

Defentsan ahul ibili ondoren, galdu egin zuen Soraluze BKEk Basauriren aurka (19-24)

J.B. | BERGARA

Bergarako eskubaloi taldeak galdu egin zuen zapatuan Basauriren aurka (19-24). Etxekoek lehen zatian galdu zuten partidua, eta atsedendira 9-14 joan ziren. Bigarren zatian orekatuago egon zen lehia baina bergararrek ezin izan zuten ezer

egin: "Defentsan ahul ibili ginen, hor egon zen porrotaren gakoa. Gainera, gure atezainak ez zuen egun onena izan eta erasoan ere hainbat akats egin genituen. Aurten gola egitea kosta egingo zaigu, ondo landu behar dugun arloa da", adierazi du Josetxo Muniategi entrenatzaileak.



Lehiarik ez zen falta izan zapatuko partiduan. | IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

Aloña Mendi, Egiaren gaineratik

Aloña Mendi eskubaloi taldeko senior mailako neskek jipoi galanta eman zioten Egia Arrano elkarteari: 31-14. Beraz, denboraldia ezin hobeto hasi dute Jon Ander Osinagaren neskek; Mikel Deuna sarian Osinagak berak esan zuen taldea egonkortzea duela helburu aurten; lehen partiduko emaitza ikusita, entrenatzailea ezingo da kexatu.



Irabazleen talde argazkia, sari banaketaren ostean. | JOSETXO ARANTZABAL



Finaletako bat jokoan. | JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA

Pilotaren festa handia atzo Leintz-Gatzagan

Dorletako Ama Pilota Txapelketari amaiera emateko gaztetxoenen finalak jokatu zituzten

J.B. | LEINTZ-GATZAGA

Atzo amaitu zen Dorletako Ama Pilota Txapelketa. Otsailetik uztailera arte irauten duen txapelketa da, bikoteka jokatzeko dena. Hala, astero izaten dira pilota partiduak Leintz-Gatzagako pilotalekuan; gero, irailean jokatzeko dira maila guztietako finalak. Debagoienekoez gain, Euskal Herri osotik etortzen dira pilotariak.

Atzo goizean gaztetxoenen izan ziren protagonista, pre-benjamin, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako -txa-

pelketan hamar maila daude guztira- finalak jokatu zirenetan. Irabazleen artean, Arrasateko eta Bergarako bikote bana. Sari banaketaren ostean bazkari ederren egin zuten.

Keinua Eugenio Otsoari

15 urte daramatza Mauri Zubillagak txapelketa antolatzen: "Aurtengoa ere primeran irten da. Profesionalak alde batera utzita, munduko pilotari onenak datoz Leintz-Gatzagara. Eskerrak eman behar zaizkio Udalarari, bereziki Eugenio Otsoari".

ERRUGBIA

Garaipen batekin hasi du liga Arrasate Rugby Taldeak Getxon (19-40)

Ondo hasi du liga Arrasate Rugby Taldeak. Kanpoan irabazita eta sei entsegu egiteagatik bost puntu lortuta. Igor Isasiren mutilek partidu ona egin zuten zapatuan Getxo C taldea menderatzeko (19-40): "Aurreko asteko lagunartekoan erraz irabazi genuen Orioren kontra baina gaur [zapatua] kosta zaigu Getxo mendean hartzea. Galtzen hasi gara eta atsedena dirako 14na berdintzea lortu dugu. Bigarren zatian behera egin dute eta guk gora; garaipen justua lortu dugu. Liga kanpoan irabazten hastea pozik egoteko modukoa da", adierazi du arrasatearren entrenatzaileak. 18 jokalaririk joan ziren Getxora.

ESKALADA

Mikel Linazisoro bergararra, munduko onenen artean

Mikel Linazisoro eskalatzaile gazteak zortzigarren postuan amaitu zuen 16 urtetik beherako munduko eskalada txapelketa. Frantziaren 19tik 23ra eta eskaladazailerik onenak finalerako txartela lortu zuen, kanporaketetan zortzi onenen artean egoteko gaitasuna duela erakutsiz. Linazisoro beste bost lehiakiderekin berdinduta heldu zen finalera eta finalean Kai Lightner amerikarra izan zen nagusi. Izan ere, hormaren azken arte heldu zen eskalatzaile gazte bakarra izan zen Lightner.

TXIRRINDULARITZA

Jon Odriozola | Gipuzkoa taldeko kirol zuzendaria

"Etorkizun politoko ziklistek bizikleta utziko dute"

Erabat frustratuta dagoela aitortuta, halako proiektu baten beharraz egin du berba Jon Odriozolak, eta Gipuzkoa taldeak aurten egin duen lan onaz

J.J. IRIONDO / X.U. | OÑATI

Kolpean amaitu da ametsa, Euskal Herriko ziklismo zaleen artean utzitako hutsunea betetzera zetorren proiektua -modu apalagoan- bertan behera geratu zen joan den astean, aurrera egiteko pauso gehienak emanda zeudenean. Kirol zuzendari izan behar zenak hartu du kolpe handiena, jakinda, erabaki horrek egoera zailean uzten dituela etorkizun polita izan zezaketen txirrindulari asko. Hala, Odriozolak ez ditu komunikabideten hautsak harrotu gura izan, baina GOIENAREN deiarri erantzun dio. **Zer gertatu da?**

Lehenengo eta behin aurten Gipuzkoa taldeak egin duen lana azpimarratu nahiko nuke, guztira 27 lasterketa irabazi ditugulako, oso maila polita erakutsita. Eta pena handia ematen dit halako maila eman duten ziklistek jarraipenik izango ez dutela ikusteak. Ni isil-isilik egon naiz lanean, proiektu hori sortzen, baina egia da sekula ez dela ezer egon, eta orain ere ez dagoela ezer.

Baina gertu egon da, hor bazegoen zerbait sortzeko ilusioa.

Bai, ilusioa egon da bai, amets bat zen eta lan handia egon da atzean. Oso gertu egon da. Oinarria eginda geneukan, UCIREkin bete beharreko dokumentazioaren kontua bideratuta zegoen, enpresa batzuekin berba eginda geneukan, itzuli handietan egon ahal izateko harremanak eginda geneukan... Eta, txirrindulariekin ere gauzak nahiko bideratuta zeuden, bagenuen taldetxoa sortuta. Alde horretatik pena handia izan da, sekula baino gertuago egon delako. Gogorra da, oso tristea, hau aurrera ez eramatea.

Txirrindularien gainean egin duzu berba...

Etorkizun polita izan zezaketen ziklistak galduko ditugu, belau-naldi bat geratuko da etorkizun barik. Gipuzkoa taldeko nire txirrindulariek erakutsi dute aurten onenak izan direla amateur mailan, baina eurekin batera Euskadi taldean ere oso txirrindulari onak daude, eta eurekin kontaktatu genuen. Eta baita beste talde batzuetan kontratua amaitzen zuten beste euskal ziklista batzuekin ere.

Inork ez du gertatu denaren azalpen garbirik eman.

Niri eman dizkidaten azalpenak ere ez ditut ulertu, egia esan. Talde polita izan dut lanerako, eta jendea inplikaturik ikusi dut, baina... Uste dut denborarekin jakingo dugula zergatik ez dugun aurrera egin. Izan ere, uste dut proiektu hau etorkizunean irten behar dela, derrigorrez irten behar



Jon Odriozola, joan den astean, Oñatin. | GOIENA

"Neu naiz azalpenak eskatu beharko litzuzkeen lehena; lan handia egin dugu"

"Jende asko ikusi dut proiektuan inplikaturik, baina beti dago zerbait"

dela, Euskal Herrian erreferente izango den talde baten beharra dugulako, gure selekzio bat, Euskal Herri proiektu bat, ez bakarrik ziklismo proiektu bat.

Eta nork egon beharko luke proiektu horren atzean? Erakunde publikoak, enpresak?

Denek, eta hori gutxi-gorabehera nahiko lotuta zegoen. Eta gero beharrezkoa zen jendea inplikaturik egotea, eta inplikazio hori ere egon da. Jaurlaritzaren partetik inplikazioa egon da, Diputazioan ere oso konforme zeuden proiektuak aurrera egin zezan, baina... Beti gabiltza halako konfiantza berandu, eta berandu ibiltzeak ekartzen du, bada, azken momentuan proiektua bertan behera geratzea. Lehen ere esan dut, pena daukat jendea ilusioz ikusi dudalako, ziklistak, taldeko laguntzaileak, proiektuan lanean ibili direnak...

Etorkizuna dute askok kolokan.

Egia da inori ez diodala proiektu hau errealitate moduan saldu, ez zegoelako ezer definitiborik. Atzean lan handia egiten ari ginela, bai, hori bazekien jendeak, eta ilusioz ari ginela ere bai. Ezagutzen nautenek bazekiten proiektua oso gertu geneukala, baina inori ez diot ezer saldu. Hemen norbaitek azalpenak eskatu behar baditu, hori ni naiz, lan handia egin dudalako, baina lan hori nirekin eramango dut. Bai, oso frustantea izan da.

Egindako lan hori etorkizunean aprobetxagarria da?

Nik uste dut honek ondorio batzuk ekarriko dituela. Nik erreferente izango den talde horren beharra ikusten dut, eta ez nik bakarrik,

eta behar horrek izango du erantzun bat, lehenago edo geroago. Orain, ni izango naizen etorkizunean horri berriz helduko diena? Bada, ez dakit zer erantzun, orain ezertarako gogorik ez daukadalako. Orain momentuan esan dezakedana da arto nagoea amateur mailan Gipuzkoa taldeak eman duen maila galantaz, baina kanpoan baino ez dugu jaso errekonozimendua. Etxean, berriz... Eta gainera helburua ez zen irabaztea soilik. Talde moduan jardun nahi izan dugu, gipuzkoarrez osatutako proiektu bat izan da eta uste dut kristoren meritua izan dutela.

Eurekin kontaktatu zenuen talde berrirako?

Aurten egin duten urte onaren saria izango litzateke, eta ezingo diet sari hori eman. Ez dakit txirrindulari hauekin zer gertatuko den, profesionalek salto egitear zueudelako, eta honek guztiak euren progresioa etengo duelako. Askok bizikleta utziko dute.

Gaitza da eurekin egindako lana ostera egitea.

Hau ez da urte bateko kontua, hiru edo lau urte galduko ditugu, eta ostera ere ziklista gazteekin hauek duten mailara iristeko lan handia egin behar da. Baina, lan hori beharrezkoa da, eta guztion artean lortuko dugu.

Gipuzkoa taldea bera ere desagertu egingo da?

Ez dakit ze asmo izango duen Diputazioak, edo federazioak, nik burua beste gauza batean nuelako. Egia da nirekin harremanetan jarri direla, baina orain momentuan ondo pentsatu behar dut zer egin nahi dudana.

Lander Mediavilla | Goitibehera pilotua

"Segurtasun neurriak ondo betez gero, ez da arazorik izaten"

- ▶ "Beldurrik ez izatea, gutxi frenatzea eta bihurguneak ondo trazatzea da beharrezkoa"
- ▶ "Hasi nintzenetik gaur arte Euskal Herriko lasterketa guztietara joan naiz"

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Lander Mediavilla (Eskoriatza, 1999ko urria) goitibehera lasterketetan ibiltzen da. Azkenaldian Debagoiengan indarra hartzen ari den kirola da, eta, hain zuzen ere, orain dela urtebete lasterketetan hasi zenetik gaur arte Euskal Herriko lasterketa guztietan hartu du parte.

Nolatan hasi zinen goitibeheretan ibiltzen?

Orain dela urte gutxi, herrian zehar goitibehera asko ikusten hasi nintzen. Hala, aitaren laguntzaz goitibehera bat egin nuen. Kategoria librean ibiltzeko ibilgailu bat prestatu genuen lehenik, eta gero, pneumatika kategorian ibiltzeko goitibehera hobea. Goitibeheretikiko zaletasuna motor eta autoetatik dator, eta, agian, kirol horietatik etorriko zait goitibeheretikiko zaletasuna. Hasi nintzenetik gaur arte Euskal Herriko lasterketa guztietara joan naiz, batez ere Gipuzkoa eta Bizkai aldera.

Nolakoa da zure goitibehera?

Nire goitibehera oso-osorik burdinaz eginikoa da, gainetik karkasa beltz bat duena. Aurrealde guztia bizikleta batena da, manillarra, frenoak... Atzealdea, berriz, mini-motor baten gurpilekin eginikoa da.

Zein modalitatetan ibiltzen zara?

Pneumatika, arinak, drift-trikeak, gravity bikeak, skeletonak, errodamendukoak, librekoak... modalitate askoko goitibeherak daude. Drift-trikeak asko gustatzen zaizkit, gurpiletan hobiak dituztenak, horiek oso jostagarriak dira zeharka joateko. Kategoria libreko modalitatean ere ibili izan naiz. Baina niri gehien gustatzen zaizkidanak pneumatikakoak dira, gaur egun pneumatikako sailean sartzen den goitibehera daukat eta sail horretan lehiatzen naiz.

Euskadiko txapelketan lasterketarik irabazi duzu?

Goitibehera lasterketetan sail bakoitzeko goitibeherak daudenez, modalitatearen arabera dira sailkapenak. Modalitate bakoitzean hiru garaile daude eta askotan geratu izan naiz bigarren edo hirugarren postuan; iaz, esaterako, Eskoriatzako lasterketan, nirea ez den beste modalitate batean irabazi nuen, kategoria librean; sail horretan ez dago araurik, nahi duzun moduan egin egon daiteke goitibehera. Gaur egun, aldiz, pneumatikako sailean bakarrik ibiltzen naiz.



Lander Mediavilla pneumatika kategoriako goitibehera beltzarekin garajeko ate aurreko aldapan. | IMANOL BELOKI

"Bere arriskuak ditu, baina segurtasun neurriak betetzen dira"

Aspaldikoa da Debagoiengan goitibeheretikiko dagoen afizioa; zer dela eta?

Ez dakit zergatik den, baina geroz eta jende gehiago ibiltzen da goitibeheretan. Eskoriatzan sei edo zazpi pilotu gaude Euskal Herriko lasterketa guztietara joaten garenak, eta Oñatin eta Bergaran ere zaletasun handia dago. Ez lehiatu arren, jende asko ibiltzen da, lasterketa baten edo bestean, nahiz eta denetan parte ez hartu. Modan dagoela esan dezaket.

Zer da garrantzitsua goitibehera lasterketa batean?

Beldurrik ez izatea, frenoari gutxi sakatzea eta bihurguneak ondo trazatzea da beharrezkoa. Hala ere, goitibehera zein materialekin egin dagoen garrantzitsua da, eta, batez ere, freno onak izatea.

Arriskuak ditu kirol hori praktikatzeak?

Goitibehera ondo eraikita egotea, arnesa, kaskoa... izanda ez dago arriskurik. Bere arriskuak izan ditzake, baina, segurtasun neurriak betez gero, ez da arazorik

izaten. Beti gerta daiteke deskuiduan zerbait, baina antolazailleek ere segurtasuna ondo zaintzen dute.

Ikusi al duzu istripu gogorren bat noizbait?

Lasterketa guztietan izaten dira kolpeak. Gurpilak edo lasto fardoak izaten dira bidearen alboetan. Haien aurka kolpeak izaten dira, baina ez oso larriak. Behin emakume bat nola harrapatzen zuten ikusi nuen lasterketa batean, baina ez zitzaion ezer gertatu, eskerrak...

"Ez dakit zergatik den, baina geroz eta afizio handiagoa dago Debagoiengan"

Herriko pilotu asko zaudete goitibeheretan parte hartzen; badago lehiarik zuen artean?

Beti dago lehia modalitate berean parte hartzen dugunen artean. Batez ere, denborekin, beti komentatzen dugu bata edo besteak ze

denbora egin duen... baina *pike* sanoa da. Ondo pasatzera joaten gara, nahiz eta irabaztea beti den pozgarria.

Oraindik gaztea zara; etorkizunari begira planik bai?

Autoak eta motorrak asko gustatzen zaizkit. Autoetan lehiatzea gustatuko litzaidake, baina motorretan afizio handiagoa dut. Mendiko motor bat dut eta nire kontura ibiltzen naiz, ez dut inoiz txapelketetan parte hartu. Etorkizunari begira gustatuko litzaidake...

Orain dela gutxi, irailaren 20an, Eskoriatzako II. goitibehera lasterketa jokatu zen; zer moduz joan zen?

Goitibeheren Challenge Gipuzkoa txapelketako azken lasterketa izan zen. 67 goitibehera elkartu ginen bertan, horietatik 21 Eskoriatzarrak izan ginen. Euskadiko txapelketako lasterketa politena dela uste dut nik, dituen bihurgune eta ibilbide politagatik. Apotzaga auzotik Intxaurtxuetaraino, kilometro eta 400 metroko bidea dago, eta ondo ezagutzen dugun ibilbidea da. Gainera, etxean lehiatzeak xarma berezia du. Aurten, nire kategorian, hementzigarren postuan geratu naiz (01:36.921), eta egun ederra izan zen. Ea datorren urtean denbora hobea egiten dudana...



Mediavilla, Eskoriatzako II. edizioko lasterketan helmugara iristen. | MIRARI ALTUBE



UDA KO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan

Baita hemen ere: [f](#)



BADATOR EURIA. Etxerako bidean gindoazela euri zaparrada eta udako eguraldi ederra elkartzen diren ikusten da. /Argazkia: Ane Zuazubizkar /Arrasate



EKILORE ARTEAN, EGUZKIARI SO. Burgosen, 2014ko abuztuan egindako erretratu. /Argazkia: Olaia Ruiz de Azua /Arrasate



ZE URRUN DAGON KAMERUNI! Kantabriako Ajon, eta harkaitzean eserita nengoela, bi neska afrikar hauek jarri ziren aurrean pentsakor, itsasoari begira. /Argazkia: Marian Lizarralde



OINEZKOAK BAKARRIK. Ehunzango koloretsua bidegorria lasai zegoela aprobeztatzen Garagartzan, aurtengo abuztuan. /Argazkia: Jon Lopez /Arrasate



JANA GARRAIATZEN. Pirineoetako hainbat aterpetxetara janaria eramateko garraio bide bakarra helikopteroa da! Argazki hau Frantziako Arremoulie aterpetxeko bidean aterata dago. /Argazkia: Mikel Leturia /Bergara



SALTOKA. Nire anaia matxinsaltokeriak egiten agertzen da, atzean La Mer de Glace glaziarra duela. Mendia, oporrak, eguraldi ona. Zer behar da gehiago? /Argazkia: Lide Arenaza /Aretxabaleta



SAN FRANTZISKO. Argazkian Golden Gate zubia ilunabarrean agertzen da, justu erretratu hau txori bat hegana zihoala aterara dago. /Argazkia: Nerea Mendiola /Oñati




EURIPEKO UDETAN. Arangoitin aterata, andrea euripean autobusa hartzen, abuztu hasieran 2014. /Argazkia: Xabier Atxa /Arrasate



OLATUAREN GANDORREAN. Lainoak ere ikusi ditugu uda honetan. Argazki hau egun ilun batean ateratakoa da Asturiaseko kostaldeko hondartza baten. /Argazkia: Isaso Kalbano /Bergara



KARLOSEN ZUBIA. Praga, Malastranatik Moldavia ibai eta Karlosen zubia ikusten dira, bertan bizi diren zisneekin. Ez dira gutxi, ikusten den moduan. /Argazkia: Iker Coranti /Bergara



SURFAZ GOZATZEN. Surfa ere Sardinian: Porto Ferro-ko ilunabarra (Sardinia) atera guran, oraindik argi askorekin, 2014ko Abuztuan. /Argazkia: Ane Garcia /Oñati

X. GOIENA LEHIAKETA

Bloga: blogak.goiena.eus/argazkiak


udakoargazkiak  udakoargazkiak



BURANO. Arrantzaleen emazteek margotutako etxeak. Euren senarrek lehorreratzean sukaldeak erraz aurki zituzten. /Argazkia: Itziar Egiruren/Oñati



ISLANDIAGAUEZEREKOLORETSU Islandiako VÍc herrian ateratako aurora borealak... /Argazkia: Beñat Madariaga



KATEDRALA ARGITAN. Koloniako katedrala, Kölner Dom. 2014ko Abuztuan. /Argazkia: Miren Jódar /Arrasate



BASAMORTUKO EKAITZA. Death Valley-n egindako erretratua, basamortuko ekaitzaren gainera zetorkigula. AEB, 2014ko abuztua. /Argazkia: Eneritz Zubia/Eskoriatza



UR-JAUZIAK. Galizian egindako erretratua, hain zuzen, Ezaroko ur-jauzietan. Jallas ibaia da erretratuan ikusten dena. /Argazkia: Konsuelo Errasti



HONDARTZAKO ZAINDARIAK. Asturiasen, La Griega hondartzan egindako erretratua. /Argazkia: Imanol Aranburu /Arrasate



MIRANDA DO DOURO. Duero ibaiaren ertz batetan atera nuen. Garai batean ura putzutik ateratzeko erabiltzen zen tramankulua da. /Argazkia: Uxue Ugaldé /Oñati



ZUBIAN BARRENA. Landako urtegiari lau lagunek bizikletaz buelta egiten ari ginen bitartean. Argazkian urtegia zeharkatzen duen zubi bat azaltzen da. /Argazkia: Maitane Mendizabal /Arrasate



RIBADESELLA. 2014. urteko Iraila, Ribadesellako urak zehartzatzen motordun txalupa bat. /Argazkia: Ibane Letona



Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztaillaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinak bereizmenarekin).
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otxalora Lizentziaduna 31, Arrasate.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uada batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira.

* Oinarri guztiak: ttiki.com/70956

Sariak:

- 1. saria:** Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
 - 2. saria:** Orioko Aisia hotela, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
 - 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herritarren saria:** SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
- Boto emaleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: **goiena**

Laguntzaileak:



KULTURA



'Iparragirre Oñatin' antzezlaneko une bat; ezkerrean, Andres Zabala Iparragirreraren paperean. | IMANOL SORIANO

Iparragirrerarenak entzunaz, Iparragirre bera ezagutzen

- ▶ Olaitturri Elkartekoek 'Iparragirre Oñatin' obra antzeztu zuten zapatuan
- ▶ Kontatu eta kantatutakoekin, Urretxukoaren bizitza erreparasatu zuten

TXOMIN MADINA | OÑATI

Nire maitearentzat, Trapu zaharrak, Nire amak baleki, Agur Euskal Herriari... Eta nola ez, *Gernikako Arbola*. Joxe Mari Iparragirrek bere garaian idatzitako abestiak dira, gaur egun oraindik ere askoren buruan

daudenak, eta horiek guztiak, eta beste asko, entzun ahal izan ziren zapatuan Oñatin, Olaitturri Kultur Elkartearen *Iparragirre Oñatin* antzezlanean. Bi emanaldi izan ziren, eta bietan lepo bete zen Santa Ana aretoa; denera, 550 ikusle inguru izan ziren.

"Iparragirreri omenaldi txiki bat egin gura genion: hitzekin bere bizitza kontatu, eta bere abestiak kantatu ere bai. Osagarriak izatea gura genuen", zioen antzezlanaren idazle Inazio Irizarrek lehen emanaldiaren ostean. 1880an Oñatiko Sanmigeletara egindako

bisita ardatz hartuta, obrako pertsonaiek, euren elkarrizketen bidez, Urretxukoaren bizitza erreparasatu dute: bere maitaleak, Europan eta Amerikan bizi izan zen denboraldiak, Euskal Herrira itzulera... Irizarren gidoiak, gainera, euskalkiekin ere jolasten du: Oñatiko

personaiek oñatiera jatorrean berba egiten zuten; kanpoko pertsonaiek, aldiz, batuan.

Abestietan ere, ederki

27 aktore igo ziren denera agertokira, eta Olaitturrikoen gain, Pake-Lekuko; Oñati, Ganbara eta Parrokiako abesbatzetako; eta bertso eskolako kideek ere hartu zuten parte obran. Soinuak, gitarrak edo pianoak lagunduta abestu zutenen artean, batzuk ohitura zeuden jendaurrean aritzera; beste batzuk akaso ez hainbeste. Baina denek ere, ikuskizun ederra eskaini zuten. Kantu bakoitzaren ostean eta emanaldia bukatzean entzun ziren txalo zaparradak entzunda, badirudi herrikideak konbentzitu zituztela.

Sarrera doan zen arren, ikusleek Hermansoloña elkartearen Nazareth proiektuarendako dirua emateko aukera izan zuten, eta elkartekoek, eskerrak eman gura izan diete bai Olaitturri eta lagundu duten guztiei.



ELIAS ZUMALDE
IKUSLEA

"Ederra izan da, eta herritar talde batek egiteko, oso polita iruditu zait, hunkigarria. Gaurkoak ikusita gainera, Iparragirreraren inguruko gauza gehiago ere ikasi ditugu, eta gozatu ere egin dugu".



BEGOÑA ZURIKARAI
IKUSLEA

"Oso ikuskizun polita izan da, landutakoa. Kantuan ibili direnean ere gustatu zait, artista batzuk dira. Beste batzuekin batera, antzezlanerako joskin lanetan ere ibili naiz gainera".



MARIJE GURIDI
IKUSLEA

"Oso ondo egin dute, hunkitu ere egin naiz. Sekulako meritua dute: entsegu asko egin dituzte, eta horrela irten zaie hain ondo. Irrikaz egoten gara euren antzezlanak ikusteko".



ANDRES ZABALA
'IPARRAGIRRE'

"Nahiko polito irten zaigula uste dut, baina ikusleek esan beharko dute hori... Ez gara profesionalak, eta ahalegindu gara behintzat. Abesten nuen lehen aldia izan da, baina nahiko lasai egon naiz".



ARANTZAZU GARCIA
'BENEDITA'

"Jendea gustura ikustean, ni ere gustura ibili naiz. Oñatiarra izan eta Huescan bizi arren, Olaitturriren obra guztietan hartu dut parte; irailan entseatzeko, oporrak hartzen ditut".

Saririk lortu ez arren, bide luzea du aurretik 'Loreak'-ek

62. Zinemaldiko palmaresetik at geratu da Jon Garaño eta Jose Mari Goneagaren lana, baina urriaren 31n helduko da zinema aretoetara

TXOMIN MADINA ARRASATE

Izandako harrera beroak itxaropenerako atek zabaldu bazituen ere, azkenean ezin izan da: Donostiako 62. Zinemaldiko palmaresetik kanpo geratu da Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzendutako *Loreak* pelikula, orain arte Sail Ofizialean lehiatu den euskarazko film bakarra.

Epaimahaiak Carlos Vermuten *Magical girl* lanari eman dio pelikula onenaren Urrezko Maskorra; eta sari berezia, *Vie sauvage*-rentzat izan da. Vermutek berak jaso du zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra.

Estreinaldia eta jaialdiak

"Zapatu arratsaldera arte kinieletan zegoen *Loreak*, eta pena apur bat eman digu saririk ez irabazteak; baina uste dut pelikula indartuta irten dela", zioen atzo Aitor Arregi oñatiarrak, pelikulan gidolari eta ekoizle lanak egin dituenak. Zinemaldian bizitakoa maila askotan ikusgarria izan dela gaineratzen du, eta balantzea, "oso ondotik gorakoa" dela dio.

Urriaren 31n helduko da Euskal Herriko eta Espainiako zinema aretoetara pelikula, eta A contracorriente izango da bana-



Magical girl filmeko zuzendaria eta ekoizleak, zapatuko galan. | HARTZ DENDATEGI

tailea. "Berme bat da eurek estreinatzea, ez dute eta edozein pelikula hartzen. *Intocable*, esaterako, eurek estreinatu zuten"

Zinema jaialdiak dira pelikula hartuko duen bigarren bidea.

Atzo bertan Zurichera abiatu ziren *Loreak*-en zuzendariak pelikula hango jaialdian aurkezteko, eta laster Londreskoan ere egongo dira. "Duen profilagatik, badirudi *Loreak*-ek jaialdietan ibilbide poli-

ta izan dezakeela. Horri garrantzia ematen diogu, pelikula ezagutzeko eta banatzaileak lortzeko balio duelako", dio Arregik. *Loreak*-en bidea, beraz, hasi besterik ez da egin

"Palmares arraroa bezain justua"

"Zaila da zazpi pertsonaz osatutako epaimahaiarekin erabat ados egotea, baina niri ez zait oso palmares arraroa iruditu. *Magical girl* gustuko izan arren, bi sari ematea gehiegizko ote den galdetu diot nire buruari behin eta berriro. Hala ere, bi bidegabekeria aipatu gura nituzke. Batetik *Loreak* esku hutsik utzi izana ez zait batere justua iruditu. Bestetik, Raul Arevalo palmaresetik kanpo lagatzea ere ezin da ulertu. Azken honek, gainera, lan zaila izan du; izan ere, bere lankidearen izenean jaso behar izan du neurri baten, berea ere baden Zilarrezko Maskorra.

Guztia, baina, ez da txarra izan 62. Donostiako Zinemaldian. Rebordinos gero eta egonkortuago dago, eta aurtengo Zinemaldiak izar eta kalitatearen arteko oreka lortu du. Ea, hurrengo urterako erakunde publiko eta pribatuek euren apustu ekonomikoa areagotzen duten"



Imanol Gallego. | GOIENA

Velez de Mendizabalek jaso du 'Urrezko Zeledoiak' sariaren irudia

- ▶ Ostiralean jaso zuen ikurra Javier Maroto Gasteizko alkatearen eskutik
- ▶ Arabaren inguruan egindako ikerketa eta dibulgazio lanengatik saritu dute

T.M. | ARRASATE

Egubakoitz iluntzean Gasteizko Prinsipal antzokian egindako ekitaldian jaso zuen Jose Mari Velez de Mendizabal aramaiorak *Urrezko Zeledoiak* sariaren irudia. Arabaren inguruan egin dituen ikerketengatik eta dibulgazio lanengatik jaso zuen errekonozimendua, eta Gasteizko alkate Javier Marotok eman zion ikurra. Urrezko irudia emateaz gain, pin bat ere jarri zioten.

Velez de Mendizabalekin batera, Asun Gorospek ere errekonozimendu bera jaso zuen, eta aurreantzean biak izango dira Urrezko Zeledoiak erakundeko kide. Segidan datorren idatziarekin azaldu dio Aramaiokoak Goienari sariak berarentzat suposatzen duena.

Irailak 26, bihotzean

"Duela hamabost urteko irailak 26ak bezala, aurtengoak ere oso astindu gozoa eragin du nire gogoan. Amak munduratu ninduen dataren bezpera egun esanguratsua bilakatu da nire bizitzan, bizitzak berak lantzean behin eskaintzen dituen ustekabe ulergaitz horiengatik. 1999koan Aramaioko Seme Kutuna eta aurtengoan Urrezko Zeledoiak: bi errekonozimendu bikain, zinez eskertzen ditudanak, biak data berdinean eskuratuak, hamabost urteko tartearekin.

Eta esan dezaket orduko izendapen hark lagundu egin zidala, itxuraz batzuek euren berrogeita hamarretan izaten duten sindromea aurre egiten, zeharo bizigarria izan zitzaidala azpi-

marratuz, oso hamarkada emaritsua gertatu baitzitzaidan. Ziur nago oraingo honek ere, lan profesionaletarako erabateko etenarekin, irailak 27tik disfrutatzen ari naizen jubilazio osoko aroan bere eragin positiboa izango dela, eta bihotzeko lanarekin segituko dudala, auskalo noiz arte.

Berrogeita bi urteko kultura-ibilbide luzea ez nuen burutuko behar bezalako laguntzarik gabe eta nire lehen sostengua Edurne emaztea izan dut. Horregatik berarekin eta aurten jaio zaizkigun bi bilobekin konpartitu nahi izan dut Urrezko Zeledoiak. Ziur nago, Edurne alacantarrak eta Urtzi arrasatearrak herri hau maiteko dutela, euren aitonak egin duen moduan".



Gasteizko alkate Javier Maroto Velez de Mendizabali irudia ematen. | J. SEDANO



Aurtengo sarituak, Urrezko Zeledoiak erakundeko presidentearekin. | J. SEDANO

GURE MUSIKA TALDEAK

'Sute perfektua' grabatzen urriaren 13an hasiko da Anger

Teknikari berriarekin, Durangorako egongo da lana

J.D./J.I. | ARRASATE

Seigarren lana –laugarren luzea– izango dute oraingoa Anger taldekoek. *Sute perfektua* deitu dutena lan tematikoa da –2012ko *Hirugarren azala bezala*–, taldeko kide Arkaitz Biainek dioenez: "Aurrekoan eta oraingoa, gaia jarri dugu aurretik, eta letrak horren gainean kokatu gero. Ez da, agian, izan aurrekoa bezain trinkoa gaiari dagokionez, baina bai da gai baten inguruan egina".

Eta oraingoa gaia zein den azaltzeko, diskoaren izenburuari heltzen dio Biainek, eta esan *Sute perfektua* deitzen diotela "munduan dena aurretik eramatzen duen sute bati": "Da perfektua ez duelako ia arrastorik uzten. Kapitalismoaren eta sistemaren metafora da: dena aurretik eramatzen du, baina gu ez gara konturatzen; erre egiten gaitu, baina ez gara ohartzeko, ez digu eragiten". Eta beste azalpen ezkor bat ere gehitzen dio taldekideek asmatutako kontzeptu horri: "Gainera, ikusten dugu sute perfektu horretan, guk kontra eginda, edo kontrakulturatik sortzen ditugun su txiki horiek ere asimilatu egiten dituela. Kontrako suak bihurtzen ditu su artifizial edo onargarri".

Eta taldea saiatzen da planteatzen nola eman buelta horri: "Lehenengo gauza da konturatzea; eta nola konturatzen gara sute bat dagoela? Erre usaina dagoelako. Perfektua da, baina ez borobila; kosta egiten da, baina igartzen da. Eta horri buelta eman dakioke".

Hamar kantu inguru izango ditu disko berriak: "Bederatzi ditugu itxita, baina airean ditu-



Taldeko kide bi, entseatzen. | ANGER

gu beste batzuk. Hamarren bueltan izango dira".

Musikalki, saiatu dira elementu berriak sartzen, Biainek dioenez: "Musika beltzaren inguruak, rhythm and blues-aren edo soul-aren ukitu batzuk saiatu gara sartzen". Post hardcore-a omen da, bestela, oinarrietako bat, "metal, pop eta funk estiloe-

gu beste batzuk. Hamarren bueltan izango dira".

Aurreko diskoaren grabaketan bertan soinuarekin "esperimentatu" zutela-eta, oraingoa ikusi egin beharko dela dio Biainek, "ea grabazioak zer ematen duen": "Aldatu dugu soinu teknikaria. Orain arte Josemarekin [Linazasoro] ibili gara 10 urtez, eta orain Carlos Osinaga *Txap*-ekin grabatuko dugu. Aldaketa bat nahi genuen, baina ez gaizki joan zaiugulako Josemarekin, guztiz kontrako. Heldu gara puntu batera non nahi izan dugun beste ikuspegi bat txertatzea gure kantuei, eta hor ikusiko dugu badagoen tarterik esperimentatzeko. Pentsatzen dut baietz".

Diskoa Bonberenea Ekintzak-ekin aterako dute, eta gainera bertako estudioan grabatuta. Diskoa plazaratuta burutuko dute urtarril aldera sortutako asmoa, orduan erabaki omen zuten-eta lan berriaren bila joatea.

ESANAK

"Heldu gara puntu batera non nahi izan dugun beste ikuspegi bat txertatzea gure kantuei"

ARKAITZ BIAIN | ANGER

Ruper Ordorikaren disko berria, azaro amaierarako

'Lurrean etzanda' izango du izenburua, eta atzerriko musikariekin grabatu du, Elkarren

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Musikari oñatiarrak irailean egin du disko berria izango duen *Lurrean etzanda* izenekoaren grabaketa, Donostiako Elkar estudioan. Nazioarteko hiru musikarik lagundu diote grabazioan: Kenny Wollesen bateria jotzaileak, Simon Edwards baxu jotzaileak eta Leo Abrahams gitarristak.

Estudioko bere lanak aspalditik egiten ditu Ordorikak atzerriko musikariekin –*Dabilen harria* (1998) egin zuenetik–. New Yorken ezagututako musikariak izan dira kasu gehienetan –Ben Monder, Skuli Sverrisson, Jonathan Maron, Kenny Wollesen...–, baina oraingoa Erresuma Batuko bi musikari hartu ditu lagun lan berrirako.

Simon Edwards baxu jotzailea Billy Bragg-en *The Blokes* taldeko kidea da gaur egun, eta hainbat kantarirekin lan egin du: Beth Gibbons (Portishead), Alain Bashung, Talk Talk, Julian Lennon... Bestalde, Leo Abrahams gitarra jotzaileak Brian Eno eta David Byrne, Carl Barat (The Libertines), Jarvis Cocker (Pulp), Ed Har-



Ruper Ordorika. | GOIENA

court edota Paul Simonekin egin du lan. Kenny Wollesenek osatu du Ordorikaren taldea lan honetarako –*Azukre koskorrrak*-en (2013) izan ezik, Oñati-koaren estudioko lan guztietan hartu du parte Wollesenek 1998tik hona–.

Haizea garizumakoa (2009) eta *Hodeien azpian* (2011) New Yorken grabatu ostean, lan berria Euskal Herrian grabatu nahi izan du Ordorikak, esan bezala. Iraileko asteburu batean egin zen grabazioa Donostiako Elkar estudioan, eta nahasketak egin ondoren azaroaren 28an ikusiko du argia.

'The butcher's son', Franz Detour taldearen estreinako lana kalean, eta kontzertuak hitzartuta

Franz Detour laukoteak *The butcher's son* diskoa kaleratu du. Duela bi aste aurkeztu zuten Arrasaten, eta Pablo Rubiok Paramosound estudioan grabaturiko lana aurkezten jarraitzeko asmoa dute. Hurrengo kontzertua izango da bihar Aretxabaletako Izartun, eta Santurtzin, Castrourdialesen eta Gasteizen ere badira aritzekoak, baita Amsterdamen ere. Diskoa, berriz, salgai dago Aretxabaletako Izartun, Dagdan eta Haizean, eta Arrasateko Iluntzen, Taupan, Arrasaten, Amazonian eta Lazkanon.

Screamers and Sinners Bremenera doa, psycho eszenako talde handi askorekin batera jotzera

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Screamers and Sinners talde aretxabaletarrak psychobilly jaialdi batean estreinakoa egingo du datorren asteburuan. Bremen, Alemanian, ospatzen den Psychobilly Earthquake jaialdian hartuko dute parte. Bertan, gaur egungo psycho eszenako talde handi asko izango dira, besteak beste, The Quakes estatubatuarak, Demented Are Go ingelesak edo Sir Psyko and his Monsters austriarrak.

Jaialdia urriaren 2tik 4ra ospatuko da eta Screamers and Sinnersen txanda zapatuan izango da. Egunari hasiera emateko ardurak izango dute, 17:30ean, eta lehenengo orduan jende askorik

egoten ez den arren, taldekideak gogotsu joango dira Bremenera, "ondo pasatu eta ahalik eta kontzertu onena ematera". Aurten kaleratutako *Demon Tales* diskoa aurkeztera joango dira, eta dagoeneko kantu berrietan lanean dabiltzala esan du boskoteak. Psychobilly eszenan sartzeko aukera paregabea izango da, "behin jaialdi baten jota, aukera gehiago daudelako beste batera joateko".

Apirilean Parisera

Aste Santuan, berriz, Parisera joango da Aretxabaletako boskotea, Psychobilly Stomp jaialdira, The Meteors, Mad Sin edo Gutter Demons taldeekin batera jotzera.



Karlote, Screamers and Sinners taldeko kontrabaxu jotzailea, Bremenera bidean. | SCREAMERS AND SINNERS

Etxeko lanak: nolakoak, zenbat eta zertarako?

Familiaren babesak onura akademiko eta afektiboak dakartza ikaslearentzat

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Eskolak agindu, baina etxean egin behar dira etxeko lanak, eta sarri gatazka iturri dira familietan. Horrela irakurri dugu *Hik Hasi* aldizkariak argitaratu berri duen artikuluan. Izan ere, fami-
li askok uste du ez dutela seme-albei laguntzeko gaitasunik. Dena den, gurasoek, irakasgaietan sartu gabe, ikasten ikasteko prozesuan lagun dezakete.

Joxe Amiama EHUko irakasleak DBHko etxeko lanen inguruan

egindako doktore tesian ondorioztatu duenez, gai estresagarria izan beharrean, ahulgunea liru-dikeena indargune bihurtu daiteke. Amiamak etxeko lanak familiaren eta eskolaren arteko harremanak indartzeko baliabide gisa planteatzen ditu, bi guneak ukitzen dituen gaia baita. Izan ere, familiak etxeko lanetan laguntzeak mesede egiten die seme-alaben eskola-errendimenduari, gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioari eta eskolaren eta fami-

liaren arteko harremanari.

Familia etxeko lanetan presente egoteak sortzen dituen onurerei dagokienez, akademikoak, ohiturazkoak eta afektiboak aipatzen ditu Amiamaren tesiak.

Ikasten ikasten lagundu

Familia asko, ordea, ez dira gai sentitzen euren seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko, edukiak ez dituztelako ezagutzen. Hala ere, edukiei lotutakoez gain, badira familiek eskain ditzaketen zenbait jarraibide. Batetik, ikaste ohiturak hobetzen lagun diezaiekete ikasleei, denbora antolakuntzan edota ardurak hartzen. Bestetik, alderdi emozionalari begira, seme-alabak motibatzea, sentimenduak kudeatzen irakastea eta haien ahalegina baloratzea gomendatzen ditu Amiamak. Horrez gain, "laguntza eta motibazioa kontrolarekin eta presioarekin ez nahastea ezinbestekoa" dela azpimarratzen du bere tesian.

Eztabaida birplanteatzea

Bere tesian dioenez, komunikabideek ateratzen duten eztabaida "etxeko lanak bai ala ez" izan ohi da, baina Amiamaren arabera, hori ez da eztabaidaren muina. Horren ordez, pentsatu beharkekoa da "etxeko lanak nolakoak, zenbat eta zertarako" izango diren, DBHko esparruan etxeko lanak ez baitira zalantzan jartzen.

antolatzen dute euren denbora, eta eskolan hartzen diren erabaki-guneetan esku hartzen dute boto eskubidearekin.

Erresuma Batuan, Billings izeneko eskola nabarmentzen du De Hornak. Eskola publikoa da, baina ez dago ez ikasgairik ez azterketarik. Han ere, umeez asteen behin erabakiak hartzeko egiten diren batzarretan parte hartzen dute.

AEBetan, San Frantziskoko Tinkering eskolan, meen sorkuntzarako gaitasunak lantzeari ematen diote garrantzia.

Bikotearen asmoa da bidaiaren bigarren atal batean Espainiako eskola libreak bisitatzea, egoera zein den bertatik bertara ezagutzeko.

Estonoesaeskuola.org webgunean jaso dituzte bidaiaren nondik norakoak, mapa eta eguneroko bidez, eta proiektuaren bilakaera pausoz pauso jarraitzeko aukera ere bada bertan.



Etxeko lanak familiaren laguntzaz egitea onuragarria da. | TESTINGMOM.COM

Europa eta AEBetako eskola libreak ezagutzuz, bizikletan

Diana de Hornak eta Diego Gutierrez de Marañonek 2 urteko alabarekin egin dute bidai

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Hezkuntza ereduarekin arduratuta, Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako zenbait eskola libreak ezagutzeko bidaiak egin dute Diana de Hornak eta Diego Gutierrez de Marañonek martxoetik ekainera bitartean. Martxoaren 29an Tenerifetik irten eta zortzi herrialde bisitatu dituzte. Madrilen eta Bartzelonan hasi zuten bidaiak, eta Frantzia, Holandan, Ingalaterran, Danimarkan eta Suedian izan ziren gero. AEBetara ere joan ziren: New Yorkera, Bostonera, Los Angelesera eta San Frantziskora, besteak beste.

Bizikletan eta bideo-kamera batekin egin dute bidaiak, eta irudiak eta elkarrizketak grabatu dituzte aukera izan duten gutietan. Ideia da abentura amaitutakoan dokumentala egitea.

Eskola bereziak

Alemanian Waldkindergartens izeneko bi eskola bisitatu dituzte. Eskolak basoan izaten dira, eta umeez zuzentzen dira, animaliak ezagutzeko ematen dute eguna. Herbehereetan eskola demokratiko bat ezagutu dute, non neska-mutikoez erabakitzen duten zer eta nola ikasi. Umeez

Social Toy mugimendua: parkeko jostailuak denonak dira

L.Z. | ARRASATE

Marta Ros eta Sarah Rink guraso dira, eta aspertuta zeuden egunero nork bere umearen jostailuak parkera jaitsi eta arratsalde amaieran batzeaz. Hala, Social Toy mugimendua martxan jartzea pentsatu zuten. Bartzelonako Gracia auzoko parkeko gainerako gurasoekin hitz egin, eta guztien artean parkekoak izango ziren jostailuen kutxa sortu zuten.

Funtzionamendu erraza

Jostailuak guztiek erabiltzeko dira, eta, eguna amaitzen denean, kutxan jaso eta bertan gelditzen dira. Horretarako, parkekoak direla adieraziz oharra dituzte jostailuek, baina horrek ez

du kentzen umeez etxetik nork bere jostailuak eramatea. Gertatu izan da parkeko jostailuak desagertzea, baina apurka-apurka familiak ari dira ekimenaren filosofiaz jabetzen, eta inguruko beste zenbait parketan ere ipini dute martxan ekimen bera. Ekimenak elkarbanatzen, besteekiko errespetua, gune publikoekiko errespetua eta kontsumo arduratsua bultzatzen dituela adierazten dute Rosek eta Rink.

Mugimendua zer den azaltzen duen atari digitala ere egin dute: *Socialtoy.org*. Bertan, ekimen horretara atxiki diren parkeen kokapena, funtzionamendua eta ekimena martxan jartzeko eskuorria aurki daitezke.



Marta Ros eta Sarah Rink, ekimenaren sortzaileak. | SOCIALTOY.ORG

ARGITALPENA

'Kimutx' bildumako ipuinak, keinu hizkuntzan

M.T. | ARRASATE

Kimutx ipuin sortaren proiektutik egitasmo berri bat jaio da: Zeinutx. Horrela, euskal mitologia eta kultura haurrei gerturatzeko sortutako ekimenak pauso bat gehiago eman du, eta orain, haur gorrek ere izango dute ipuin horiez gozatzeko aukera. Elkarlanean, zortzi alez osatutako bideo bilduma egin dute Miren Aldazabalek, Ane Elordik eta Kimutx Elkarteak.

Gainera, ahotsa ere gehitu dute bideoan; beraz, gorrek direnek zein ez direnek euren aisialdia elkarrekin igarotzeko tresna bat ere bada Zeinutx. Istoriek Kimutx pertsonaia mitologikoaren pasarteak kontatzen dituzte. Edukiak, gainera, Creative Commons BY-SA lizentziarekin sortu dituzte; beraz, erabilera librea da eta nahi duenak materiala eskuragarri du elkartearen webgunean: *Kimutx.eu*.

IRTEERA

Larraitz eta Abaltzisketa arteko ibilbide irisgarria

M.T. | ARRASATE

Larraitzeko ermitaren ingurutik hasi, eta Abaltzisketara, Aralar parke naturalera, paisaiak inguratzen du ibiltaria bi puntuak lotzen dituen ibilbide irisgarria. Bidean zehar, inguruko natura eta kulturari buruzko 40 informazio-panel daude, eta, fauna espezie askotariko brontzezko hainbat irudirekin, gertutik uki daiteke natura.

Noranzko bakarrean, 1,5 kilometroko luzera eta %8ko gehieneko malda ditu bideak; beraz, joan-etorrian egiteko modukoa ere bada, ordubetan. Gainera, gurgildun aulkidunentzat eta ikusmen arazoak dituztenentzat egokia da.

Eguraldi eskasa topatuz gero, ibilbidearen amaieran Abaltzisketako frontoi estaliak jolaserako aukera aparta eskaintzen du, baita haren pareko jolasparkeak ere, eguraldiak laguntzen badu.



1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Eskoriatza. Etxebizitza ematen da errentan Dorleta auzoan. Igo-gailua eta berokuntza du eta jantzi dago. Garajea posible da behar izan ezker. 616 91 37 54

Eskoriatza. Berriztatuko base-ria ematen da errentan. 18:00etatik 21:00etara bitartean deitu mesedez. Deitu 693 21 52 62 telefono zenbakira.

Eskoriatza. Etxebizitza berria ematen da errentan Eskoriatza erdian. Hiru logela eta bi komun. 652 70 08 00

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, egongela-jangela, bi komun eta sukaldia. 650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Antzuolan etxebizitza errentan hartzeko asmoa daukagun bikote bat gara. 676 61 15 47

Arrasate. Bilogelako etxebizitza behar dut errentan, ahalbada erdigunean. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. 688 48 47 76 edo 610 99 42 03

Arrasate. Bilogelako etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. Deitu 651 54 10 26 edo 634 12 56 87 telefonora.

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. Deitu 662 68 56 03 telefonora.

Bergara. Etxebizitza behar du errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket. 637 18 07 23

Bergara. Mutil gazte, langilea, etxebizitza bila. Batendako moduko edo norbaitekin osatzeko. 669 83 38 75

Debagoiena. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 602 00 57 93 telefonora.

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdigunean logela ematen da errentan. Sarraila dauka eta telebista jartzeko aukera ere bai. Deitu 603 14 28 89 telefonora.

Aretxabaleta. Logela bat ematen da errentan. Etxe berria da, argitsua eta balkoia dauka. 662 38 14 18

Aretxabaleta. Logela bat errentan ematen da. Baina barruan dauka. Argitsua eta balkoiarekin. 678 73 66 54

Arrasate. Arrasateko mutil langilea, ez erretzailea, beste batzuekin osatzeko etxebizitza bila. 679 42 09 38

Arrasate. Erdigunean etxebizitza osatzeko 25-40 urte bitarteko pertsona arduratsua behar dugua. 678 82 69 77 (Aritz)

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean, etxeko gainontzeko guneak ibiltzeko aukerarekin. 679 85 63 48

Arrasate. Udalpe kalean logela bat ematen da errentan ikasleentzat. 632 09 17 33

Bergara. Erdigunean logela ematen da errentan. Bere bainu-gela dauka. Emakumeendako bakarrik. Deitu 602 59 38 14 telefonora.

Bergara. Etxebizitza bila nabil. Pertsona batendako moduko edo norbaitekin osatzeko. Interesatuok deitu: 669 83 38 75

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genuekeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

Pisukide bila. Etxea osatzeko pisukide bila nabil. Logela handi bat, bi oherekin, eta etxeko gune guztiak erabiltzeko aukera. Logelak 250 euro balio du hilean eta gastuak erdibana ordainduko genituzke. 631 34 97 91

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Uribarri etorbidean, unibertsitate ondoan, garaje itxia ematen da errentan. 609 01 54 63

Bergara. Plaza bateko garaje itxia ematen da errentan Ibergarain, autobus geltoki parean. 665 73 98 32

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garajea hartuko nuke errentan Malvina inguruan. 628 51 40 91

Bergara. Auto handi batendako garajea hartuko nuke errentan Bergarako erdigunean. 686 24 68 92

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BERGARA

Jangelako zerbitzaria behar da.
Esperientzia ezinbestekoa.
Bidali CVa: jatetxean@gmail.com

Arrasate. 40-55 urte bitarteko pertsona bat behar da etxean bertan bizitzeko. Esperientziaduna. 629 05 34 02

Bergara. Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 669 83 06 97

Eskoriatzan umeak zaindu. Eskoriatzan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Autoa derrigorrezkoa. 626 50 37 85

402. ESKAERA

Arrasate eta inguruak. Neska euskalduna arratsalde edo astebukaeratan umeak edo nagusiak zaintzeko. Autoa daukat. 639 44 86 30

Arrasate. Asteazken zehar ume eta nagusiak zaindu edota garbiketalaran umeak zaintzeko. 682 31 97 37

Arrasate. Mutila gertu nagusiak zaindu, janaria prestatu, etxeko lanak egin, pasioan atera eta abar. Sukaldari eta egoitzatzen esperientzia eta elikagaiak erabiltzeko titulua daukat. 722 45 33 59

Bergara eta inguruak. 44 urteko emakume arduratsua eta esperientzia handikoa umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Irailaren 1ean hasteko prest. 647 51 52 80

Bergara eta inguruak. Neska euskaldun gaztea goizetan umeak ikastetxera eramanez eta etxean zaintzeko zein etxeko lanak egiteko gertu. 617 44 85 18

Bergara eta inguruak. Psikologian lizentziatutako neska esperientziaduna haurrak zaintzeko irrikaz. 615 73 68 07

Bergara. Bergarako 48 urteko emakume euskalduna, arduratsua, umeak, pertsona edade-tuak edo lanak egiteko prest dago goizetik 15:00 arte. 619 44 36 96

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Egueneko 16:00 arte jasotako iragarki bakarrak iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarki ondu oroz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

- Profesionalen moduluak.

Bergara. Emakumea lanerako gertu: etxeko garbitu, nagusiak zaindu edota sukaldian egiteko prest. Egun osoz, etxean bertan bizizaten edota orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 631 60 36 41 (Irma)

Bergara. Emakumea umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Bertakoa naiz. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 610 34 97 88

Bergara. Gizonezkoa lanerako gertu: etxeko garbitu, nagusiak zaindu edota sukaldian egiteko prest. Egun osoz, etxean bertan bizizaten edota orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 602 07 12 06 (Armando)

Bergara. Lehena hezkuntzako gradu eta haur hezkuntzako ziklo duen neska gazte euskalduna eta langilea. Goiz eta arratsaldetan haurrak zaintzeko eskaintzen da. 648 01 32 76

Bergara. Neska euskalduna goiz zein arratsaldetan umeak zaintzeko prest. 685 77 40 26.

Bergara. Neska euskalduna Haur Hezkuntzako titulazioarekin, goizetan umeak zaintzeko prest. 684 14 95 54

Bergara. Pertsona arduratsua, informaduna, garbiketalaran lanak egiteko gertu. 696 27 25 34

Bergaran, Arrasate edo Oñati. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta sei hilabetez San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza ofizial moduan. Gauetan ere lan egingo nuke. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Debagoiena eta Debabarena. Erreferentzia onak dituen neska egunez lan egiteko gertu. Garbitasunean eta etxeko lanetan esperientzia daukat. Lege paperak eguneratuta. 602 04 02 97

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 697 66 89 20

Debagoiena. Banatzaile, kamioi gidari edota zaintza lanetan arituko nintzateke. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 603 06 66 71

Debagoiena. Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak etxean zaintzeko gertu. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 637 18 07 23

Debagoiena. Emakume arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, tabernan eta abar. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka ere bai. 615 06 28 04

Debagoiena. Emakume espainiarra, eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Ospitalean gaua pasatzeko ere bai. Esperientziaduna. Ainhoa. 671 35 22 60

Debagoiena. Emakume lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxeko lanetan, lanegian, zerbitzari lanetan zein zaintzak egiten. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Emakume lanerako gertu. Etxean bizi izaten, orduka edota gauetan ere bai. 630 20 12 03

Debagoiena. Erizaintza laguntzailea naiz eta gauetan edo 11:00etatik 16:00etara bitartean zaintza lanak egingo nituzke. Autoa daukat. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 617 20 59 43

Debagoiena. Eskarmentudun neska orduka lan egiteko gertu. 671 97 19 30

Debagoiena. Etxean bertan bizizaten edo orduka lan egingo nuke. 606 64 16 09

Debagoiena. Garbiketalaran, nagusiak edo umeak zaintzen edo zerbitzari lanetan lan egingo nuke. 20 urte ditut. Diana. 663 46 65 17

Debagoiena. Garbiketalaran egiten eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizizaten edo bestela. Lege paperak daukat. Berehala hasteko gertu. 603 63 31 55

Debagoiena. Geriatria tituludun neska lan egiteko gertu. Ospitalean gaua pasatu edo etxeango umeak zaintzeko. Autoa daukat. 600 00 51 60

Debagoiena. Lan bila nabil umeak eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizizaten edota orduka. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 610 99 70 46

Debagoiena. Margolari, igeltsu edota nagusi eta ezinduek zaintzen lan egingo nuke. Oscar. 642 50 54 27

Debagoiena. Mutil langile eta arduratsua lanerako gertu. Eskarmentua dut garbitasunean eta nagusiak zaintzen. Sukalde laguntzaile eta garbiketalaran jardun naiteke. Lege paperak eguneratuta daukat. 632 26 01 84 edo 658 74 94 63

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Erreferentzia ona eta eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta etxeko lanetan. Etxean bertan bizizaten, egunez edo orduka ere bai. 662 43 08 54

Debagoiena. Nagusi eta umeak zainduko nituzke. Baita asteburuetan ere. Deitu 632 53 64 11 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna, nagusiak zaintzeko, orduka garbiketalaran edo paseoan ateratzeko gertu. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska euskalduna arratsalde edo astebukaeratan lan egiteko gertu. 696 37 79 74

Debagoiena. Neska euskalduna nagusiak zaintzeko gertu. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Erizaintza eta kirofano laguntzailea naiz. Gidabaimena daukat. 688 82 69 68

Debagoiena. Neska gertu arratsaldetan ume eta nagusiak zaintzeko. 696 84 19 51

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketalaran egiteko. Orduka, gauz, etxean bertan bizizaten edo bestela. 674 55 02 98

Debagoiena. Neska gertu umeak zaintzeko, garbitasun lanetarako eta sukalde laguntzaile aritzeko. 608 77 60 27

Debagoiena. Neska lan bila: ume eta nagusiak zaindu edo taberna eta atariak garbitzen. Etxean bertan bizi izaten, egunez, orduka eta baita asteburuetan ere. 631 28 22 03

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusiak zaintzen edota garbitasunean lan egindakoa naiz. 663 40 92 67

Debagoiena. Neska lanerako gertu: denetarik garbiketalaran, ume eta nagusiak zaindu etxean, ospitalean edota egoitzan, gidari, banatzaile eta abar. Deitu 696 32 13 69 telefonora.

Debagoiena. Neska lanerako gertu: nagusiak eta umeak zaindu, denetarik garbitasunak, baita ostalaritza eta baserrietan ere, edo tabernan sukaldari. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientziaduna. Autoa daukat. Deitu 697 20 00 86 telefonora.

Debagoiena. Neska lanerako gertu: nagusiak zaindu, tabernan sukaldari, garbiketalaran eta abar. Autoa daukat. 636 11 23 40

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke zerbitzari edo etxeko lanak egiten. 603 65 88 95

Debagoiena. Sukalde laguntzailea lan bila. Bost urteko eskarmentua. Nagusi eta umeak zaintzen edota denetarik garbiketalaran egiten ere lan egingo nuke. Gidabaimena eta autoa. 677 73 79 59

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna eta euskaraz badakit. Gidabaimena eta autoa daukat. 631 70 00 24

Eraikuntzan. eta obra publikoetan lan egingo nuke. 628 74 12 13

Ile apaintzailea. Ilea apaintzaile eta estetikista eskaintzen da lanerako arratsaldetan, 15:30etik aurrera, eta larunbatetan. Esperientzia handia. 605 72 64 43

Ile apaintzaile. Ilea apaintzaile moduan lan egingo nuke arratsaldetan eta zapatutan egun osoz. 622 59 39 87

Klinika laguntzaile. Nagusiak eta gaixok zaintzeko prest, egunez edo gauz, etxean zein ospitalean. 609 98 02 52

Lan bila. Neska arduratsua, eskarmentuduna, arratsalde, gau eta asteburuetan lanerako gertu. Nagusi eta umeak zaindu edota garbiketalaran. Arrasaten, Bergaran edo Aretxabaletan. 618 14 71 34

Lanerako gertu. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatutako gaztea lanerako gertu. Bergaran edo inguruan. 662 10 14 41

Umeak zaintzeko prest. Umeak eskolaria eraman eta zaintzeko prest. 605 71 09 07

Zaintza. Gaixo eta nagusiak zainduko nituzke: etxean, ospitalerako, paseoan lagundu eta abar. Baita baserrietan ere. Erizaintza eta kirofano laguntzaile naiz. Gidabaimena daukat. 678 37 32 43

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. 4. DBH-ko eta 6. mailako bi ikasleri eskola partikularrak emango dizkien norbait behar dugua. 677 52 48 34

502. EMAN

Bergara. Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Cambridge-eko eta HE-ko azterketak gertatzeko ere bai. Talde txikiak. Goizetan, eguerdian edo arratsaldean. 618 91 32 89

Bergara. Neska prest lehen hezkuntzako eta DBH-ko ikasleri eskola partikularrak emateko. 685 77 40 26

Escola partikularrak Arrasaten. Eskola partikularrak emango nitzkieke. Lehen Hezkuntzako edota DBH maila eta ikasleri. Gazte txoekin esperientziaduna. 24 urte. 676 58 96 74

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak. San Bernardo arrazako txakurkumeak salgai. Abuztuan jaiotakoak dira. Konpromiso gabe ikus daitezke. Txertoekin eta desparasitatuta ematen dira. 688 66 35 20 edo 646 72 98 47

703. EMAN

Arratoi txakurrak. Arratoi txakur txikiak, emeak, ematen dira opari. Deitu 669 89 55 74 telefonora.

Katuak eta katakumeak opari. Katu helduak eta abuztuan jaiotako katakumeak ematen dira opari. 629 09 63 46 edo 660 92 70 71

Txakurkumeak opari. Lau txakurkume ematen dira opari. Emeak. Hilabete eta erdi dute. 619 15 39 31

Txakurkumeak. Arratoi txakurkumeak ematen dira opari. 685 75 86 49

8. DENETARIK

801. SALDU

Lursaila Aretxabaletan. 1.132 metro koadro. Etxebizitza berrien artean, poliklordegitik gertu. 618 76 34 40

Ohe artikulatuak. Bi ohe artikulatu salgai. Egoera onean daude eta gutxi erabili. Bergaran. 696 38 67 26

Trastelekuak Oñatin. Bi trasteleku saldu edo errentan ematen dira Ugarkaldeko lehenengo blokean. Bata 9,11 metro koadrokoa eta bestea 11,04 metro koadrokoa. Lurpeko garajeetan daude. Deitu 659 35 06 53 edo 656 74 29 49 telefono zenbakietara.

802. EROSI

Bergara. Herritik gertu lursaila erosiko nuke. 660 64 20 42

Eskoriatza. Lursaila erosiko nuke. Nahiago herritik gertu. 618 76 34 40

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Inaki. 699 06 23 95

805. TRUKATU

Hizkuntza trukea. Alemana praktikatuko gura nuke eta trukean euskara edota gaztelania erakutsiko nituzke. Arrasatekoa naiz. 669 13 20 08

Hizkuntza trukea. Frantsesa praktikatuko gura nuke eta trukean euskara edota gaztelania erakutsiko nituzke. Arrasatekoa naiz. 685 76 59 73

Hizkuntza trukea. Ingelesa praktikatuko gura nuke eta trukean euskara edota gaztelania erakutsiko nituzke. Aretxabaletakoa naiz. 628 51 22 78

806. GALDU

Telefonoa taxian. Aurreko zapatu gauen, irailaren 13an. Eibarren hartutako taxian nire Samsung S2 mugikorra jaso zuten mutilari: bateriarik gabe egongo da eta mesedez deituzazu. Eskerrik asko. (Joana). 666 32 97 28

807. AURKITU

Betaurrekoak Bergaran. Eguzituko betaurreko batzuk aurkitu ditut Espoioan. 659 81 72 37

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Autoa Debagoienetik Bastidara. Egunero autoz Bastidara joan behar dut irailetik aurrera. Ingarua haietara doan norbaitek gutxiak banatu nahi ditut. Ordutegia adosteko. Interesatuok zenbaki honetara deitu mesedez: 680 34 29 60.

Debagoienetik Gasteizera. Goizetan Gasteizera joan behar dugun bi pertsona gara eta Debagoienetik autoz doan norbaiten bila gabiltza. Interesatuok zenbaki honetara deitu mesedez: 666 74 14 33

Debagoienetik Gasteizera. Irailetik ekinera arte. Gasteizera doan norbaitek autoa konpartitu nahi nuke. 7:30an irten eta 16:30-17:00ak inguruan itzultzeko. 645 00 62 79

ETXeko SUKALDERAINO

Elena Laka | Abokatua eta Topaguneko lehendakaria

- ▶ Abokatua da eta Topaguneko lehendakaria apirilaren 4az geroztik
- ▶ Sare sozialetan asko ibiltzen da, ez ostera, sukaldean

"Ez dakit kozinatzen eta ez zait interesatzen, ez dut pazientziarik"

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Abokatua da Elena Laka (Eibar, 1966) eta Topaguneko lehendakaria apirilaz geroztik. Irakurtzea eta zinea gustatzen zaizkio, *aperitif*a hartzea, berriketan egitea... Sare sozialetan "aktiboa" eta "kuxkuxeroa" ere bada. Sukaldeak, ostera, ez du erakartzen.

Elena Laka zelakoa da?

Egunero bizi nahi duen pertsona. Zein harreman duzu sukaldearekin? Ez dakit kozinatzen, ez zait interesatzen. Behar beharrezkoa denean bakarrik kozinatzen dut, eta normalean entsalada bat, eta zerbait zartaginean, plantxan edo labean, errez-errez egitekoa. Ez daukat kozinatzekeo pazientziarik. Zein da zure espezialitatea? Entsaladak; eta jogurtarekin egiten den bizkotxo. Ez dakit beste ezer egiten.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?

Patata tortilla ogitarteko bat eta botila ardo batera, neguan eguzkitan eta udan gerizpean.

Eta etsairik handiena zertara?

Etsaia? Jatera gonbidatu? Etsaia-ri ezta urik ere.

Zeinek gustatuko litzaizuke mahaiairen bueltan esertzea?

Etxekoekin eta lagunekin jartzen naiz gustura mahaian. Oso dese-

rosoa egiten zait ezezagun edo erdi-ezagunekin egitea otorduak, oso jardun ona ez badaukate behintzat.

Abokatu izateak zer eman dizu?

Burukomin asko, satisfazioen bat, jendearrekin lan egitea, eta errealitateari oso atxikita bizi izateko aukera, asko eskertzen dudana. Eta enplegu bat eta autonomia pertsonala.

Eta zer kendu dizu?



Lehen platera: Abuztu bukaerako tomate entsalada.

Bigarrena: Arroza, lñigok egindakoa.

Postrea: Gazta tarta zatitxo bat.

Edatekoa: Ardo beltza eta kafea.

Bada, abokatutzaz kanpo lan egiteko aukera, baina dena ezin da. Aukera bat egiten duzunean beti lagatzen dira bazterrean besteak. **Zure lanbidean inor miresten duzu?** Egunero harrokeria barik lan egiten duten profesionalak eta jubilatzekeo adin legala beteta izanda ere lanean gogotsu jarraitzen dutenak.

Zer da abokatutzaren mundu horretan gustuko ez duzuna?

Epaitegiaren egiten duten denboraren kudeaketa: epeak abokatuontzat dira bakarrik, ez epaile eta epaitegiko langileentzat, horiek ez baitaude epeen zain, eta beste guztiok euren ez-epeen menpe gauzkatela.

Topaguneko lehendakari: burukomin iturri edo satisfazio emaille?

Satisfazio emaille, zalantza barik. **Euskara eta abokatu baten lan jarduna bateragarriak dira gurean?** Gurean nekez dira bateragarri euskara eta arlo ugari, horregatik gabiltza ni eta beste milaka herritar euskalgintzako mugimenduan lanean.

Iratxoek hiru desio eskatzeko aukera eman dizute...

Konformatzen naiz gure semeak ondo hezte eta haztearekin, eta pentsatzen dugunaren alde lanean jarraitzearekin, tarteka plazerak



Elena Laka telebistan. | GOIENA

"Gurean nekez dira bateragarri euskara eta arlo ugari, eta asko gabiltza lanean"

dastatzen. Osterakoak mirariak dira, eta horietan ez dut sinisten. **Zure bizitzako anekdota bat?** Txikitik pentsatzen nuen 2000 urtetik aurrera oso zaharra izango nintzela, eta ezingo nuela ezer ganorazkorik egin.

Damu zara...

Egindakoa eginda dago, eta ez dauka damutzekeo bueltarik. Damutzekotan, egin ez izanaz, baina

dena ezin da.

Zer errepikatuko zenuke?

İnigorekin bizitzeko hautua.

Zerk beldurtzen zaitu?

Gertuko en sufrimenduak.

Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...

Sukaldera sartu, etxeko martxa eta ardurez galdetu, eta ahal badut, sukaldean laguntzen dudana bitartean eta Berria edo GOIENA modu kritikoa irakurri eta komentatu bitartean, ardo baso bat edaten dut.

Nora egingo zenuke ospa?

Itsas bazterrerara.

Ze aholku konpartituko zenuke?

Aditz bat, lehen edo bigarren pertsona konjugatuta: *saiatuko naiz, saiatu zaituzte*. Eta desio bat: *ondo pasatu*.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

TAGLIATELLEAK CARBONARA ERARA CURRYAREKIN

Honako errezeta hau zuekin konpartitu beharra neukan, benetan gozoa geratzen delako. *JaviRecetas* blogean inspiratuta egin dut; bertan, plater hori kozinatzekeo hiru modu esplikatzen zituen: arrautzarekin, esne-gainarekin eta curryarekin.

Carbonara: ikatzarekin lotura

Nire errezeta egiteko, gazta parmesano jakin bat erabili dut: Grana Padano, hautsetan. Normalean, gazta zatia erostea dut gustuko, eta kontsumitzera noan momentuan birrindu, zaporerik gal ez dezan, baina esan dizuedan horri hori harrigarria da, eta intentsitate berezia dauka. Eta onena da euro bat baino apurtxo bat garestiagoa besterik ez dela.



Tagliatelleak, gazta parmesanoa eta oreganoa gainetik dutela. | THE COOK ROCKER

Carbonarari dagokionez, berriz, italiar jatorria duen plater batek ematen dio izena. Hainbat teoria daude jatorria azaltzeko. Horietako baten arabera, ikatzarekin lotura zuzena dauka. Hain justu, ustez, Apeninoetan ikatz begetala egiten

zutenen plater ohikoa zen.

Beste batzuek diote ikatzarekin duen lotura dela carbonara saltsa egiteko erabiltzen den pipermin beltzak ematen dion kolorea.

Bestalde, bitxikeria moduan, saltsa berbaren jatorria latine-

Fitxa

- ▶ Denbora: 50 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

OSAGIAK

- ▶ Pasta, 200 g.
- ▶ Esne-gaina, 200 ml.
- ▶ Hirugiharra, 150 gramo.
- ▶ Tipula bat.
- ▶ Currya, koilarakadaxo txiki bat.
- ▶ Birrindutako tomatea edo frijitutako tomatea, 100 g.
- ▶ Gazta parmesanoa.

Prestaketa

1. Tipula fin-fin zatitu eta zartagin batean suezitu egiten dugu, olioarekin. Ia-ia karamelizatuta egon behar du; beraz, gatzaz eta piperraz ondu egingo dugu eta su txiki-txikian utziko dugu ordu erdiz.
2. Bien bitartean, hirugihar-xerrak zatitu, eta tipula gertu izateko beharrezko denbora betetzen denean, zartaginera botako dugu.
3. Kazola batean ura jarriko dugu irakiten. Pastaren arabera, iraupen bat edo beste beharko dugu egosteko. Kasu honetan, 8 minutu.
4. Hirugihar duen ur guztia botatzen duenean, nahasketari esne-gaina, tomatea eta currya gehituko dizkiogu; pare bat bider eragin. Pare bat minutuz utziko dugu saltsa su txikian, lodi dadin, eta pasta *al dente* dagoenean, hori ere zartaginera botako dugu.
5. Egurrezko koilara baten laguntzarekin, saltsa duen pastari pare bat buelta emango dizkiogu, osagaien zaporeak ondo elkartzeko. Emaizta platertxo txikietan aterako dugu, gazta parmesanoa eta oregano apur bat gainetik botata.

ko *salsus* berbatik dator, *salle-re* aditzaren partizipiotik, alegia. *Gatzetan ipini* esan gura du, jaki horren elaborazioan gatza erabiltzen zela adierazteko. Saltsen gaineko lehen aipamenak, berriz, erromatarren garaikoak dira.

Kaskoetan errealitate birtuala, hegaldia goxatzeko


Airbus abiazio konpainiak kasko berritzaile baten patentea erregistratu du

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Airbus abiazio handikia bidaia-rientzako errealitate birtualeko kaskoen aukeretan dabil lanean. Entretanimendua eskaini eta hegazkinetako panikoari aurre egiteko teknologia eskaintzea bilatzen dute, sistema batekin.

Patentea ezarrita

Patentea erregistratu berri dute *Headrest* izenarekin. Kasko honekin zentzumen guztiak isolatu eta errealitate birtualeko esperientzia eskainiko dute hegaldian zehar. Aurkeztu duten sistemak bidaiariari bere gustuko egoera eta ezarpenak aukeratzeko lagako lioke eta antsietate mailaren arabera moldatuko litzateke. Halako teknologia, noski, entretanimendurako ere oso egokia da eta erabilpen horretan ere leudeke pentsatzen Airbusekoak. Orain pantaila eta aurikular bitartez eskaini dena, kasko isolatzaile baten bitartez eskaintzea litzateke asmoa: musika, filmak, jokoak... Horrekin batera, segurtasun kontua ere bade-



Patwwentearen irudia. | GADGETE

la diote abiazio konpainiatik. Izan ere, antsietate eta kontrol-galtze egoeretan arriskua sortzen da eta panikoak jota dagoen bidaiariak gain gainontzeko bidaideak eta hegaldia bera kinkan jartzen omen dira askotan.

Oraingoz, patentearen erregistroa besterik ez da egin eta konpainiak ez du ez epeez, ezta ezarpen asmoez hitz egin. Hori bai, patentean mota guztietako

aukerak ikusten dira, baita usaimenarekin lotutakoak ere. Errealitate birtualeko esperientzia horretan kaskotik urrin ezberdinak hartzeko sistema bat planteatzen da; garapen bidean den teknologia batekin. Egiantzekotasunik ahalik eta handiena lortzea helburu, kaskoek, ematen dutenez, teknologiaren aurrerapen guztiak izango dituzte.



Blackberreren Passport modelo. | BERRYSEARCH

Kalean da Blackberreren karratua

Botoidun teklatua duen mugikor karratua da Blackberreren azken apustua. Neurriz handia eta guztiz zapala, bogako diseinuekin konparatuta atzerako urratsa dirudi, itxurari begiratuta. Hala ere, zulotik irteteko Blackberreren azken apustuak bat izan liteke Passport, aurreko porrotak ikusi eta gero.

Erabiltzaileek arazoak izan dituzte iOS 8ren eguneraketa dela-eta

Zenbait akatsekin etorri da Apple-en gailu eramangarrien sistema eragilearen azken eguneraketa. 8 bertsioa kaleratu bezain laster 8.01-a atera behar izan dute akatsak konpontzeko eta hori eta berehala 8.02 bertsio bat ordu gutxitara konponbide gehiagorekin.

Pornografia bilatzailea sortu dute Googleko langile ohi batzuek

Zentsurarekin gogaituta eta zenbait webgune, erabiltzaile adinez nagusi izanda ere, bilaketetatik kanpo uzten direla-eta Google-eko langile ohi batzuek pornografiara dedikatutako bilatzailea abiatu berri dute. Boodigo da bilatzaile horren izena.

Beste segurtasun zulo handi bat atzeman dute sarean

Bash aplikazioa programazioan erabiltzen duten milioika sistema, gailu eta zerbitzaritan dago

J.B. | ARRASATE

Interneten segurtasuna berriz ere kolokan jarri du eraso batek eta zalantzak eragin, behar diren neurriak eta interesa ba ote dagoen erabiltzaileen datu eta ekipoen segurtasuna bermatzeko. Batez ere enprekin lan egiten duten Bash eta Shellshock zerbitzuetan zabaldu dira arrakala handienak eta enpresa askoren web zerbitzariak zabaldu eta informazio

konfidentziala agerian jarri da. Programa askoren kodean erabiltzen da Bash delakoa eta bertatik zabaldu da bidea. Enpresa digital nagusi guztiek erabiltzen dute zerbitzu hori eta filtrazioak aurrera jarraitzen badu kaltea benetan handia izan daiteke.

Handiagoa

Orain dela hilabete batzuk *Heartbleed* delakoaren eskandalua eta

```

/home/mars
mars@marsmain ~$ cd /usr/portage/app-shells/bash
mars@marsmain /usr/portage/app-shells/bash $ ls -al
total 138
drwxr-xr-x 3 portage portage 1824 Jul 25 10:06
drwxr-xr-x 33 portage portage 1824 Aug 7 22:39
-rw-r--r-- 1 root root 35808 Jul 25 10:06 ChangeLog
-rw-r--r-- 1 root root 27002 Jul 25 10:06 Manifest
-rw-r--r-- 1 portage portage 4645 Mar 23 21:37 bash-3.1_p17.ebuild
-rw-r--r-- 1 portage portage 5977 Mar 23 21:37 bash-3.2_p39.ebuild
-rw-r--r-- 1 portage portage 6151 Apr 5 14:37 bash-3.2_p48-r1.ebuild
-rw-r--r-- 1 portage portage 5988 Mar 23 21:37 bash-3.2_p48.ebuild
-rw-r--r-- 1 portage portage 5643 Apr 5 14:37 bash-4.0_p10-r1.ebuild
-rw-r--r-- 1 portage portage 6230 Apr 5 14:37 bash-4.0_p10.ebuild
-rw-r--r-- 1 portage portage 5648 Apr 14 05:52 bash-4.0_p17-r1.ebuild
-rw-r--r-- 1 portage portage 5532 Apr 8 10:21 bash-4.0_p17.ebuild
-rw-r--r-- 1 portage portage 5668 May 30 03:35 bash-4.0_p24.ebuild
-rw-r--r-- 1 root root 5668 Jul 25 09:43 bash-4.0_p28.ebuild
drwxr-xr-x 2 portage portage 2048 May 30 03:35 files
-rw-r--r-- 1 portage portage 468 Feb 9 04:35 metadata.xml
mars@marsmain /usr/portage/app-shells/bash $ cat metadata.xml
<?xml version="1.0" encoding="UTF-8"?>

```

Bashen kode zati bat. | DIGITIN

gero, sareko segurtasuna zulo handi batekin konprometitzen den bigarren aldia da eta horrek alarma guztiak piztu ditu; dagoneko, zalantzan jartzen baita behar

diren neurriak hartzean nahikoa hartzen ote den. Zenbait adituk diote Bash-en eraso hau milioika erabiltzaileen datuak agerian jarri zituen *Heartbleed* hori bai-

no handi eta larriagoa izan daitekeela. Gainera, aurrekoan ez bezala, adituen arabera, ia ezinezkoa da Bash erabili duten zerbitzari eta aplikazioen lortza jarraitzea eta atzematen ez dituzten hutsuneak zabalik jarraituko dute etorkizunean ere.

Gauzen Internet

Ekipamendu zehatzei buruz hitz eginda, webgune espezializatuetan ohararazi dutenez, Unix eta Linux sistemetan eta Mac OS X exekutatzeko duen programan daude hutsuneak.

Kaltetuak suerta daitezke, era berean, "gauzen Internet" direlakoa gailuak. Hau da, sarera konektatzen diren aparatu eta gailu ezberdinak, mugikor eta tabletekin gain.

Sarea irekitzeko manifestua kaleratu du Telefonikak

J.B. | ARRASATE


Manifestu digitala izenarekin telekomunikazio multinazionalak gobernuei sare irekiago bat eskatu die dekalogo baten bitartez. Batetik, erabiltzaileen pribatutasun eta aukera askatasunaren alde eginda, merkatuaren

liberalizazio are zabalagoa da eskatu dutena eta, bestetik, eskatu dutw Google ala Applek erabiltzaileen datuen kontrolean mugak jarri ditzatela, bi handiki horiena baita eskusibitateia. Konpainia horiek aipatuta, Telefonikak, era berean, eskatzen

du sistema bakoitzak ireki ditzala aplikazio dendak bestelako konpainiei ere, eremu guztiz itxia baita Android eta iOSetik kanpo.

Firefox OS-aren apustua

Deigarria da eta kontuan hartzea da, horrekin batera, Telefonica Firefox-en sistema eragilea sustatzen dabilen terminal askotan. Manifestuan esaten dutenaren atzean, ulertzen denez, bere apustu estrategikoarentzat leku bila dabil konpainia.



Telefonikaren egoitza nagusia. | PANORAMA DIGITAL

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



15. anaia handia

Errez esaten da, baina dagoeneko 15. *Gran Hermano* saioa martxan da. TVE2 kateko *Saber y Ganar*-en ostean, pantailan denborarik gehien daraman lehiaketa da. Iraultzailea izan zen, etxeetan ikusi ahal izan genuen lehen *reality*-a, haren ostean milaka kopia ikusi ditugu; autobusak, hotelak, eta tankera guztietako eskolak, dantza ikastaroak (*Fama*), abesten ikasteko *reality*-ak...

Baina kopia horien guztien artean, bizirik iraun duen bakarra izan da *Anaia Handia*. Zer dela eta? Lehenik eta behin, publikoak zuzen-zuzenean lehiaketaren nondik norakoan eragiteko aukera dagoen saio bakarra izaten jarraitzen duelako. Ustez, ikus-entzuleok erabakitzen baitugu nor den irabazlea—hori oraindik %100 frogatu gabe badago ere.

Bestalde, gizakion jakin-mina, morboa, txutxu-mutxuak eta alderdirik ilunena formatu koloretsu eta zaratsutsu baten bidez agerian uzten dituen saio bikain bilakatu delako. Kritika asko jaso ditu saio horrek, baina onartu beharra dago, irakurle maitea, *Gran Hermano* lehiaketak lortu duena goraiatzekoa dela. Zorionak esango diegu? Tira, esan diezaiozun bada! Zorionak.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 29



'Harmailatik'

Saskibaloiko Euskal Kopa jokatu da asteburuan Arrasaten, eta partiduen laburpenak eskainiko dira. | 19:30

MARTITZENA, 30



Oro auzoa

Aretxabaletako Oro auzoa ezagutzeko aukera izango da Xabier Arbulo auzo-alkatearekin. | 20:00

EGUAZTENA, 1



'Berriak'

Debagoienean egunean zehar gertatzen diren albiste nagusiak jasoko dira berrien saioan. | 14:30

EGUENA, 2



'Amaia DJ'

Whatsapp, Twitter eta Tuenti bitartez gazteek eskatutako gus-tuko bideoklipekin egindako saioa. | 19:30

EGUBAKOITZA, 3



Sukaldaritza

Ritxi Perez arrasatearrak barrukiak nola prestatu erakutsiko du *Debagoiena zuzenean* saioan. | 20:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 13:00 Erreportajea
- 13:25 Zorion Agurrak
- 13:30 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Kontzertua
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Ertzak
- 18:00 Erreportajea
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Amaia DJ
- 19:30 Harmailatik
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Harmailatik
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Erreportajea
- 23:55 Debagoiena zuzenean
- 00:25 Berriak

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Harmailatik
- 13:00 Erreportajea
- 13:25 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Harmailatik
- 15:30 Onein
- 15:55 Zorion Agurrak
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Amaia DJ
- 17:30 Ikusi irratia
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Harmailatik
- 19:30 Artearen ibilbidea
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 21:30 Berriak
- 22:00 Ertzak
- 23:00 Debagoiena zuzenean
- 23:30 Berriak
- 23:30 Harmailatik
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Ertzak
- 13:30 Harmailatik
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Artearen ibilbidea
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Harmailatik
- 17:30 Ikusi irratia
- 18:30 Berriak
- 19:00 Ertzak
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Aniztasunean bizi
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Artearen ibilbidea
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Ertzak
- 13:30 Ur eta lur
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Ikusi irratia
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Aniztasunean bizi
- 18:10 Erreportajea
- 18:30 Berriak
- 19:00 Artearen ibilbidea
- 19:30 Amaia DJ
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Amaia DJ
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Amaia DJ
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Amaia DJ
- 13:00 Ikusi irratia
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Amaia DJ
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Moda desfilea
- 18:30 Berriak
- 19:00 Amaia DJ
- 19:30 Donostiako Zinemaldia
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Donostiako Zinemaldia
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Amaia DJ
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Donostiako Zinemaldia izango da berbetagai gaur, astelehena

Eman zaio amaiera aurtengo Donostiako Zinemaldiari eta asteburuan gertatutako kontuen berri emango du Arrasate Irratian Imanol Gallego kazetariak gaur, astelehena, *Uda giroan* irratsaioan, 11:00etan. Aurten saritutako filmak izango ditu berbetagai, besteak beste.

Zozketak egingo dira eguenean eta egubakoitzean, irratian

Hemendik aurrera, astero bi zozketa izango dira irratian; eguenean eta egubakoitzean. Eguenetan *Kooltur ostegunak* egitasmoko kontzertuetarako sarrerak banatuko dira, eta bestean, jolasak eta horrelakoak. Parte hartzeko, deitu 943 25 05 05era edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

Gazte informazioa eskainiko da irratian bihar, martitzena

Arrasateko Gazte Bulegoaren bisita izango da 107.7ko uhinetan bihar, martitzena, 11:00etan, *Uda giroan* irratsaioan. Gazte Bulegoko Dorleta Kortazar izango da Arrasate Irratian eta gazte informazioaren inguruko xehetasunak emango ditu. Gazteei eskainitako kontuen berri emango du Kortazarrek.

TELE-ALBISTEAK

Oñatiko eta Aretxabaletako San Migel jaiek eman dutena ikusi ahal izango da gaur

'Debagoiena zuzenean'-en eskainiko da, 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Festa giroan murgilduta pasa dute asteburua Oñatin eta Aretxabaletan San Migel jaiek ospatzen. Goiena telebistako kamerak, gainera, asteburuan bi herri horietan ibili dira jaiek eman duena jaso eta laburbilduta gaur, astelehena, *Debagoiena zuzenean* saioan emateko.

Aretxabaletako jaiak

Aretxabaletan azoka ospatu zen zapatuan. Urtero bezala, kanpoko zein bertako nekazari eta artisauen produktuak egon ziren salgai Durana kalean eta bertako giroa erakutsiko da telebistan. Domekan, ostera, abesbatzak *Katiuska* zarzuela taularatu zuen, eta nolakoa izan zen ere ikusi ahal izango da.



Aretxabaletan zapatuan ospatu zen azokan. | GOIENA

Oñatiko jaiak

Oñatin atzo, domeka, izan zen Txantxikuen jaitsiera, eta gauean izan zen nagusien danborradan

gertatutakoak ere jasoko dira saioan. Biharko saioan, berriz, astelehenak utzitakoak ikusi ahal izango dira Goiena telebistan.

Donostiako Zinemaldian jasotakoa, egubakoitzean Goiena telebistan

Zinemaldiko protagonisten hitzak jaso eta ikusleen iritzia batu ditu Imanol Gallegok

A.T. | ARRASATE

Asteburuan eman zaio bukaera 62. Donostiako Zinemaldiari eta aurtengo edizioak eman duena ikusi ahal izango da Goiena telebistan egubakoitz honetan, urriak 3, eskainiko den Zinemaldiari buruzko saio berezian (19:30ean eta 22:00etan).

Besteak beste, *Loreak* filmaren galan izan zen Imanol Gallego kazetaria eta ikus-entzunezkoaren protagonistei adierazpenak hartzeko aukera izan zuen bertan. Eta ez zen izan protagonistekin bakarrik, filma ikusten egon ziren pertsonen iritzia ere jaso zituen pelikula ikusi ostean euren sententzioak nolakoak izan ziren jakiteko.

Lasa eta Zabala ikus-entzunezkoaren jarraipena ere egin



'Loreak'-eko zuzendariak. | GOIENA

zuen Gallegok eta beste hainbat pelikulen nondik norakoak ere jaso ditu.

Donostiako Zinemaldiko alfonbra gorria, beraz, Goiena telebistan izango da ikusgai egubakoitzean.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Igor Varela
Urriaren 3an, 7 urte.
Zorionak. Amatzoren,
aitatzoren, Anderren eta
Saioaren partetik. Muxu
handi bat.



DEBAGOIENA
Valeria Garcia
Irailaren 30ean, 2 urte.
Zorionak!



OÑATI
Amets eta Mattin
Bikuña Malbadi
Ametsek urriaren 1ean, 8
urte eta Mattinek
irailaren 30ean, 3 urte.
Zorionak, bikote! Mila
muxu potolo etxekoen
partetik. Pozik bizi orain
arte bezala. Asko maite
zaituztegu.



ANTZUOLA
Martin Legorburu
Irailaren 30ean,
urtebete. Zorionak!
Arrasateko zure lagun
Arrateren, Saioaren,
Ainhoaren eta Unairen
partetik. Eguna oso-oso
ondo pasatzia espero
dugu. Mila muxu.



OÑATI
Nahia Eskarza
Vernaza
Irailaren 29an, 7 urte.
Zorionak, potxoli. Ondo
pasatu eguna eta patxo
handi-handi bat
amamaren, aitatxoren
eta amatzoren partetik.



ARRASATE
Beñat Hernandez
Iturbe
Irailaren 29an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun, eta
urte askotarako. Oso
ongi pasatu zure
egunean. Muxu potolo
eta handi bat etxeko
guztien partetik.



ANTZUOLA
Amets eta Oinatz
Larrea Garitano
Ametsek irailaren 29an,
5 urte eta Oinatzek,
berriz, urriaren 1ean, 3.
Zorionak etxeko guztien
eta, bereziki, Maddiren
partetik. Ondo pasatu
zuen urtebetetze
egunak!



ARAMAIO
Nahia Reguero
Irailaren 29an, 4 urte.
Zorionak, printzesa!
Primeran pasatu zure
laugarren urtebetetzea.
Muxu handi-handi bat
familia guztiaren
partetik, bereziki
Liberena.



ARETXABALETA
Izaro Hernandez
Urzelai
Irailaren 28an, 8 urte.
Zorionak! Ondo ospatu
zure urtebetetze eguna
eta patxo potolo bat
etxeko guztien partetik.
Bereziki amatxo, aitatxo,
Gari eta Oihan.



OÑATI
Ane Pelayo
Irailaren 28an, 9 urte.
Zorionak, Ane! Jada
bederatzi urte! Ondo
pasatu eguna eta muxu
handi bat etxekoen
partetik.



ARRASATE
Izaro Tena Azkarraga
Irailaren 28an, 4 urte.
Zorionak etxeko danon
eta, batez ere, Noraren
partetik. Ondo pasatu
zure eguna. Patxo bat!



ARETXABALETA
Joanes eta Maier
Agirre Aldalur
Irailaren 27an, 6 urte.
Zorionak, bikote! Patxo
handi bana familixa
guztiaren eta, bereziki,
Alaitzen, aitatxoren eta
amatzoren partetik!
Mua!



ARRASATE
Naiara Zabarte Ajuria
Irailaren 27an, 26 urte.
Zorionak, polit hori! Oso
ondo pasatu eguna eta
muxu handi bat
kuadrilakuen partetik!



DEBAGOIENA
Eki Balantzategi
Irailaren 27an, 11 urte.
Zorionak, maittaa!
Hamaika urtetzar!
Jarraitu holaxe
jator-jator eta goguen
partetik. Mua!



ESKORIATZA
Maren Markaide
Irailaren 27an, 12 urte.
Zorionak, potxoli!
Ondo-ondo pasatu eta ez
zaitzez lotsatu! Muxu
handi bat etxekuen
partetik. Mua!



ARETXABALETA
Urko eta Antonio
Urkok irailaren 26an eta
Antonik urriaren 4an,
euren urtebetetzeak
ospatuko dituzte. Etxeko
guztien partetik,
ondo-ondo pasatu. Muxu
potolo bat.



BERGARA
Martin Leta Davila
Irailaren 25ean, 12 urte.
Zorionak, txapeldun!
Muxu potolo pila bat
familia guztiaren eta,
bereziki, aitatxoren,
Oierren, Ederren eta
Aneren partetik.



ARETXABALETA
Axel Urzelai
Hernandez
Irailaren 25ean, 2 urte.
Zorionak, Axel!
Ondo-ondo pasatu eta
txokolatzeko muxuak
denon partetik!



OÑATI
Gerardo Pascual
Irailaren 25ean,
urtebetetzea. Zorionak,
aitaita! Ondo pasatu
eguna.



ARRASATE
Jon Zubia Carrasco
Irailaren 24an, 5 urte.
Zorionak, maitia! Patxo
handi bat etxekoen
partetik!



ARRASATE
Izadi
Uribarren-Iturrieta
Elices
Irailaren 24an, urtebete.
Zorionak, maitia!
Jadanik urtetxo bat. Oso
ondo ospatu zure eguna.
Mila patxo. Asko maite
zaitugu.



ARRASATE
Oihan Castillo Romero
Irailaren 24an, urtebete.
Zorionak, txapeldun!
Patxo pila-pila-pila
etxeko guztien eta, batez
ere, Danelen partetik.



ANTZUOLA
Garazi Aranburu
Segurola
Irailaren 23an, Garazik 3
urte. Zorionak eta muxu
handi bat etxekoen
partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz Goiena.eus atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu;
bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta arduraren handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA

OROIGARRIA

Julio Sotos Fraile

2014ko irailaren 25ean hil zen.

*Betiko izango zaitugu gogoan.*Juani, Rafa, Aitziber eta Imanol.
Aretxabaletan, 2014ko irailaren 29an.**JAIOTAKOAK****Jaio da!****Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**Eider Dominguez Garai**

Arrasate 3,550 Kilo. Irailaren 25a. Gurasoak: Jazarpen eta Garikoitz. Argazkian, Eider sehaskan lo.

**Enaitz Aranguren Amondarain**

Antzuola 3,700 Kilo. Irailaren 24a. Gurasoak: Aitor (Antzuola) eta Alaitz (Galdakao). Argazkian, amatxo Alaitzekin.

**Ibai Ezkurra Iturbe**

Arrasate 3,850 Kilo. Irailaren 22a. Gurasoak: Saioa eta Mikel. Argazkian, Ibai jaioberria gurasoekin.

**Luka Vicente Manzano**

Arrasate. Irailaren 24a. Gurasoak: Pilar eta Ivan. Argazkian, Luka jaioberria Adayenekin.

**Elene Martinez Gomez**

Bergara 2,940 Kilo. Irailaren 24a. Gurasoak: Iosebe eta Zigor. Argazkian, Elene txikia sehaskan.

**Izaro Loiola Lopez**

Bergara 3,190 Kilo. Irailaren 18a. Gurasoak: Maitane eta Igor. Argazkian, Izaro aitaren besoetan.

**Urtzi Ginart Velez de Mendizabal**

Arrasate 2,630 Kilo. Irailaren 12a. Gurasoak: Zuriñe eta Koldo. Argazkian, Urtzi, gustora sehaskan.

Zombien moda, muturreraino eroanda

Argazkikoa loreontzi bat da: haziak bota eta ureztatuz gero, landare betetzen da. Sustoren bat edo beste emateko ez dago gaizki!
www.nopuedocreer.com



8.500

EURO GORDIN

Kargutik dimititu eta politika utziko duela iragarri ostean, Madrilgo Erkidegoko Kontsulta-Kontseiluko kide bihurtu da Alberto

Ruiz-Gallardon. 8.500 euro gordin, 5.500 garbi, jasoko ditu hilean bizitza guztirako den postuagatik.
www.elpais.com



Max. 22°

Min. 14°

Arratsaldean hodeiak trinkoagoak izango dira eta zaparradak eta ekaitzak botako ditu.
euskalmet.net

goiena

2014-09-29

Reyes Prados Edozeinek esango luke, galdetegi guztia euskaraz erantzuten entzunda, Sevillan jaiotako kazetari eta telebistako aurkezleak urtebete bakarrik daroala euskara ikasten | TXOMIN MADINA

"Hiru hilabetetarako etorri nintzen, eta zortzi urte bihurtu dira"

1. Zer eraman zintuen Andaluzia utzi eta Euskal Herrira etortzera? Lanak; hiru hilabetetarako etorri nintzen, eta azkenean zortzi urte bihurtu dira. Denetarik aurkitu dut hemen: maitasuna, lagunak...

2. Zenbat txantxa jasan behar izan dituzu Ocho apellidos vascos estreinatu zenetik?

Asko, bai Euskal Herrian eta baita Sevillan ere! Topikoek badaukate euren egia zatitxo. Sevillan galdetzen didate ea horrelakoa den, ea nire hasierak horrelakoa izan ziren... Eguraldiari dagokionez, baietz esan behar dut.

3. Euskadi Directo-ren ia 1.400 saio aurkeztu ostean, zer geratu zitzaizun argi euskaldunoi buruz? Harrera ona egiten duzuela, eta jarrera ona duzuela. Euskal Herrikanpo esaten da ez zaretela irekiak, baina nik frogatu ahal izan nuen bazaretela. Baita tradizioak oso errotuta dituzuela ere.

4. Nola bizi izan zenuen Cuadrilla busca cita-k piztutako polemika?

Proiektuarekin hasi ginenean ilusio handia nuen, eta grabatzen ere oso giro ona, jatorra, izan genuen. Baina akaso, gero, ez genuen programan hori erakusterik lortu.

5. Botatzen duzu faltan gaurkotasanari lotutako saio bat aurkeztea? Bai, bai aurkeztea eta baita gaurkotasanarekin harremana ere. Aurkeztu ez arren, *Zuek hor eta gu hemen* eta *Euskadi Zuzenean* saioetan kolaboratuko dut.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Euskaraz benetan ondo hitz egiteko gai izatea eskatuko nioke makila magiko horri"

AGM

6. Momentuz, kamerak irratiko mikrofonoengatik ordezkatu dituzu. Gazteatik deitu zidatenean *Dida*-n euskarazko kolaborazioak egiteko, zalantzak izan nituen; baina esperientzia oso ona izaten ari da. Irratiko lana ia berria da niretzat, eta erronka bat izan da.

7. Zenbat aldiz galdetu dizute urtebetean euskara hain azkar eta hain ondo ikasteko sekretua?

Ez dago sekreturik. Gogoia, ilusioa eta errespetua izan behar dituzu; eta lan egin. Gainera, ez dut uste hain ondo egiten dudunik. Idaztea ez hainbeste, baina hitz egitea bai kostatzen zait; soltura gehiago izatea gurako nuke.

8. Bat baino gehiago euskara ez ikasteko aitzakia gabe utzi duzu...

Ni neu ere horregatik ez nintzen hasi lehenago ikasten, zaila zela esaten zidatelako. Baina konturatu nintzen Euskal Herrian banago, saiatu behintzat, saiatu behar nuela. Zaila da, bai, gaztelaniarekiko oso ezberdina delako; baina saiatu egin behar da, eta lotsa galdu.

9. Sevillako zeren falta igartzen duzu gehien hemen zaudela?

Familiarena, noski, eta batzuetan, eguzkiarena ere bai. Baina ohitu naiz eguraldira.

10. Eta hemengo zerena Sevillan zaudela?

Senarrarena, eta giroarena: lagun asko egin ditut hemen; nik neuk bilatuta, neure lekua egitea lortu dut. Eta poteoarena ere bai!

MARKOS BALENTZIAGA



Dimisioaren inguruan

James Freeman Clarke XIX. mendeko idazleak idatzia da politikariak hurrengo hauteskundeetan pentsatzen duela; estatugizonak, aldiz, hurrengo belaunetan. Gallardon Españaiko justizia-ministroak abortu-legearen egitasmoa zapuztu diotelako kargua bertan behera laga izanak PP-ren kalkulua elektoralak zein estua den erakusten du.

Legealdiak hiru urte egingo ditu laster; ez da erraza Gobernuak emandako hitza behin eta berriro jateko duen gose pantagruelikoaz berririk ematea, dena dago-eta esanda. 2015erako inkesta publikoek iragarpen gaiztoak dituzte PP-rentzat, eta ezkutukoak, gaiztoagoak. Maiatzean udal-hauteskundeak izango dira estatuan, autonomikoak Nafarroan, eta foralak Euskadin; abenduan, legislatiboak, estatuan.

PP-ren gobernuak ikur ideologiko bihurtu zuen abortuaren legea; bidean geratu da, askoren pozerako. Bestelako kili-kilia izango du Wert-ek bere hezkuntza-lege neofrankista indarrean ikusita.

Alberto Moravia italiar idazle bikainak esana da boto-emaileak ez direla inoiz beren botoen bidez agintera eraman duten gobernuaren erantzule sentitzen.

OMEGA
Urban Service

24h

945 290 308

www.igogailuak.com

debagoiena@omegaurban.com

Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak

Igogailuen
Mantentze-lanak